

## Nabarrismoaren bilakaera historikoa euskal-nafar batasunaren aurrean



Ibai Elorriaga Elordui

*Historian Lizentziatua eta Zientzia  
Politikoetan masterduna*

### ***Laburpena***

Lan honetan nabarrismoa izango dugu hizpide. Egun Nafarroako UPN alderdi politikoak ordezkatzeko duen jardun politikoarekin identifikatzen dugun arren, nabarrismoak ez ditu beti tesi berak defendatu. Horixe izango da, ondorengo orrialdeetan aztertuko duguna, nabarrismoak izandako bilakaera, eta batez ere, euskal-nafar batasunaren aurrean izan duen jarrera eta batasun politiko hau nola baldintzatu duen.

## Sarrera

Lan honetan nabarrismoa izango dugu hizpide. Egun Nafarroako UPN alderdi politikoak ordezkatzan duen jardun politikoarekin identifikatzen dugun arren, nabarrismoak ez ditu beti tesi berak defendatu. Horixe izango da, ondorengo orrialdeetan aztertuko duguna, nabarrismoak izandako bilakaera, eta batez ere, euskal-nafar batasunaren aurrean izan duen jarrera eta batasun politiko hau nola baldintzatu duen. Euskal-nafar adierazpidea izan zen garai hartan Hego Euskal Herriko probintziak izendatzeko erabili zena beste askoren artean – *Pais Vasco*, Euskeria, Euskadi, Euskal Herria –. Hala ere, esapideok era neutralenean erabiltzen saiatuko gara ondorengo lanean, irakurlea bideratzeko asmo soilarekin, azterketa lisguistiko eta epistemologikoa albo batera utziz. Baina nabarrismora bueltatuz, lehenbizi ezinbestekoa izango zaigu hau zer den definitzea eta nabarrismo izepnean zer nolako eragile politiko eta sozial egon diren argitzea.

Behin oinarriak ezarrita, euskal-nafar egitura komun horren aurka egoteko erabili dituen arrazoiak arakatuko ditugu. Ikusiko dugunez, denbora aurrera joan ahala nabarrismoak arrazoi desberdinak jarriko ditu mahai gainean batasun horren aurka joateko, eta kontrajarritako argumentuak erabiltzera ere iritsiko da. Izan ere, nabarrismoak izugarritzko eboluzioa edo bilakaera izan du mende eta erdian ikusiko dugun moduan.

Lana kronologikoki hiru ataletan banatuta dago. Lehenengoa 1841eko Hitzarturiko Legetik XX. mende hasierara bitartekoa da. Bertan nabarrismoa definituko dugu eta hasieran izan zituen ezaugarri nagusiak zeintzuk diren azaldu. 1841eko urtea eta Legea nabarrismoaren hasieratzat hartu ohi dira eta behin data honen garrantzia argi utzita, XIX. mendean eta XX. mendearen hasieran eman ziren Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko elkarlan eta autonomia proposamen ezberdinak aztertuko ditugu.

Bigarren atalak, Primo de Rivera eta Francoren diktaduren arteko urteak hartzen ditu. II. Errepublikaren garaian euskal lurraldeen Estatutu proposamen ezberdinak eman ziren eta nabarrismoak batzuen eta besteen aurrean izan zuen jarrera izango dugu aztergai. Eta bukatzeko, Frankismoaren ostean irekitako trantsizio urteetan “euskal arazoa” aztertuko dugu. Euskal probintzietan eztabaida nagusia Nafarroa Euskal Autonomia proiektuan sartzea ala bereizitako bidea egitea izango da. Nafarroa proiektu honetatik at uztea izango da hain zuzen nabarrismoaren helburu nagusia.

Laburbilduz, lanaren helburua nabarrismoak bere sorreratik egunera arte izandako eboluzioa edo bilakaera aztertzea izango da, eta bilakaera horrek euskal-nafar batasun politiko nola baldintzatu duen ikustea. Horrela, nabarrismoak XIX. mendetik XXI. mende honetara iritsi arte egindako bidea ezagututa, errazagoa izango zaigu egun nabarrismoak dituen izaera eta ezaugarriak ulertzea.

## Metodologia

Lan hau burutzeko metodologiari dagokionez, metodo historikoa izan da erabili dudana. Metodo historikoa, gertaera historikoen gaineko emaitzak edota

hausnarketak eraikitzeke aurretik ikertutakoaren errealitatean oinarritzen den prozesu antolatua da. Metodo historikoa, historiak, giza zientzia gisa, metodo zientifiko bezala hartzen duen forma da. Metodologiak, teknikak eta bestelako elementuak osatzen dute eta hauen bitartez eraikitzen dute historia historialariek, lehen mailako iturriak eta bestelako testigantza historikoak erabiliz. Horrela sortzen da historiografia, hots, produkzio historiografikoa.

Kasu honetan, metodo historikoaren aplikazioa bigarren mailako iturriak erabiliz aplikatu dugu, nabarrismoa landu duten lanak aztertuz, nabarrismoaren bozeramaile gisa edo horren ordezkari kontsideratu izan diren pertsonaia esanguratsuen aipuak erabiliz eta joera politiko honen inguruko prentsan argitaratutakoak bildu dituzten obrekin lan eginez, besteak beste. Ahalik eta iturri gehien erabiltzen saiatu naiz, iritzi kontrajarriak dituzten autore ezberdinak aipatuz eta hauen ekarpenez baliatuz, honek aurkeztuko ditugun gertaera historikoen aurrean ikuspegi osotuago bat izaten lagunduko digulako.

Ez dut beharrezkotzat jo lehenengo mailako iturrien erabilera lan honetan. Izan ere, uste dut master bukaerako lan honetarako eta jorratu nahi izan dudana gaia aztertzeke nahikoa dela bigarren mailako iturrien erabilera. Esan bezala, lan honen helburua ez da izango hipotesi konkretu bati erantzutea, Euskal Herriko egungo egoera politikoan nabarrismoa bezalako fenomeno politiko garrantzitsu batera hurbiltzea baino, berau hobeto ulertzen saiatzea historikoki izan duen bilakaera aztertuz. Hori izango da lan honen helburua. Hortaz, lehenengo mailako iturrien erabilera nabarrismoa sakonago aztertzea helburu duen bestelako lan baterako gordetzea deritzot egokien.

## **1. ATALA. Nabarrismoa “Hitzarturiko Legetik” XX. mende hasierara**

### **1.1. Nabarrismoaren definizioa eta ezaugarria**

Gaur egun nabarrismoaz hitz egiten dugunean, gutxi gorabehera hitz honekin lotutako pare bat ideia edo kontzeptu etorriko zaizkio burura euskal gizarteko edozein pertsonari. Gehienetan, Nafarroa Euskadin sartzearen aurka dagoen jarrera bezala ulertzen du jendearen gehiengoak. Baina ideia horretatik haratago ezer gutxi definitzeko gai izango da, nahiz eta hitz honen atzean ezkuta litezkeen elementuez kontziente izan, egia esan, nabarrismoa kontzeptua bera era sinple eta zehatz batean definitzea ez delako lan erraza.

Zaila egingo zaio edozeini, eta horretan adituak direnentzat ere ez da xamurra. Izan ere, nabarrismoaren sorrera eta bilakaera aztertzen baditugu, oso zaila da honen definizio zehatz eta bakar bat ematea, muga batzuen barruan kokatzea, berau definitzen duten faktoreak antzeman eta zerrendatzea eta hortik aurrera, historikoki izan duen bilakaera zehaztu eta era zuzen edo zentzudun baten interpretatzea.

Gaur egun, Nafarroako UPN alderdi hegemonikoarekin eta honek duen ideologia politikoarekin identifikatzen dugu. Beraz, gizartean eta politikan oso ondo mugatu eta zehaztutako sektore bati egozten diogu nabarrismoaren praktika. Hau horrela, nahikoa izango litzateke alderdi horren dokumentuetara joatea, jardun politikoan hartzen dituen erabakiak ikustea eta bere bozeramaileek diotena entzutea nabarrismoaz ari garenean zertaz ari garen jakiteko.

Baina gauzak ez dira uste bezain errazak. Izan ere, nabarrismoak ez ditu beti gauza berak defenditu, ez du beti diskurtso bera izan bizitza politikoko gai nagusien inguruan eta ez da izan soilik historikoki eskumak defenditutako jarrera politiko konkretu bat. Nahiz eta gaur UPN alderdiarengan erori hizpide dugun doktrina politiko hori, iraganean Nafarroako ia alderdi guztiak sar zitezkeen nabarrismo deituriko euritako horren azpian. Baina horretarako, hitz hori erabiltzean zertaz ari garen jakin behar dugu lehenbizi.

Esan bezala, nabarrismoa egun UPNk ordezkatzeko duen Nafarroako ideologia identitario dominatzailea da. Hau honela izanik, nabarrismoa, labur esanda, ondoko ideia hauek definituko lukete: Nafarroako Erkidegoaren eta inguruan dituen gainontzeko erkidegoetatik (batez ere EAeri dagokionez, gainontzekoekin jarrera eta harreman atseginagoak baititu) argi ezberdindutako proiektu politikoaren defentsa. Honekin batera, Espainiaren batasunaren aldeko jarrera sendoa eta bertan ondo txertatutako foraltasun historikoan oinarritutako errejimen nafarra izango lirake bere ardatza<sup>1</sup>. Bukatzeko, Euskal Herria subjektu politiko bezala eraikitzearen eta euskara edo euskal kulturaren edozein adierazpen, sinbolo eta ekintzaren aurkako jarrera irmoa aipatu beharko lirake, nafar errealitate instituzionaletik at dauden elementutzat jotz. Hau izango litzateke egungo nabarrismoaren balizko definizio bat.

Hau horrela, egungo ikuspuntutik, gizartean nabarrismoa UPNren teoria eta praktika politikoarekin identifikatzeko tendentzia dago, baita adituengan ere. Baina ikuspuntu hau okerra da. Historikoki eta baita XXI. mendean ere, nabarrismoa gizarte arloan ideologia kontserbadore eta progresisten artean bizi izan da. Baina desberdintasun argi bat aurkitzen dugu egungo nabarrismoaren definizioarekin eta XIX. mendetik datorren horrekin: egungoak euskara eta euskal kultura baztertzen ditu, Nafarroan kanpotik inposatu nahi diren elementu bezala epaituz, eta hasierako nabarrismoa, aldiz, euskalduna zen nagusiki, ñabardurak ñabardura. Beraz, euskal kultura eta berau osatzen duten elementuak gehiago ala gutxiago onartzeak eta euskal probintzien batasunaren aurrean hartutako jarrera anitzek nabarrismo mota ezberdinak existitzea ahalbidetu dute<sup>2</sup>. Hala eta guztiz ere, nahiz eta indar politiko ezberdinek – tartean ezkerrekoek – defenditu, eskuman sustraitutako ideologia bezala hartu ohi da.

Beraz, azken mende eta erdian nabarrismoaren bertsio edo korrante ezberdinak izan dira, honen definizioari ñabardura interesgarriak emanez eta definizio zurrun eta bakar bat ematea eragotziz. Aipatzekoa da XIX. mende bukaerako nabarrismo liberal baten existentzia, honen barruan ere ezberdintasunak antzemanen. Horrez gain, nabarrismo kontserbadorea edo tradizional bat alde batetik, eta euren burua nabarristatzat zuten beste talde batzuk ere aipatu beharko lirake, tartean Nafarroako Euskara Elkarteak (*Asociación Euskara de Navarra*) osatzen zuten pertsonak (“euskaroak” deituak) eta baita napartarrak ere. Horrez gain, denbora aurrera joan ahala nabarrismo hauek aldatzen joan dira euskaltasunari eta gainontzeko euskal probintziekiko harremanei dagokienez, gaia korapilatsuago bihurtuz.

<sup>1</sup> GARCÍA SANZ MARCOTEGUI Angel, IRIARTE LOPEZ Iñaki, MIKELARENA PEÑA Fernando, *Historia del navarrismo (1841-1936). Sus relaciones con el vasquismo*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea, 2002; 13-15 orr.

<sup>2</sup> MIKELARENA Fernando, Identidad e ideología en Navarra. Los navarrismos en el siglo XX, *Hermes* 9, 2003; 25-35. orr.

Heterogeneotasun honen ondorioz, ez da gauza erraza nabarrismoa ikertzea edo aztertzea eta honenbestez, ez du sakoneko lanketa teorikorik izan ez eta bere bilakaera eta garapena era definitu, ordenatu eta kronologiko batean jorratzen duen obra zehatzik ere. Hutsune nabaria dago gai honen inguruan, baina hala eta guztiz ere, hutsune hori ez da erabatekoa badaudelako gai hau partzialki jorratu duten autoreak – batzuek XX. mendeko nabarrismoaz hitz egiten dute eta beste batzuk XIX. mendetik hasten dira honen inguruan deskribatzen – eta horrela, batzuen eta besteen lanak ikertuz nabarrismoaren eboluzio koherente bat egin dezakegu, nolabait. Gabezia honen ondorioetatik, egungo nafar gehienek eta nabarrista gehienek euren ideologiaren sorrera ez jakitea azpimarra genezake, besteak beste. Ez dakigu, ordea, nabarrismoaren sorrerari erreferentzia egiten dioten lan hutsune honek bestelako interesei erantzuten dion ala ez, nabarrismotik bertatik ez baita egon, orain arte behintzat, bere sorrera argitzeko inolako asmorik. Honen harira, adituatariko batzuek hutsune honi erantzuteko arrazoiak bilatu eta proposatu dituzte: alde batetik, nabarrismo garaikideak frankismoarekin lotura estuak dituelako, horrek gizartearen eta hautesleen aurrean ekar ditzakeen ondorio ezkorrekin; eta bestetik, sorreran, nabarrismoaren, Nafarroako Euskara Elkarteak ordezkaturiko aurrenazionalismoaren eta euskal nazionalismoaren arteko mugak elkarrengandik oso hurbil zeudelako<sup>3</sup>.

Angel Garcia-Sanzek ere, bere aldetik, heterogeneotasun hori azpimarratzen du, nabarrismoaren baitan indar politiko oso ezberdinen parte hartzea aipatuz: karlistak, liberalak, errepublikarrak, ... Hortaz, ez da izango ideologia edo alderdi politiko konkretu bakar baten ikur. Nabarrismoan, espainiar izatearen harrotasuna, eta aldi berean, euskaltasunaren aldarrikapena batera aurki ditzakegu, egungo egoeratik eta bizi dugun errealitate politikoari begiratuta ia ezinezkoa iruditzen zaigun zerbait izan arren<sup>4</sup>.

Denboraren poderioz eta euskal nazionalismoa indarra hartzen joan zen heinean, nabarrismoaren euskaltasun hori apaltzen joan zen pixkanaka espainolismoa areagotu bitartean. Baina hala eta guztiz ere, bi ezaugarri hauen arteko lotura ez da guztiz desagertuko. Era berean, gainontzeko euskal probintziekin batzeko ala ez batzeko afera horretan, uler daiteke Nafarroaren euskaltasuna defendatzea eta aldi berean lau lurraldeen batasunarekiko mesfidati agertzea ala zuzenean aurka egotea. Nabarrismoa, azkenean, era batera ala bestera indar politiko guztiek defendatuko duten zerbait izatera helduko da, identitate kolektibo bat bezala agertuz, baina norberak bere erara ulertuta beti ere.

Fernando Mikelarenak antzeko planteamendua egiten du. Nabarrismoak arrakasta izan du praktika politiko bezala, batez ere egungo UPNren bertsio honetan, eta azken honen arrakastak hain zuzen ere, existitzen den nabarrismo mota bakarra berau dela pentsatzera eramán gaitzake. Horrez gain, historialariek eta soziologoek ez dute gai honetan behar bezain besteko arreta jarri, argi dagoelako sakontzen hasi eta berehala konturatzen garelako nabarrismoa aurpegi anizdun fenomeno konplexua dela<sup>5</sup>. Nabarrismoaren proiektua analizatzean, nafarrak bereiztearen ideia eta identitate kolektibo baten mezua daramatzen heinean, ideologia identitario bezala

<sup>3</sup> GARCÍA SANZ MARCOTEGUI Angel, *Historia del Navarrismo...* 13-15 orr.

<sup>4</sup> GARCIA-SANZ MARCOTEGUI Angel, *La identidad de Navarra. Las razones del navarrismo (1866-1936)*, Gobierno de Navarra, Iruñea, 2012; 26-33. orr.

<sup>5</sup> MIKELARENA Fernando, *Identidad e ideología en Navarra...*, 25. orr.

hartu behar dela aipatzen du. Nafarrak bereizten dituen eta identitate kolektibo horren oinarria bi elementuk osatzen dute: historiak, baina batez ere bere ardatz politikoa izango den foruzaletasunak. Mikelarenarentzat deigarria da diskurtso identitario honetan foralitatea izatea hain zuzen konsigna honen erdigunea, normalean, estaturik gabeko komunitateen oinarritzko elementu gisa hizkuntza, kultura edota erlijioa aldarrikatzen baitira, eta ez foralitatea bezalako elementu abstraktu bat.

Miguel Jose Izu Bellosok, aldiz, definizio zehatzago bat eskaintzen du. Nabarrismoa euskal nazionalismoaren aurrean Nafarroan sortutako doktrina politikoa dela aipatzen du, eta lurralde honek euskal entitate politiko batean parte hartzearen aurkako. Bere jaiotza, hortaz, euskal nazionalismoa Nafarroan garatzen hasten den unean kokatzen du, doktrina politiko honen lehenengo adierazpenak 1917-1918ra eramanez, hain zuzen ere Nafarroa eta mendebaldeko hiru probintzien arteko batasuna autonomia aldarrikapen baten bidez mahai gainean jarri zen unean<sup>6</sup>.

Miguel Jose Izuren definizioa erreferentziatzat hartuz gero, nabarrismoaren sorrera euskal nazionalismoaren sorrerak baldintzatutakoa da beraz. XX. mendeko fenomeno litzateke bere ustez, eta “kontrako” ideologia bat izango litzateke, hots, gaitzesten dituen elementuek definituko lukete bere izaera, kasu honetan euskal nazionalismoak fenomeno berri bezala Hego Euskal Herria osatzen duten lau probintzien batasuna eta 1839. urtea baino atzeragoko foru-errejimenera bueltatzeko nahia.

Miguel Jose Izuk, ordea, gaur egungo nabarrismoak dituen ezaugarriak kontuan harturik ezartzen du honen sorrera XX. mendean, eta euskal nazionalismoaren jaiotzaren ondorio bezala. Beste era batera esanda, egungo nabarrismo garaikide honen jaiotza data ezartzen du nabarrismoaren abiapuntu bezala. Baina nabarrismoa, Nafarroan lehenagotik agertuko zaigun fenomeno izango da, nahiz eta ezin zehatz dezakegun bere jaiotza data. Gutxienez XIX. mendeko 60. hamarkada bukaeratik nabarmentzen doan fenomeno izango da, eta batez ere 1841eko gertaeretan oinarritzen dena. Une horretan, alabaina, ez ditu oraindik geroago ezinbesteko bihurtuko diren ezaugarriak izango, baina argi dago nabarrismoaren lehen zantzuak XIX. mendean aurkitzen ditugula.

Lehenengo nabarristak katolikoak eta, gehienbat, karlistak izango dira. Hauek, “*Vascongadas*” bezala ezagunak ziren lurraldeekin elkarkidetzan harremanak izatearen aldekoak izango dira, baina katolizismo tradizionalista izango da euren ezaugarri nagusia, euren identitate politikoaren ardatz. Tradizio horren barruan sartzen ziren, nola ez, Nafarroaren errejimen berezia osatzen zuten foruak. Honekin batera, aipatu beharra dago liberalismoa eta separatismoaren aurka zeudela erabat.

Nabarrismo hau 1865ean aipatzen da lehenbiziz, urte horretako Gorteetako hauteskundearen testuinguruan. Neokatolikoaren garaipenaren aurrean, progresistek honakoa aipatu zuten: «se había formado una “separada escuela de navarrismo” sustentada en la teocracia»<sup>7</sup>. Era berean, tradizionalista talde honek nabarrismoa liberalak erasotzeko erabili zuen, ondoren aipatzen den moduan: «En sus manos el

<sup>6</sup> IZU BELLOSO Miguel José, *Navarra como problema. Nación y nacionalismo en Navarra*, Biblioteca Nueva, Madril, 2001; 259-260. orr.

<sup>7</sup> GARCIA-SANZ MARCOTEGUI Angel, *La identidad de Navarra...*, 62. orr.

navarrismo se convirtió en un instrumento de movilización del electorado en contra de los liberales. La hegemonía de estos tradicionalistas, gracias en parte a que lograron presentar a los liberales como anticlericales, antifueristas y aun ajenos al país (...), se mantuvo hasta bien entrado este siglo»<sup>8</sup>.

Nafar eskuma, ordea, XX. mendeko bigarren hamarkadan euskaltasun kultural hori alde batera uzten hasiko da. Aldaketa hau pixkanaka egingo da eta indar ezberdina izan zuen alderdi politikoen arabera. Nafar foruzaleek erabateko aldaketa jasan zuten eta ordura arte euskal nazionalismoarekin harreman onak izan arren, une horretarik aurrera honen aurka jo zuten. Azken honek, jakina denez, proiektu politiko propio bat gauzatu nahi zuen, euskal nazioa eraikitzearena, Nafarroa barne. Testuinguru honetan, nabarrismo foralaren proiektua euskal nazionalismoaren proiektua zehazten eta gorpuzten zihoan heinean joan zen osatzen, azken honi kontrajarririk.

Nabarrismoaren definizio ahalik eta osatuena ematen saiatu gara, aipatu bezala, bere izaera heterogeneoak ez duelako definizio zehatz eta zurrun bat egitea ahalbidetzen. Laburbilduz, nabarrismoa alderdi edo indar politiko askotan agertuko zaigu XIX. mendeko 60. hamarkadatik aurrera. Fenomeno anitza izango da, pertsona edo indar politikoen arabera ñabardura desberdinez osatua. Era berean, ezin ahaz dezakegu ez dituela gaur egun nabarrismo hitzarekin identifikatzen dugun diskurtsoa eta proiektuak dituen ezaugarri berak, euskaltasuna izanik ziurrenik honen adibide nagusia.

Ezinbestekoa izango zaigu nabarrismoaren bilakaera ulertzeko, lehenbizi bere sorreraren zergatiak aztertzea. Izan ere, Nafarroako historian oso esanguratsua den data bat izango da nabarrismoaren oinarri, historikoki aldarrikatu eta defendatuko duena: 1841eko Nafarroako Foruen Legea, Hitzarturiko Legea bezala (*Ley Paccionada*) ezagutzen dena. Data hau izango da bere diskurtsoa eta proiektu politikoa legitimatzeko erabiliko duen oinarria. 1841eko lege hau – eta ondoren 1982ko legea, LORAFNA, 41ekoaren eguneraketa bezala ulertuta – izango da eta egun jarraitzen du izaten, nabarrismoaren bizkarrezurra.

## 1.2. 1839-1841eko errealitate berria: nabarrismoaren oinarria

XIX. mendea oso mende gatazkatsua izan zen Espainiarentzat. Aldaketa asko eman ziren mende horretan eta azaletik bada ere, ondorengo orrialdeetan aldaketa garrantzitsuenak laburbiltzen saiatuko gara, horiek eramango gaituztelako hizpide dugun gai honen hasierara.

Frantziar Iraultzak XVIII. mende bukaera astindu zuen absolutismoaren aurrean liberalismoa aldarrikatuz, legearen aurrean hiritar guztiak eskubide berberak dituztela esanez, giza eskubideen adierazpenean islatu zuten moduan. Ideia berri hauek, liberalismo hau, Espainiara hurrengo mendean helduko da, 1812ko Kadizko Konstituzioa izanik liberalismoaren ezarpenaren adibide argiena. Konstituzio honek subiranotasun nazionala eta botereen banaketa aldarrikatu zituen. Hiritar guztien

<sup>8</sup> GARCIA-SANZ MARCOTEGUI Angel, MIKELARENA PEÑA Fernando, *Españolismo, vasquismo y navarrismo foral: cambios y persistencias en la interpretación de la identidad de navarra hasta 1936, La construction de rétat-nation. France, Espagne, Pays Mordiques (XIXe.-première moitié du XXe. siècle)*, université de Toulouse-II Le Mirail, Toulouse, 1999; 85. orr.

berdintasuna aitortu zuen bai eta legeak betetzeko eta zergak ordaintzeko beharra ere, inolako desberdintasunik gabe. Azken batean, Errejimen Zaharra sistema edo errejimen politiko berri batengatik ordezkatzeko nahi bat adierazten zuen.

Honek, ordura arte Espainiak mantendutako errejimenarekin egin zuen talka. Ez bakarrik gizabanakoen eskubideen aldarrikapenak suposatzen zuen iraultzaren aldetik, estatuaren egitura eta antolamenduaren aldetik ere bai. Azken batean, espainiar estatu liberal zentralista eta uniforme bat ezarri nahi izate honek ekarriko ditu XIX. mendeko gerra karlistak, besteak beste, Errejimen Zaharra berreskuratu nahian. Garai hartan, foru-errejimen zegoen indarrean Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurraldeetan. Lau hauek ziren oraindik XIX. mendean Espainian geratzen ziren estruktura edota errejimen foral bakarrak. Beraz, ezarri nahi zen liberalismo honek zuzen-zuzenean mehatxatzen zuen lurraldeotan ordura arte indarrean egon zen errealitate politikoa. Hala eta guztiz ere, lurraldeok foruak mantentzea lortu zuten XIX. mendean ere, gorabeherak gorabehera, 1839ra arte edota 1876ra arte, kasuaren arabera.

I. Karlistadaren bukaeran eman zen foruen egokitzapena edo moldaketa, ezarri nahi zen konstituzio liberalarekin eta honen izpiritu liberal eta zentralistarekin bat egin zezan. Eta era berean, foruen auziari eman zitzaion irteerak lau lurraldeen arteko harremanak baldintzatuko ditu une horretatik aurrera. Izan ere, 1839-1841 urteen artean gertatutakoak alde batetik Nafarroaren, eta bestetik gainontzeko euskal probintzien bideak elkarrengandik aldentuko ditu. Hala ere, aipatu beharra dago foruak oso egoera larrian heldu zirela XIX. mendera. Euren legitimotasuna kolokan zegoen gobernu zentraletik zetozen erabaki eta inposizioek ahulduta, foruen abolizioaren arriskua gero eta hurbilago zegoela antzeman zitekeen eta gizartea horren jakitun zen.

Hori horrela, foru-errejimenaren sorrera justifikatzeko beharra sortu zen espainiar jokaerak sortutako haserre horren aurrean, eta 1512ko konkistaren inguruko erreferentziak eztabaida politikora bueltatu ziren. Foru sistemarekin amaitu nahi zutenek 1512ko Nafarroa armaz konkistatua izan zela ekarri zuten gogora. Era honetan, paktuaren asmakizunak ez zuen inolako zentzurik eta foruak monarkiak ahalbidetutako aitortpen bat baino ez lirakeke izango, eta honenbestez, monarkiak eman zituen era berean ken zitzakeen nahi izanez gero. Foruen aldekoiei, berriz, paktuaren ideia defendatzea interesatzen zitzaienten, foruak eurak akordio honen isla zirela argudiatuz, paktua egonez gero ezin baitzitekeen aldebakarrekotasunez ezabatu, eskubideen urraketa eta espainiar erregeen eta nafar erreinuaren arteko akordioaren aurka joatea suposatuko lukeelako<sup>9</sup>.

Nabarrismoak (lehengoak eta oraingoak) etengabe gogoratuko du 1841eko legea hitzartua edo paktatua izan zela. Hau ez da, ordea, planteamendu berria izango, 1512ko konkistarekin ere formula berbera erabili baitzen, eta XXI. mendera iritsi zaigun ideia izan da hori ere. Beraz, merezi du 1512ko gertaeren inguruan dagoen eztabaidari erreferentzia txiki bat egitea, XIX. mendean guzti honen inguruko eztabaida berriz piztu zelako, eta batzuk 1512ko “paktatutako” eta berdinen arteko batasun bezala ikusten duten akordio hori gerora hurrengo akordioak justifikatu eta oinarritzeko erabiliko dutelako.

<sup>9</sup> AOIZ Floren, *La vieja herida. De la conquista española al Amejoramiento Foral*, Txalaparta, Tafalla, 2002; 268. orr.



Jakina denez, Nafarroak XVI. mendera arte iraun zuen estatu independente bezala. 1512an, berriz, Fernando errege Katolikoak konkistatu egin zuen eta hiru urte beranduago, 1515ean, Nafarroa Gaztelako koroari batu zitzaion. Une horretatik aurrera, Nafarroako etorkizuna Gaztelakoari lotuta egon da, baina erreinu izaten jarraituko du hala ere, gerora Espainiako koroa izendatuko den horren barruan. 1512ko gertaeren izaerak oihartzuna izango du etorkizuneko nabarrismoan. Konkretuki, 1512ko gertaerak konkista ala pakto baten ondorio izan ote ziren horretan zentratu izan da orain arte eztabaida. Eta hemen denetarik aurki dezakegu: okupazioa eta konkistatik hasita, boluntarioki bilatutako batasuneraino.

Jose Antonio Razquinen arabera, Gaztelarekin batzea berdintasunean oinarritutakoa izan zen, hots, berdinen arteko akordio edo pakto bidez<sup>10</sup> burutu zen. Batasun boluntario horren aurka azaltzen da, ostera, Maria Puy Huici. Bere esanetan, Fernando errege Katolikoak 1476. urtetik bilatzen zuen konkista izan zen 1512an burutu zuena, horretarako gerra zibilak bultzatuz XV. mende bukaera horretan.

Jaime Ignacio del Burgok, ostera, batasun boluntarioaz hitz egiten du, «el reino no se rindió ante las tropas del duque de Alba en 1512, sino que capituló»; eta horren ostean, «en las Cortes de Navarra, en virtud de los juramentos recíprocos hechos por los Virreyes, en nombre del Rey, y por los tres Estados en representación del Reino, quedaba renovado el primitivo pacto de la Monarquía pirenaica»; azkenik, «esta conciencia de Pacto político, como elemento esencial de la Constitución del Reino, se mantuvo intacta hasta el final»<sup>11</sup>.

Floren Aoizek, ordea, konkistaren tesia defendatzen du. Eraikitzen eta hedatzen ari ziren Espainia eta Frantziaren espantsionismoak aipatzen ditu eta behin konkistatuta, Espainiak nafarrekiko izan zuen mesfidantza azpimarratzen du. «la desconfianza hacia los navarros se refleja persistentemente en los informes oficiales, y los españoles mantuvieron un ejército de ocupación, sin olvidar nunca que si habían terminado con la existencia del reino fue mediante el uso de la fuerza»<sup>12</sup>.

Egun, ordea, badirudi konkistaren tesia gailendu dela, edo bide horretan doala behintzat. Denbora luzez anexio, akordio eta batasuna defenditzen zuen korrontea izan da nagusi, baina egun, horien defendatzaile sutsuenak ere ezin dezakete konkista militarra ukatu, azkeneko hamarkadetan agertu diren mota guztietako aztarna eta frogak bultzatuta. Lehenago aipatu dugun UPN alderdiak ere, bere diskurtsoa moldatu egin behar izan du gertaera hauen aurrean. Orain eztabaida beste bat da ordea, konkistaren biolentzia maila edo krudeltasunaren ingurukoa. Baina auzi hau lan honetan jorratuko dugun gaitik at geratzen zaigu, horren inguruko eztabaida egungo historialari eta adituei dagokien heinean, eta konkista militar baten krudeltasun maila neurtzea posible den ala ez epaitu gabe.

<sup>10</sup> IZU BELLOSO Miguel José: *Navarra como problema...*, 108-109. orr. Obra honetan ondorengo lanei egiten zaie erreferentzia: RAZQUIN LIZARRAGA Jose Antonio, *Fundamentos jurídicos del Amejoramiento del Fuero. Derechos Históricos y Régimen Foral de Navarra*, 41. orr eta hurrengoak; eta PUY HUICI GOÑI Maria, *En torno a la conquista de Navarra*, 53. orr. eta hurrengoak.

<sup>11</sup> DEL BURGO Jaime Ignacio, *Origen y fundamento del origen foral de Navarra*, Aranzadi, Iruñea, 1968; 109. orr.

<sup>12</sup> AOIZ Floren, *El jarrón roto: la transición en Navarra, una cuestión de estado*, Txalaparta, Tafalla, 2005; 21-22. orr.

Konkista gorabehera, Nafarroako Erreinua XIX. mendeko lehen Karlistadara arte heldu zen erreinu bezala, moneta eta berezko erakundeak mantenduz besteak beste. Autore asko bat datoz foruak ez zirela gerra piztearen arrazoia aipatzean. Ezin ziurta daiteke foruen defentsa izan zela altxamenduaren arrazoia, baina bai Errejimen Zaharra mantentzeko nahia; eta honekin batera zihoan Nafarroako eta probintzia “baskongadetako” lege eta erakunde propioak mantentzeko interesa eta esfortzua<sup>13</sup>.

Beste batzuk motibazio foral hau erabat baztertzen dute. Del Burgoren arabera, lehen gerra karlista ez zen gerra foral bat izan, ideologiko-dinastikoa baizik, eta horien artean, dinastikoa batez ere. Bere esanetan, I. Gerra Karlistaren hasieran, 1833an, foruak indarrean zeuden eta Nafarroa Carlos V.aren eskubideak defendatzeko baino ez zen altxatu<sup>14</sup>. Aurrez aurre Idoia Estornesen iritzia, foruak gerraren arrazoi kontsideratuz. XIX. mendeko liskar eta altxamendu guztiak foruen defendatzaile bezala aldarrikatzen direla dio, eta arazoa lau probintzietako erakundeekin lotuta dagoela, arazo erlijioso eta dinastikoen altxamendurako testuinguru egokia ezarri baino lehenagotik. Vicente Garmendiak ere foruen auzia arrazoi bezala onartzen du, beste batzuen artean<sup>15</sup>.

Hala ere, arrazoi du Del Burgok foruak I. Gerra Karlistara iritsi arte indarrean egon zirela aipatzen duenean, baina horrek ez du esan nahi ordura arte mantendutako egoera berean iritsi zirenik. Ezta gutxiago ere. Izan ere, XVIII. mende osoan zehar kontraforuak eman ziren, foruen abolizioaren prozesua areagotuz eta biziagotuz 1778. urtetik aurrera<sup>16</sup>, Amerikarekin elkartruke askea ezartzean. Une horretan, Nafarroak eta gainontzeko euskal lurraldeek, monarkiarekiko independentzia ekonomikoa mantentzea erabaki zuten. Hortaz, Carlos III eta Carlos IVaren garaiko monarkia ilustratuak lurraldeek ekonomia nazionalen txertatzea bilatu arren, sistema foralak eragotzi egin zuen. Beraz, Aro Berrian absolutismoaren garaipenak ez zuen Erdi Arotik zetozen kontzeptu eta egiturak guztiz ezabatzea lortu, bereziki garai horretatik zetozen antolamendu politiko eta instituzionalak oraindik irauten zuten tokietan. Monarkiak absolutismoaren teorikoen argumentuak erabili zituen bere boterea justifikatu eta hedatzeko.

Nafarroan kontrako argumentuetara jo zuten bertako eragileek, Gorteen bitartez batez ere, euren interesak defendatzeko. Hori dela eta, nahiz eta sistema forala erregearen boterea nolabait mugatzeko erabilgarria izan, errege ezberdinek euren erabakiak inposatzen zituztela erakusten duten testigantza ugari aurki dezakegu, nafar erreinua absolutismoaren aurrean foruenganako errespetu hori ziurta zezakeen inolako baliabiderik gabe utziz. Egia da erregeek foruak errespetatzeko hitza eman zutela, Erdi Aroan bezala. Baina aldi berean, euren hitza behin eta berriro jan zutela ere egia da<sup>17</sup>.

<sup>13</sup> LANDA EL BUSTO Luis, *Historia de Navarra: una identidad forjada a través de los siglos*, Gobierno de Navarra, Iruñea, 1999; 221. orr.

<sup>14</sup> DEL BURGO Jaime Ignacio, *Origen y fundamento...*, 523. orr.

<sup>15</sup> IZU BELLOSO Miguel José: *Navarra como problema...* 124. orr.

<sup>16</sup> Errejimen forala indarrean dagoen esparru konkretu bateko foruen, legeen, ordenantzen, usadioen, eskubideen eta pribilegioen kontra ezarritako neurriei edo legee deitzen zaie kontraforua.

<sup>17</sup> IZU BELLOSO Miguel José, *Navarra como problema...*, 125. orr.

### Maria Cruz Minak egoera honi egiten dio erreferentzia:

aunque las referencias a principios pactistas y limitaciones del poder continuaron siendo constantes argumentos esgrimidos por las Cortes, cada vez más frecuentemente, el soberano ignoró limitaciones formales, y siempre que sus necesidades políticas lo exigían hizo valer su poder de hecho. El rey era tan absoluto en Navarra como en Castilla y el orden institucional foral estaba lejos de conferir el autogobierno que la historiografía posterior con innegable intencionalidad política ha sostenido. No obstante su órgano representativo, las Cortes, aún lejos de ser un auténtico legislativo, era un instrumento de presión sobre el monarca que proporcionaba a la nobleza indudables ventajas fiscales sobre sus iguales castellanos<sup>18</sup>.

Del Burgok, nahiz eta foruekiko errespetua mantendu zela esan, erregeek hauek behin eta berriz bortxatu zituztela onartzeaz gain, foruen aginduetariko batzuk zuzenean ezabatu zituztela argi uzten du bere lanean. Ondorengotza legearen deuseztapena jartzen du adibide bezala, 1515etik bertatik aurrera Nafarroako Erreinaua Gaztelako legeen arabera transmitituz. Hala ere, Erreinuak ez zuela protestarik egin gaineratzen du<sup>19</sup>. Dena den, foruen aurkako ekintzak XIX. mendean ere antzeman daitezke. Foruen abolizioa eta Nafarroako Erreinuaren desagertzea, gorabeheraz betetako prozesu baten barruan kokatu behar ditugu, 1808 eta 1836 urteen artean.

Foruen inguruan iritzi kontrajarriak zeuden. Jendeak foruak mantentzearen aldeko joera zuen nagusiki, baina askok hauen egokitzapena eskatzen zuten, foruen eskumen batzuk indargabetzearen alde azalduz. Aduanen auzian, esaterako, Nafarroako hegoaldea eta lurjabeak ziren nobleak eta merkataritza handiak hauek Pirinioetara mugitzearen eta euren merkataritza Gaztelakoarekin batzearen alde zeuden; bestalde, Nafarroako iparraldeak eta merkataritza txikiak egoera horretan jarraitu nahi zuten, Frantziarekiko kontrabandoa eta merkataritza mantentzearen alde. Eta horrez gain, Miguel Jose Izuren lanean agertu bezala, «la mayoría de las clases populares apoyaban el mantenimiento de la situación que permitía la adquisición de bienes de primera necesidad provenientes de Francia mucho más baratos que en el resto de la monarquía, aunque ello fuera en perjuicio del desarrollo de las manufacturas españolas».

Aduanez gain, sistema forala osatzen zuten arau asko oztopo bezala hartzen ziren, ogasunarekin inguruko polemika, kasurako. Foru-errejimenaren pean zeuden lurraldeak ekarpen oso txikia egiten zuten ogasunarekiko. Hori horrela, eta garai hartan ogasuna krisian zegoela kontuan izanda, ekarpen handiago bat exijitu zien koroak. Nafarroako Erreinaua erresistitu egin zen, baina 1799tik aurrera Gobernuak foruen kontrako disposizioak ezartzen hasi zen Nafarroatik kontribuzio edo zerga gehiago jasotzeko asmoz. Erreinuak erakundeek erresistentzia agertu zuten, baina azkenean amore eman behar izan zuten.

Kinten inguruan antzeko zerbait gertatu zen. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroak ez zuten kinten sisteman parte hartzen, euren foruak agindu bezala. Baina Borboiek ezarritako neurri militar berrientzat, probintziok ere sistema horretan sartzea beharrezkoa zen ejertzito egonkorraren beharrezko aurre egiteko. Azkenean, erresistitu arren, kintak ere inposatu ziren Nafarroan, nahiz eta sarritan, Gorteek gizonen ekarpen hau diru ekarpenengatik ordezkatzeko zituzten. Honek kinten

<sup>18</sup> MINA APAT Mari Cruz, *Fueros y revolución liberal en Navarra*, Alianza, Madril, 1981; 114. orr.

<sup>19</sup> DEL BURGO Jaime Ignacio, *Origen y fundamento...*, 19. orr.

inposizioa mozarrotu egin zuen eta lehengo egoerak bere horretan jarraitzen zuela ematen zuen.

Foruek jasan zuten behin behineko egoera hori eta kontraforu guzti horiei XIX. mendean egondako errejimen aldaketa guztiak gehitu behar zaizkio. Izan ere mende honetan absolutismoa eta liberalismo aldiak behin eta berriz ordezkatu dira. Testuinguru honetan, Nafarroako foru-errejimena sistema aldaketak baldintzatuko du erabat, liberalismoa ezartzean desagertuz, eta absolutismoa bueltatzean berrezarrit. Hala ere, absolutismo errejimena bueltatu zen guztietan, nafar erreinuko erakundeak eta lege tradizionalak bueltatu arren, botere zentraletik foruen aurkako abolizioaren erasoek ez dute etenik izango, ordura arte izandako gaien inguruan batez ere: aduanak, ekarpenak eta kintak.

Hau horrela, orain arte ikusitako guztia kontuan izanda, Nafarroa eta bere foruak ahul eta Espainiako egoera politikoak guztiz baldintzatuta iristen dira XIX. mendeko bigarren erdialdera, erresistentzia azalduz baina Espainiako Gobernuak inposatutako erabakiei aurre egin ezinik. Hau berau, Del Burgo eta 1512ko gertaera berdinen arteko paktu bezala ulertzen dutenen diskurtsoa kolokan jartzekoa nahikoa litzateke, zail egiten baita ulertzen berdinen arteko paktu baten ostean akordio horretako partaide bakar batek erabakiak inposatzea bestearen nahien gainetik. Aldi berean, foruak altxamendu karlistaren arrazoen artean kokatzea nahiko erraza litzateke, altxamendu hau foruak defendatzeko aukera oso egokia izan zitekeelako, kontuan izanda XVIII. mendearen bukaeratik foruekiko erasoak nabarmen indartu eta areagotu zirela, errejimen forala deuseztatzeko ahaleginak egia bihurtzeko bidean baitzeuden.

Eztabaida hau alde batera utzita, I. Karlistada bukatu ostean, foruen inguruko polemika konpondu beharrean areagotu egingo da, Nafarroaren historia garaikidean mugari izango den data bat agertuz eta honekin batera, foruak bizitza eta alderdi politiko ororen ardatz izango den garai berri bati hasiera emanez.

### ***1.2.1. 1839-1841: I. Karlistadaren bukaera***

I. Gerra Karlista 1839an Bergarako besarkada edo Akordioarekin bukatu zen, karlisten ejertzitoaren egoera txarra zela medio. Egoera hau aprobetxatu zuen Espartero jeneral liberalak Maroto karlista errenditzeko eta eurak izango dira akordio horren protagonista.

Begarako Hitzarmenaren lehen artikulua izango da izaera politikoa duen bakarra eta gainontzekoak tekniko bezala defini ditzakegu. Lehenengo horretan foruak agertzen dira, hau horrela, Araba, Nafarroa, Bizkaia eta Gipuzkoako altxamendu karlista definitzen duen faktore nagusia foruekin zuzenean lotzen da<sup>20</sup>. Une honetatik aurrera 1841eko abuztuaren 16ko legea Nafarroan ezartzera bideratutako prozesu bati eman zitzaion hasiera, egun Hitzartutako Legea, “*Ley Paccionada*” delakoa bezala ezagutzen den hori. Lege hau, 1839ko foruen berrespenaren jarraipena, hurrengo mende eta erdian foru-errejimenaren oinarri eta ardatz izango da. Estatu liberal berrian Nafarroak izango duen kudeatzeko autonomiaren errejimen berezia osatuko dute legearen xedapenek.

<sup>20</sup> SORAUREN Mikel, *Historia de Navarra, el Estado Vasco*, Pamiela, Iruñea, 1998; 284-286. orr.

Bergarako Akordioan, Esparterok Gorteei foruen egokitzapena edo aldaketaren proposamena eramatea hitz eman zuen, foruen etorkizuna Parlamentuak hartutako erabakiaren menpe utziz. Hemendik aurrera, foru-sistema errejimen liberal berrira moldatzeko prozesua pausu konkretu batzuk betetzen joan zen eta horien artean garrantzitsuena 1839ko urriaren 25eko legea izan zen. Bertan, foruak mantendu edo baieztatu zituzten, batasun konstituzionalaren barruan, edo honen aurka joan gabe. Anbiguotasun hau lege bereko beste artikulua batean zehaztu zen: Gobernuak Gorteei foruak egokitzeko proposamena egingo zion, diputazioek esan beharrekoa entzun ostean.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren kasuan Batzar Nagusiak ziren tradizionalki Diputazioa aukeratzen zutenak, baina Nafarroaren kasua konplikatuagoa zen, Diputazioa Gorteei aukeratu beharko luketelako baina Gorteak 1834an deuseztatu zituzten, Gorte espainiar bakarrak ezarri zirenean. Nafarroako Gorteak ez deitzea estatuaren inposizioa izan zen eta Gobernuak, horren orde, mugaturiko hauteskunde batzuk deitzea erabaki zuen nafar Diputazio berri bat sortzeko. Nafarroako Gorteak bateraezinak ziren Batzar Nagusiekin, eta beste hiru probintzietan zeuden egitura politikoen parekoa litzatekeen Diputazio bat sortzea baztertu zuten. Batzar Nagusiak ez ziren, antza denez, nafar Gorteak bezalako subiranotasun legegiledun erakundeak, nahiz eta praktikan lan bera egin izan zuten.

Eraitza argia izan zen: Nafarroaren kasuan, orduan sortutako Diputazio berria liberalek zuzenduta zegoenez – tartean Jose Yanguas y Miranda – erreforma egitearen alde agertu zen, ahalik eta eskuduntza gehien mantenduz eta Gobernuarekin negoziazioak hasteko komisio bat izendatuz. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioek Gobernuak eskainitako audientzia horretara joateari muzin egin zioten, euren foruen edozein egokitzapen edo aldaketa arbuiatuz. Horrela, hiru probintzietan foruak 1876ra arte bizirautea lortu zuten nolabait, baina ez egoera berean, tartean Esparterok 1841ean “pase forala” ezabatu baitzuen.

Nafarroako Diputazioa eta Gobernuaren arteko elkarriketen ondorioz, 1841eko Foruen Legea ezarri zen, denborarekin “Nafarroako Lege Hitzartu” bezala izendatu dena, gobernu bien artean hitzartutako legea zela adieraziz. Nafarroak bere foruak egituratu egin zituen monarkiaren batasun eta konstituzioaren mugen barruan. Lege honek erreinu zaharraren erakunde propioak ezabatu zituen, Nafarroako Erreina Espainiako probintzia bat gehiago bihurtuz.

Hala ere, eskumen batzuk gorde zituen: udalen gaineko kontrola Diputazioarengan utzi zuen baita ogasun foralaren kudeaketa ere, tabakoa eta gatzaren salmentaren gaineko zerga izan ezik. Azkenik, probintziak urtero 1.800.000 erreal ordaindu behar zituen zerga bezala. Aipatu lege horren ondorioz, erregeordearen figura, Gorteak, Erret Kontseilua, Comptos ganbera eta aduanak desagertu ziren. Nafarroa probintzia bat gehiago izan zen ordutik aurrera, zenbait abantaila fiskal eta administratiborekin<sup>21</sup>.

Beste batzuen ustez ez zen negoziaketarik egon nafar eta estatuko ordezkarien artean, elkarriketak baino. Elkarriketa hauetatik irtendako legeak, aurretiaz

---

<sup>21</sup> LANDA EL BUSTO Luis, *Historia de Navarra: una identidad forjada...*, 226. orr.

existitutako legalitate oro ahanzi eta nafar sistema instituzionala desegitera eta nafar subiranotasunetik jaiotako eskumenak ezabatzea mugatuko da; horren ordez, espainiar subiranotasuna aldarrikatuko du. 1841eko abuztuaren 16ko lege honek Nafarroaren asimilazio juridikoa du xede, beste era batera esanda, batasun ekonomikoa eta nafarrak espainiar legislazioaren menpe jartzea bilatzen du. Monarkia absolutuak denbora luzez bilatutako helburua sistema liberal konstituzionalistak lortuko du azkenean <sup>22</sup>. Aldaketa nagusien artean kintak eta aduanen lekualdatzea leudeke. Zerbitzu militarra inposatu zen Nafarroa historikoki honen aurka azaldu arren eta hau ekiditeko bide eta aukera guztiak erabili ostean. Batasun ekonomikoari dagokionez, aduanak Ebrotik Pirinioetara eta Kantauri itsasoko portuetara lekualdatu ziren. Honek Pirinioez bestalde zeuden lurraldeekin existitzen ziren merkatal harreman eta loturak apurtzea ekarri zuen. Horrekin batera, espainiar ogasuna ere inposatu zen.

Lehen esan bezala, 1841eko Legea foru-errejimen berri horren ardatz izateaz gain, egunera arte irauten duen eztabaida juridiko eta ideologiko baten abiapuntu ere izan zen. Eztabaida hau hasieratik eman zen, legeak Nafarroaren eta espainiar estatuaren artean paktatutako izaera horren inguruan. Historikoki Nafarroan paktuaren aldeko tesia nagusitu izan da eta horrek ekarri du, besteak beste, Hitzartutako legea izenaz ezagutzea.

Paktuaren aldeko tesia bereganatu zuten Nafarroako erakundeek eta hauekin batera aukera politiko guztiek eta gizarteak, oro har; eta ikusiko dugunez, era argian nagusitu da XX. mendean ere 1978ko Konstituzioan eta bertan izandako garapenarekin. Hori horrela, Miguel Jose Izuk paktismo hau Nafarroa garaikidearen mito politiko nagusi bezala ikusten du<sup>23</sup>.

Maria Cruz Mina eta Jaime Ignacio del Burgok gai honen inguruan eztabaidatu dute. Maria Cruz Minak, alde batetik, ez du uste 1841eko legea paktu baten ondorio izan zenik. Ideia hau ukatu egiten du, mito historiko deituz: *«el mito foral y el mito pactista siguen funcionando y condicionando el acontecer político, pues aunque el mito sea falso, desde el momento que se cree en él se convierte en realidad, y la política al tener que funcionar con realidades está siendo condicionada por los mitos»*<sup>24</sup>.

Gutziz kontrako ikuspuntua erakusten digu Del Burgok. 1512ko konkistaren auzian egin bezala, paktuaren aldeko tesia erabiliko du oraingoan ere. Minaren planteamenduari erantzuteko bere lanak erabiliko ditu eta hauetan bere paktuaren aldeko tesia berretsiko du, alde batetik, eta Hitzarturiko Legearen akats formalak barkatu ala desenkusatu ditu bestetik, akatsok foru- errejimenak gerora izandako eboluzioan konpondu direla esanez. Era berean, Minari euskal nazionalismoaren doktrinazko planteamenduetatik edatea egotziko dio eta, hortaz, Nafarroako errejimenaren paktu izaera “mito foral” bezala izendatzea lekuz kanpoko delatzeritza<sup>25</sup>.

<sup>22</sup> SORAUREN Mikel, *Historia de Navarra, el Estado Vasco...*, 289-290. orr.

<sup>23</sup> IZU BELLOSO Miguel José, *Navarra como problema...*, 142. orr.

<sup>24</sup> MINA APAT Maria Cruz, *Fueros y revolución liberal...*, 223. orr.

<sup>25</sup> DEL BURGO Jaime Ignacio, *Introducción al estudio del Amejoramiento del Fuero (Los Derechos Históricos de Navarra)*, Gobierno de Navarra, Iruñea, 1980; 51. orr eta hurrengoak.

Floren Aoizek, bestelako ikuspuntu batetik egiten dio garai honetan gertatutakoari. 1512ari buruzko eztabaiden berpizteak eta 1841eko Legeari agintari espainiarren aldetik eman zitzaion paktuaren ideia hori ikusita, ondokoa dio: «Más allá de la batalla concreta por la cuestión foral y la sucesoria, se estaba perfilando un problema mucho mayor, que los gobernantes españoles seguramente vieron desde su larga tradición de desconfianza hacia los vascos y especialmente contra los navarros. Bien podría ser este malestar y la amenaza de cuestionar la incorporación a España una de las razones por las que se vieron en la necesidad de escenificar un nuevo pacto. Ya lo sugería la Diputación provincial al recordar el buen gobierno del sagaz Fernando el Católico. El mensaje era muy claro: no convenía despertar el monstruo de la nostalgia de la independencia perdida, por si acaso»<sup>26</sup>. Horrez gain, I. Karlistadaren inguruan karlisten artean independentzia berreskuratzeko aipamenak egon zirela dio bere lan honetan, garai hartako testigantzak daudela argudiatuz.

1841eko Legearen izaeraren inguruko eztabaidak alde batera utzita, gertaera honek Nafarroaren berezitasuna markatu zuen era berezi batean, eta une honetatik aurrera Nafarroa eta gainontzeko euskal probintzien bideak urrundu egingo dira. Egia da erreinu zaharra probintzia soil bihurtzean Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiaren egoerara hurbiltzen dela hauek ere espainiar probintziak direla kontuan hartuta. Baina, aldi berean, interes eta berezitasun konkretu batzuk dituen foru-errejimen berezi bat adosten du estatuarekin, mendebaldeko probintzia horiek dutenetik desberdina oraingoan, azken hauek ez baitute foruen egokitzapen hori burutuko; are okerrago, 1876an galdu egingo dituzte foruak, eta behin-behineko izaera duen kontzertu ekonomikoa mantentzea baino ez dute lortuko.

1841 urteak nafar eta “baskongadoen” kasuen artean ezarritako ezberdintasun hau denek antzeman zuten zerbait izan zen, eta nabarmendu egin zuten ia hasiera-hasieratik. Horrela, 1864ean, Manuel Sanchez Silva antifueristak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako probintzia pribilegioak dituztela kontsideratzen du eta Nafarroa eredu bezala jartzen du 1841ean bere foruak egokitzeagatik; Rafael Navascuesentzat, data honek hiru probintzien eta Nafarroaren arteko funtsezko desberdintasunak nabarmendu zituen. Baina bazegoen kontrakoa zioenik ere. Hermilio de Olorizek bere atsekabea adierazi zuen nafarrak tinko ez agertzearren eta foruen edozein aldaketaren aurrean erresistentziarik ez jartzearren, beste hiru probintziek egin bezala<sup>27</sup>. Nabarrismoaren aldetik, hasieran 1841eko Legea Nafarroa hiru probintziekiko ezberdintasuna azpimarratzeko erabiliko du, eta ondoren lau probintziak batzearen kontra joateko arrazoi bezala erabiliko du etengabe.

Horrela, Nafarroa eta Espainiaren historia akordioen bitartez lotzen du historiografia ofizialak, eta horrela iritsi zaigu XXI. menderaino ere. Egungo nabarrismoak, lehen aipatu bezala, nafarren identitate kolektiboa eta berezitasuna bi elementuren bitartez azaltzen du: historiaren bidez, baina batez ere foraltasunean, berau izanik bere proposamen politikoaren ardatza. Gainontzeko ideologia identitarioek egin bezala, Nafarroaren iragana mitikoki birsortuko du, denboran zehar lurraldetasunaren jarraikortasun bat transmititu nahian eta 1512ko Nafarroako konkista eta ondoren espainiar monarkiarekin izandako harremana berdinen arteko pakto bezala berrinterpretatuz 1841era heldu arte. Eta gauza bera egingo du 1841eko Legearekin 1982an LORAFNara (*Ley Orgánica de*

<sup>26</sup> AOIZ Floren, *La vieja herida...*, 282. orr.

<sup>27</sup> GARCÍA SANZ MARCOTEGUI Angel, *Historia del navarrismo...*, 127-128. orr.

*Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra*) iritsi arte. Ikusten dugunez, nabarrismoak eta historiografia ofizialak paktuz paktu osatuko du Nafarroaren historia XVI. mendetik XXI.era, lehen aipatutako jarraikortasun hori historian zehar luzatuz.

Era berean, 1841ean Nafarroak eta gainontzeko euskal probintziek bide ezberdina hartu izanak nabarrismoari eta bere diskurtsoari era ezin hobean egokitzen zaien argumentua eman die hasiera-hasieratik. Baina Nafarroak alde batetik eta gainontzeko hiru euskal probintziek bide desberdina hartzea ez da XXI. mendeko nabarristek eman nahi dioten irakurketa faltsu horren adibide, hots, ez da nafarrek euren berezitasunaz jabetuta beste probintzietatik desberdintzeko edo urruntzeko egiten duten mugimendu bat. Ikusi dugun moduan, espainiar estatuak, foruak estatu liberal berrian txertatzeko prozedura ezberdin bat inposatzea lortu zuen, Nafarroako Gorteak deitu beharrean Estatuak berak mugaturiko hauteskondeetatik irtendako Diputazioak probintziako errejimen forala negoziatzeko proposamena onartu zuenean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak kontra azaldu bitartean.

Horrez gain, esanguratsua den gertakari bat aurkeztea egoki deritzot, nafarrek lege honen aurrean zuten iritzira hurbil gaitzakeelako hein batean, kasu konkretu bati buruz ari garela ahaztu gabe eta adibide hau estrapolatzeko asmorik gabe. Nafarroako Diputazioak Gobernu espainiarrarekin foruen egokitzapen hori “negoziatzeko” sortu zuen komisioren kide izan ziren Pablo Ilarregui eta Fulgencio Barrenaren kasuak oso esanguratsuak dira, eta baliotsuak izan daitezke. Lehenengoa, betetako lana justifikatzeko egin behar izan zuen izugarrizko esfortzuagatik egin zen ezaguna batez ere, 1841eko aldaketa hori ezinbesteko aldaketa bat zela erakusten saiatu zen, eta honek nafar gizarteak gogor erantzun zuela pentsatzera eramanez gaitzake. Baina, gehienbat, bigarren kasua da deigarriena. Tuterarra jaiotzez, Fulgencio Barrena Tuteran bertan hil zen, eta gorpuari gaubeila egin zitzaionean bere etxea harrikatu egin zuen jendeak. Halaber, ez zuten inor aurkitu bere gorpua hilerrira eramateko, eta azkenean gauzez eta ezkutuan eramanez behar izan zuten gorpua<sup>28</sup>.

Edozelan ere, 1860ko hamarkadan azalduko den euskal-nafar batasun horren aurka egongo den nabarrismoak 1841eko Legean aurkituko du bere argumenturik onena, beste hiru probintzietan biziko duten egoera ezegonkorra edo zehaztu gabe horren aurrean, Nafarroa eta Gobernuaren arteko “paktua” eta honek nafarrei eta foruei ematen dien segurtasuna goraiatuz. Horregatik izango da hain garrantzitsua 1841. urtea nabarrismoarentzat, azkenean bere diskurtsoaren ezinbesteko oinarri bihurtuz.

### **1.3. Nabarrismoa XIX. mendeko euskal-nafar elkarlan eta autonomia proposamenen aurrean**

XX. mendeko 30eko hamarkadan espainiar Errepublikak planteaturiko errejimen autonomikoez gain, XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran izan ziren lau euskal probintziek osatuko luketen esparru politiko bat sortzeko saiakerak ere. Saiakera edo aurrekari hauek, orokorrean, ez dute izango Errepublika garaian emandako planteamenduak izan zuten sakontasuna eta zehaztasuna, baina kasu hauek

<sup>28</sup> SORAUREN Mikel, *Historia de Navarra...*, 286-288. orr.



erabilgarriak izango zaizkigu euskal-nafar batasun honen aurrean XIX. mende bukaera horretan zeuden posizioak argitzeko, eta azkenik, hauen aurrean nabarrismoaren ikuspegi ezberdinek izan zuten jarrera aztertzeke.

Lehenago esan bezala, 1841eko Legea oinarri hartuta sortzen den nabarrismoak izaera konplexua izango du, eta batzuetan kontraesankorra ere bai, egunera iritsi zaigun nabarrismoaren aurrekari ideologikoak anitzak izan baitira. Alde batetik erreakzionario dei dezakegun nabarrismo kontserbadore bat aurkitzen dugu. Kulturalki euskaltzalea da ez doalako euskal-nafar batasunaren ideiarene aurka eta Euskal Herria indar liberal eta iraultzaileen aurrean babestu beharreko oasi bezala ulertzen duelako. Halaber, mende bukaeran sortutako mugimendu aurrenazionalista ordezkatu zuten euskaroen izenona eta lanetik gertu kokatuko da. Nabarrismo honek bere foruzaletasuna adierazi eta 1841eko Legea onartu egiten du, foruen berrezartzea ahalbidetuko duen egoera egokiago bat iritsi arte, teoriarik behintzat.

Honen aurrean, XIX. mende erdialdetik aurrera egon badago izaera liberala duen nabarrismo bat ere. Nabarrismo hau foruzalea izango da hein batean, 1841ko Legea defendatzen baitu foruen eguneratze bezala espainiar batasun konstituzional horren barruan. Euskaroen diskurtsoari dagokionez, honen atzean Errejimen Zaharra defendatzen dutenen interesak ezkutatu eta pribilegioak mantentzeko nahia egongo liriteke nabarrismo mota honentzat. Euskal-nafar batasunaren kontra dago, batasun honek karlismoa indartzen duela ulertzen baitu, eta orokorrean euskal kulturaren goraiamenetikiko mesfidati agertuko da<sup>29</sup>.

Gaurtik ikusita bitxia egiten zaigun arren, azken hau izango da hasieratik euskal-nafar batasun proiektu ororen aurka azalduko dena, nabarrismo kontserbadoreak jarrera aldakorra izango duen bitartean. Nabarrismo liberal honen lehenengo aztarnak XIX. mendeko 60ko hamarkadan kokatzen dira, lau euskal probintzien arteko harreman politikoak estutuko lituzkeen lehenengo proposamen serioak egiten direnean.

### ***1.3.1. 1866 eta 1873ko proposamenak***

Euskal-nafar batasun proposamen modernoak 1866an du bere sorrera. Urte horretako abuztuaren 18an Nafarroako Diputazioak – karlista eta neokatolikoaren esku garai hartan – beste hiru probintziei dei egiten die eremu komun batzuetan elkarrekin lan egiteko.

Erakunde nafarrak lotura historikoak eta linguistikoak, izaeraren, ohituren eta tradizioaren ingurukoak aipatzen ditu, eta horrez gain, lau probintzia euskal-nafarren lurraldearen ezaugarriak gehitzen ditu. Bere esanetan, iraultzaren izpiritua herriaren izaera tradizionala deuseztatzen ari zen eta lau lurraldeetako biztanleak batzea beharrezkoa zen hau mantentzeko. Xede horrekin, hiru diputazioei, bere antzinako ahizpei, ondorengo proposamena luzatu zien: unibertsitate euskal-nafar bat eta zoroetxe bat eraikitzearen proiektua, mendebaldeko hiru probintzia horiek Iruñeako Auzitegira batzea, ongintza gune komun baten fundazioa, bidesarien ezabapena eta ardo nafarraren gaineko zergaren beherapen progresiboa<sup>30</sup>.

<sup>29</sup> GARCÍA SANZ MARCOTEGUI Angel, *Historia del navarrismo...*, 241-242. orr.

<sup>30</sup> GARCIA-SANZ MARCOTEGUI Angel, *La identidad de Navarra...*, 35. orr. eta ondorengoak.

Handik gutxira, 1867ko uztailearen 15ean, Diputazioak alokuzio edo hitzaldi bat eman zuen proiektu hauek eta beste berri batzuk azaltze aldera, tartean euskal-nafar nekazal banku bat sortzearena. Oraingoan, probintziak ahizpak izateaz gain, parekoak zirela esan zuen, “*provincias gemelas*”. Honek batzuek eta besteek antolatutako jai edota ekitaldietarako gonbidapenen elkartrukea ekarri zuen. Horietan ez zen mahai gainean jarritako proiektuen inguruan eztabaidatu, baina baliagarriak izan ziren harremanak estutzeko eta lau probintzien batasunaren garrantziaz jabetzeko. Azken finean, Diputazioak beste lurralde horiekin elkartzeko lan garrantzitsu horri hasiera emateko dei egin zuen, honek etekin positiboak eskainiko zituela benetan uste zuelako.

Ekimen honek nafarrengan inolako kontrako jarrerarik ez sortzea espero zuela aipatu zuen alokuzio horren bukaeran. Baina izan, izan zen polemikarik, Cayo Escudero Marichalar liberal korellarra eta Fructuoso Munarrizen tafallarraren artean hain zuzen ere. Cayo Escudero Marichalarrek – gerora senataria izango zenak – Nafarroako Diputazioak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoari elkarlanerako proposatutako proiektuen gainean idatzi zuen 1867ko uztailean, “*Laurac bat*” izeneko opuskulan. Bertan, Iruñeko Nekazal Aurkezpen Probintzian hiru probintzia horietako ordezkariak egoteaz harridura eta bertan ikus zitekeen “*Laurac bat*” goiburuaren aurrean ondoeza adierazi zuen. Nafarroa eta besteen interesak ezberdinak zirela argudiatu zuen eta lurralde bakoitzaren arteko desberdintasun legalak azpimarratu, Nafarroak foruen egokitzapena egina zuela gogoratu. Bukatzeko, aitortu zuen ez zegoela aipatutako goiburu horren aurka, beti ere honek erreinu zaharrari eragozpenik ekartzen ez bazion. Fructuoso Munarrizen ideologia ez da ezaguna, baina Escuderoren kritikei erantzun zion, hark erabilitako izen bera zeraman beste opuskulu batean. Bertan, babesa adierazi zion nafar korporazioaren batasun politikari eta Escuderoren argumentuak gaitzetsi zituen: «*hacia imposible la estrecha fraternidad que todos debemos desear como individuos de la ilustre familia vascónica*»<sup>31</sup>.

Egon zen nafar ekimen honen aurrean kezka azaldu zuen besterik ere. Yanguas Irachetak ere, adibidez, arazoak ikusten zituen Diputazioak proposatutako horretan. Cayo Escuderoren idazkia ekarri zuen gogora eta zioenez, Diputazioaren asmoek arriskuan jartzen zuten Nafarroa. Bere ustez, Nafarroak lasai mantendu beharra zuen, eta ziurtasunez eta disimuluz jokatu bere foruak mantentzeko. Etorkizunean, planteamendu hau kontuan izan zuten eta foruei zegokienez, onena ezer ez egitea zela pentsatu zuten askok; hori edota konponbidea luzatzea, gobernuaren egoera eta kolorea egokiena ez izateko kasuan. Azken finean, bai Escudero bai Yanguasek gauza bera pentsatzen zuten, hau da, Nafarroak gainontzeko euskal probintziekin bat eginez gero, bere errejimen forala arriskuan jarriko zuela. Honek azaltzen du elkarlanerako dei hauen kontra hartu zuten posizioa. Hala ere, Nafarroa eta beste probintzia horien arteko erakunde eta historia desberdintasunekin tematu arren, ez zuten auzitan jarri Nafarroak euskal izaera zuen ala ez. Zentzu honetan, aipatzekoa da Yanguas bera Nafarroako Euskara Elkarteko kide izan zela denboraldi batez<sup>32</sup>.

Zaila da nafar populazioak Diputazioaren jarreraren aurrean izan zuen iritzia

<sup>31</sup> GARCÍA SANZ MARCOTEGUI, Angel, *Historia del navarrismo...*, 146. orr.

<sup>32</sup> *Ibidem*, 38. orr.

jakitea. Hala ere, nahiz eta urte batzuk beranduago Campionek batasun honek aurkari asko zituela esan, Julio Nombelaren esanek eta bestelako berriek kontrakoa pentsatzera garamatzate, hots, Diputazioak proposatutako ideia horrek aldeko asko zituela. Nafar udaletxe batzuk – Uxue, Añorbe, Lakuntza, Piedramillera, Los Arcos, Lerin, Cascante eta Goizueta – Diputazioaren politikaren aldeko babesak idatziz azaldu zuten. Datu hau deigarria da, batez ere udaletxe horietariko batzuk Erriberakoak direlako. Ez zen, ordea, politika horren kontrako antzeko mugimendurik agertu<sup>33</sup>.

Esan dugu karlista eta neokatolikoaren esku zegoen Nafarroako Diputazioa izan zela 1866an euskal-nafar batasun horren bultzatzaile. Baina aitortu beharra dago ez zirela bakarrik sektore kontserbadoreak izan horrelako planteamenduak egin zituztenak. 1869an, esaterako, Nafarroako eta Baskongadetako errepublikar federalek paktu federal bat izenpetu zuten espainiar Errepublika Federaleko etorkizuneko konstituzioari begira, nahiz eta ez zen finkatzera heldu.

Urte batzuk beranduago, Espainiako I. Errepublika garaian – 1873 eta 1874 urteen artean – berriro azaldu zen lurralde hauen batasunaren auzia. Orduan, kantoien eraketa proposatu zen, eta Nafarroak bakarrik ala bestelako eskualde batzuekin – gainontzeko euskal probintziekin, Aragoirekin ala Errioxarekin – batzea hobe zen eztabaidatu zen. Proposamen hau Gorteetako nafar diputatuek luzatu zioten Diputazioari. Honek, merindadeen iritzia kontsultatzeko astia zegoen ala ez galdegin zien, baina erantzunik jaso ez zuenez, probintziarentzat interesa zuen auzi hori eztabaidatzeko biltzar batera deitu zituen zenbait pertsona. Hauen artean, Gorteetan diputatu izandakoak, diputatu foralak, Iruñeko alkate izandako batzuk eta nafar politikagintzako beste pertsonai esanguratsu batzuk aurkitzen ziren. Esan daiteke garaiko liberal eta errepublikar nafarren ordezkariak hartu zuela parte, tradizionalista batzuk ere egon ziren arren. Denetarik egon zen: batzuk Nafarroak kantoi independente bat osatu behar zutela esan zuten eta beste batzuk lau euskal probintziek kantoi berean biltzearen aldeko jarrera azaldu zuten. Nafarroaren historia ezberdindua eta 1841etik sortutako egoera berezia aipatu ziren bertan batzuen eta besteen arteko banaketa hori justifikatzeko. Onartu onartzen zen egitura politiko bat sortzeko gainontzeko euskal probintziak izango lirakeela erabaki egokiena, baina parte hartzaileen iritzien artean, lau probintzien arteko batasuna arrisku bezala ikusten zuten askok, hau gertatuz gero altxamendu karlista indartu eta errejimen forala arriskuan jarriko omen litzatekeelako. Lau probintziek egitura politiko bateratu bat ez gauzatzeko arrazoia, beraz, karlismoaren indartzea izango da eta ez Nafarroaren izaera euskaldun eza, berriro ere<sup>34</sup>.

### 1.3.2. Nafarroako Euskara Elkarteak

Nafarroako liberalen nabarrismoa hau – gazteleraz “*navarrismo cuarentaiunista*” ere deitzen zaiona, 1841eko Legeak ezarritako errejimenaren defentsa sutsuari erreferentzia eginez – azken gerra karlista bukatu ostean jaiotako Nafarroako Euskara Elkartearen (*Asociación Euskara de Navarra*) aurka ere zuzendu zen. 1877an sortutako mugimendu honek politika eta kulturaren bidez bideratu zuen bere lana Nafarroan, gizarteko pertsonai entzutetsu eta adierazgarriekin: Iturralde y Suit, Arturo Campion, Nicasio de Landa, Estanislao de Aranzadi ... eta prestigiosko

<sup>33</sup> Ibidem, 147. orr.

<sup>34</sup> GARCIA-SANZ MARCOTEGUI Angel, *La identidad de Navarra...*, 38-39. orr.

egunkari birekin: *Arga* eta *Lau-buru*. Elkarteak garapen handia izan zuen euskal kulturaren akademia bezala eta Europako pertsonekin izan zuen harremana, batez ere Frantziarekin eta euskal sentimendu horrekin identifikatzen zirenekin. Literatura lehiaketa eta saioak antolatu zituzten, lore jokoak, kirola berpiztu zuten, bertsolaritza, dantzak eta euskal gastronomia bezalako arlo ezberdinak ere jorratu zituzten<sup>35</sup>.

Elkarte honen aldarrikapen nagusienetako bat euskal-nafar batasuna izan zen. Horrez gain, bere helburuen artean euskal hizkuntzaren iraupena eta hedakuntza, eta herriko legislazio eta ohiturak sustatzea zeuden, nekazaritza eta industrian nazio aurreratuenean erabilitako aurrerapenak ezartzearekin batera. Partaideek, euskarok, alternatiba bat eraiki nahi izan zuten karlismoa eta alderdi dinastikoen artean. Horrekin batera, Nafarroaren birsorkuntza edo biziberritze bat beharrezkoa ikusten zuten. Euren ustez egoera horrek politika global bat eskatzen zuen Nafarroa ekonomikoki eta moralki lur jota zegoelako, bere kompetentzia juridikoak gutxituta, migrazioak zaurituta, bere identitatea galtzen zihoan, bere monumentu historikoak zahartzen, ohiturak ahazten, hizkuntza galtzen eta arrazaren izaera eraldatzen. Birsorkuntza oso baten beharra eta dinastikoen eta karlisten dikotomia gainditzea lortuko zuen nafarren batasuna une oro azalduko dira euskaroen diskurtsoan. Gerra karlistak utzitako banaketa hori sendatzeko asmoak eta herriaren garapen materialaren alde lan egiteko erakutsi zuen jarrera horrek azaltzen du mota guztietako nafarren artean izan zuen harrera ona<sup>36</sup>.

Aipatu dugun arren euskal-nafar batasun horren alde zegoela, elkarte honek ez zuen erabat zehaztu helburu hau. Honekin lotutako proiektu gehienak ez ziren eremu teorikotik gehiagora joan, hots, orokorrean ez ziren plangintza konkretu batean zehaztu. Euren xedeak zerikusit gehiago zuen euskal lurraldeen arteko elkartasunarekin hauek elkartu eta gaindituko zituen egitura politiko bat eraikitzearekin baino. Edozein kasutan ere, batasun ideia guzti hauek Espainiaren markoan zeuden txertatuta, asmo independentista argirik erakutsi gabe. Egia esan, mugimendua eta bere diskurtsoa anbiguotasunaren barruan mugitu ziren. Anbiguotasun hau nabaria da gai baten baino gehiagotan: adibidez, oso kritikoa azaldu ziren 1512ko Nafarroaren konkistarekin, eta honenbestez, sezesionismo nahi edo grinarekin lotu zitekeen, baina aldi berean, kubatar eta filipinarren ekintza separatistak deitoratu zituzten.

Esan bezala, liberalek elkarte honek defendatutakoaren kontra egin zuten. Hala ere, jarrera ezberdinak aurki ditzakegu liberalen artean. Hasteko, azpimarratzekoa da Nafarroako Euskara Elkartean 50 bat liberal esanguratsu egon zirela. Alabaina, desberdintasun handiak zeuden ideologia aldetik eta 1841eko Legearen inguruko ikuspegi aldetik elkarte honetako liberal eta tradizionalisten artean. Liberalen prentsari erreparatzen badiogu – *El Navarro*, *El Liberal Navarro* eta *Heraldo de Navarra* – gauza bera gertatuko zaigu. *El Navarro* (1881-1884) egunkariak, Euskara Elkarteari kontrajarritako jarrera izan zuen, euskal-nafar batasun hori hasieratik erasotuz eta 1841eko Foruen Legeak ezarritako estatus politikoa goraiapatuz. Baina haratago ere joan zen. Artikulu luze batean, Nafarroa eta beste euskal probintzien arteko lotura etnikoak gainontzeko probintziekin zituztenetik apartekoak ez zirela argudiatu zuen; oso eztabaidagarri ikusten zuen espainiarrek

<sup>35</sup> LANDA EL BUSTO Luis, *Historia de Navarra: una identidad forjada...*, 270-271. orr.

<sup>36</sup> GARCÍA SANZ MARCOTEGUI Angel, *Historia del navarrismo...*, 149. orrialdea eta hurrengoak erabili dira atal hau aurkezteko.

osatzen zuten arrazatik bereizitako arraza bakarra osatzea nafar eta hiru probintzietakoek. Honi bestelako argumenturik ere gehitu zioten, tartean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak erreinu zaharrarekiko betidanik adierazitako interes faltarena. Bukatzeko, egunkari honen espainiartasun sakona aipatu beharko litzateke.

*El Navarro*-ren oinordekoa izan zen *El liberal Navarrok* (1886-1897) ibilbide beretsua egin zuen baina ñabardura garrantzitsuekin. Oraingo egunkari honek ez du, adibidez, lau probintziek komunean duten lotura kulturalen existentzia ukatuko. Are gehiago, 1892an euskal-nafar esapidea – “*vasco-navarro*” literalki – inolako arazorik gabe darabil, bere aurretiko egunkariak egin ez bezala, baina honek ez zuen bere espainiartasun militantea alboratzen inolaz ere. Azkenik, *El Heraldo de Navarra* (1897-1898) dugu, aurrekoa ordezkatzuz. Honetan nabarmentzekoa da Nafarroa gainontzeko hiru euskal probintziekin estuki lotutako lurraldea zela pentsatzen zuela. Halaber, lau diputazioek elkarlanerako egindako berriak naturaltasunez hartu zituen eta “euskal-nafar herri” bezalako esapideak maiz erabili zituen. Era berean, Nafarroako probintziako Jauregiko lorategian Gernikako arbolaren aldaxka bat landatzearen aldeko jarrera ere izan zuen.

Beraz, liberalen nabarrismoak izan zituen ezaugarriak ikusita ezin esan dezakegu ideia ala jarrera bateratu eta sendorik izan zuenik lau probintzien arteko harremanak areagotu edo egituratzeko ahaleginen aurrean. Iritzien aniztasuna eta batzuetan kontrajarritako iritzien existentzia izango da liberalen ezaugarrietako bat. Hala ere, hauen nabarrismoa 1841eko Legearen defentsa sendoak eta espainiartasun sentimenduak definituko dute, euskaltasunaren aurrean izan zituzten desberdintasunen eta ñabarduren gainetik.

### 1.3.3. *Gamazada*

1841etik aurrera, ikusi dugunez, “egokitutako” foruak Nafarroako estatus juridiko, errealitate politiko eta errealitate sozialaren ardatz eta ikur bihurtuko dira, foruzaletasuna nafar erakundeen doktrina ofizial bihurtuz. Bitartean, espainiar estatu liberal berriaren zentralizazio joerak bere horretan ziharduen, eta XIX. mende bukaeran egoera muturrera eraman zuen Nafarroari dagokionez. Gamazada delakoaz ari gara, Nafarroa garaikidearen historian izan zen momentu benetan garrantzitsu horretaz hain zuzen.

Gamazadak, 1893 hartan Espainiako ogasun ministroa zen German Gamazori zor dio izena. Urte hartan, Sagastak zuzendutako espainiar Gobernuak, nafar Diputazioak eta Gobernu zentralak adostutako hitzarmen ekonomiko horren baldintzak aldatzeko asmoa azaldu zuen. Askok 1841eko paktu-lege hori goraiatu arren, garai hartan gertatutakora hurbilduz gero, espainiar Estatuak foru-errejimen berri hori etengabe erasotu zuela antzeman daiteke, unean uneko interesen arabera. Gamazada, hortaz, beste aurrekari batzuen jarraipena baino ez zen izan.

1876. urtean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foruak ezabatzeaz batera, Canovasen Gobernu kontserbadoreak Nafarroa eta gainontzeko espainiar probintzien arteko batasun eta berdintasun fiskala lortzeko asmoz deitu zuen Diputazioa, 1841eko legea aldatzeko negoziatzera deituz. Diputazioak negoziatu egin zuen, aipatu lege horren 25. artikulua berrikusi eta kupoaren zuzeneko kontribuzioa onartzeko asmoz. Gobernuak onartu egin zuen kupo berria zeharkako kontribuzioen gaia beste une

baterako utziz eta 1877ko otsailaren 19ko Erret Ordena onartu zuen (Tejada Valdosera Hitzarmena bezala ezaguna zena). Nahiz eta kupoaren kantitatea areagotu, Nafarroa beste probintziak baino egoera hobean zegoen oraindik, baina kupoaren mugiezintasun printzipioari uko egitea eta 1841ko legearen aldaketa onartzea suposatu zuen honek. Gainera, Canovasek ez zituen bere asmoak ahaztu eta 1877ko aurrekontuen legeak Nafarroan komenigarritzat har zitezkeen zerga berriak ezartzeko baimena ematen zion Gobernuari, Diputazioa behin “entzunda”. Gobernuak ez zuen, ordea, hau gauzatzea erabaki<sup>37</sup>.

Baina German Gamazo ministroak 1877. urteko aurrekontuen legearen baimen hau berehala erabiliko zuela argi utzi zuen 1893-1894. urteko aurrekontuen proiektuan, Nafarroan gainontzeko probintzietan indarrean zeuden zerga berak ezartzeko asmoz. Diputazioa neurri honen aurka agertu zen hasieratik. Eraso honen aurrean, foruen azken aztarna horien defentsa era argian azaldu zuten nafarrek, batez ere 1893ko ekainaren 4an Iruñean, 20.000 pertsona biltzea lortuz; halaber, 120.000 nafarren sinadurak bildu ziren (orduko Nafarroak 300.000 bat biztanle baino ez zituen) eta Diputazioak Erreginari bidali zizkion. Nafar egunkariak ere bat egin zuten mobilizazio hauekin, eta erregionalista kataluniar eta galiziarren, euskal foruzaleen, errepublikarren eta federalisten babesa jaso zuten, besteak beste. Proiektuari emandako erantzuna aintzat hartu zuen Gobernuak, eta hasierako planari aldaketa batzuk sartu zizkion. Diputazioa, ordea, bere horretan mantendu zen, idazkia leuntzeak ez baitzuen bere ustez Gobernuaren benetako nahia aldatzen.

1894 urtearen hasieran Gobernuak Diputazioa presionatu zuen negoziaketak hasteko. Baina azken hau, eskatzen zitzaizkion batzarkideak bidali beharrean, Madrilen azaldu zen bere osotasunean hartutako erabakia irmoa zela argi utziz. Gamazok, ordea, ez zuen atzera egin. Diputatuek, trenean etxerantz bueltatzean jendetza izan zuten harrera gisa geltoki guztietan, euren jarrera txalotuz eta elkartasun osoa adieraziz. Krisi honek Sagasta eta Gamazo aurrez aurre jarri zituen eta azkenean Gamazo kargutik kendu zuten martxoan. Bere ondorengoak, Amos Salvadorrek bide berari jarraitu zion Nafarroaren auzi honetan lege proiektu berria aurkeztean: 4 hilabeteko epea eman zion Diputazioari negoziaketak hasteko, epea agortu ostean Gobernuak berak ezarriko baitzuen kupoak. Baina oraingo honetan ere, erantzuna ezezkoa izan zen. Sagastaren gobernu berrantolatze bat zela medio bere politika ekonomikoaren lehentasunak aldatu egin ziren eta Salvadorren kargu uztea gertatu zen ondoren. Arazoa 1894 urte horretan bertan bukatu zen beraz eta legislatura aurrekontuen proiektua onartu gabe amaitu zen, gobernuak ez baitzion honi berriro ekin.

Luis Landaren ustez, Madrileko Gobernuak zituen kanpo arazoak – Kubako gerra batez ere – eta Nafarroa bere eskubide historikoak aldarrikatuz egiten ari zen mugimendu etengabeek egoera bere horretan uztera eraman zuen Gobernuak eta zerga sistema aurreko egoeran zegoen bezala mantentzera. Garaipen honek mesede egin zien lau euskal probintzien arteko harremanei. “Laurak bat” lema bultzatuz – nahiz eta lema honek XIX. mendearen erdialdean izan jatorria –, eta Sabino Aranak aukera hau Iruñeara joateko aprobetxatu zuen 1894ko otsailean, foruzaleekin elkarrizketatu eta Nafarroan euskal nazionalismoaren oinarriak jartzeko asmotan<sup>38</sup>.

<sup>37</sup> IZU BELLOSO Miguel Jose, *Navarra como problema...*, 170. orr eta hurrengoak.

<sup>38</sup> LANDA EL BUSTO Luis, *Historia de Navarra: una identidad forjada...*, 235-236. orr.

Gamazada osteko urteak izan ziren onenak lau probintzietako diputazioen arteko harremani dagokienez. Honen adierazle dira XIX eta XX mende arteko epe horretan Nafarroako Diputazioak maiz egin ohi zituen lau probintzien arteko anaitasunaren gaineko adierazpenak, “*provincias hermanas*” izendatuz; era berean, Foruen Monumentuetako plaka onartu izanak euskaroen planteamenduekiko adostasuna adierazten du nafar erakundearen aldetik. Horrez gain, Diputazioak Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntza (biak 1918an) erakundeei emandako laguntza ere azpimarratzekoa da. Hala ere, foruen aldeko eta gainontzeko euskal probintziekiko elkartasun adierazpen hauek ez zetozen bat gai zehatzetan laguntzetik haratago joateko asmoarekin. Honen harira, aipatzekoa da kontzertu ekonomikoen berritzearen inguruan 1906an Nafarroako Diputazioak hartutako erabakia eta beste diputazioei eman zien erantzuna. Jasotako mezuaren izpirituagatik poza adierazi zuen eta zortea opa zien Errejimen Zaharrari arraza loturek elkartutako bere ahizpei, baina argi utzi zuen auzi horrek ez zuela zerikusirik Nafarroarekin, honek errejimen berezi bat baitzuen 1841etik.

Gamazadak, beraz, balio sinboliko handia du, erakunde guztiak eta Nafarroako indar politiko guztiak batu zituelako foruen defentsan, eta batik bat 1841eko legearen paktu izaeraren defentsan. Era berean, kontuan izanda Diputazioak zuzendutako protesta eta aldarrikapena izan zela, hobeto uler daitezke mobilizazioak deitzeko erraztasuna eta hauen arrakasta, erakundearen prestigioa eta funtzioaren indartzea emanez. Diputazioarentzat onura ekarri zuen mende bukaerako gertaera honek, Diputazioa bera ere foruen sinbolo bihurtu baitzen, Nafarroarentzat ezinbesteko erakunde, eta prestigioa irabazi zuen Madrilen aurrean lortutako garaipen hori zela eta<sup>39</sup>; eta berau izango da “foru izaera” zerk duen, edota foruarekin lotuta dagoena eta ez dagoena ebatziko duen organoa.

Horrez gain, zenbait aditu bat datoz auzi politiko honen eragileen artean faktore ekonomikoak aipatzen dituztenean. Ana Aliende Urtasunek dioenez, Gamazada aurreko urteak krisi ekonomikoak markatutako urteak dira, Nafarroan estatu mailan katastroak ekarri zuen kontribuzio maparen berrantolaketa zela eta. Horregatik altxatzen dira, bere hitzetan, une honetan eta ez adibidez, 1877an Tejada-Valdoseraren hitzarmenak suposatu zuen zerga handitzearen ostean. Une honetan, are gehiago indartzen dira “foru ekonomikoak” Nafarroaren errejimen bereziaren zutabe bezala eta ordura arte liskarrean egondako mendi guneak eta Erriberak bat egingo dute foruen alde; batasuna lortzen da etsaia Estatua delako eta babesa Diputaziotik datorrelako<sup>40</sup>.

Ikuspuntu konkretu batetik so eginez, Gamazoren asmoen aurkako protesta hau eragin zuten foruen gorespina eta gizarte asaldura euskaroen lorpen kontsidera daitezke garai hartan izan zuten protagonismo handia zela eta<sup>41</sup>. Honek ez zuen ekidin, ordea, Euskara Elkartearen partaideak laster ordezkaturako zituen korrante bi ezberdintzea: nazionalismoa eta nabarrismoa.

<sup>39</sup> LARRAZA Maria del Mar, *La Gamazada en el contexto de la política navarra de fin de siglo*, 9. orr.

<sup>40</sup> ALIENDE URTASUN Ana, *Elementos fundantes de la identidad colectiva navarra. De la diversidad social a la unidad política (1841-1936)*, Universidad Pública de Navarra, Pamplona, 1999; 81. orr eta hurrengoak.

<sup>41</sup> GARCÍA SANZ MARCOTEGUI Angel, *Historia del navarrismo...*, 169. orr. eta hurrengoak.

Gauza berea defendatzen du Iñaki Iriarte Lopezek nafar nazionalistek eta nabarristek euskaroen lelo nagusiak bereganatu zituztela dioenean. Izan ere, gehienek euren aurrekari eta maisu gisa hartu zituzten euskaroak, nahiz eta nazionalismoak eta nabarrismoak ez zuten indar bera jarri lelo guztietan ez eta irakurketa bera egin gai ezberdinen inguruan<sup>42</sup>. Bi hauek, dakigunez, nafar politikan arerio izango dira gaur eguneraino. Gamazada lehen euskal nazionalismoaren uneetariko bat izateaz gain, Angel Garcia Sanzek, Iñaki Iriartek eta Fernando Mikelarenak nabarrismo garaikidearen hasiera bezala kontsideratzen dute, Nafarroak Gobernuaren neurri zentralisten aurrean 1841eko Legea erabili zuela eta berezko identitatea definitzeko erreferentzia bihurtu zuela gogoratuz.

#### 1.4. Nabarrismoa eta XX. mendeko proposamenak

Erregioen edo eskualdeen gaia XIX. mende erdialdetik zetorren baina XX. mendearen lehenengo hamarkadetan Espainiaren arazo larrienetariko bat izatera helduko da. Azken kolonien galera suposatu zuen 1898ko porrota izan zen guzti honen eragile. Askorentzat Kuba eta Filipinak galtzea hauen errealitateari erantzun egoki bat ez ematearen ondorio izan zen; beste era batera esanda, estatuak bere zentralizazioaz gaindiko beste artikulazio bat eskaintzeko gaitasun eza izango litzateke honen arrazoa, periferiak asetuko zituen artikulazio berri baten hutsunearen ondorio, faktore militarra alde batera utziz. Galdutako horiek lurralde nazionalaren %40a suposatzen zuten gutxi gorabehera, eta halako kolpe latzak estatuaren berrantolaketa lehen mailako ardura bihurtu zuen Errestaurazio bukaerako epealdi honetan, eta batez ere 1917ko krisiaren testuinguruan.

Lehendik ere Espainiaren pluraltasuna biltzen zuten plan ugari egon ziren: 1884ko Moreten proiektua, Almirrallak 1890ean planteatutako federatiboa, hurrengo urtean Silvelak planteaturikoa, Sanchez Tocak 1897an proposatutako informea Kontseilu Erregionalak proposatuz; eta XX. mendean sartuta, Mauraren 1903-1907 arteko lege proiektua Mankomunitate probintzialesi buruz hitz eginez eta 1913ko abenduaren 18ko Erret Dekretua, esaterako.

Nafarroan planteamendu erregionalek korrante nabarrista eta nazionalista ezberdinak ekarri zituen. Dakigunez, korrante guzti hauen ardatza 1839 eta bereziki 1841eko legeen aurrean hartzen duten jarrera izango da batez ere. Alde batetik, euskaroak – gerora nazionalistak – eta tradizionalistak biltzen dituen sektore bat identifika daiteke. Hauen helburua, aipaturiko lege horiek baliogabetzea izango da aurreko egoera horretara bueltatzeko, hots, foruen berrezartze osora. Bestetik, korrante nabarrista batek, batez ere liberal eta ezkerrekoak, 1841eko Legeak eskaintzen duen autonomia probintzial horren aldeko apustua egingo du, egoera mantentzeko asmoz. Eta azkenik, eskumako sektorearen nabarrismoak ere, teoriarik, 1841ko Legeak ezarritako errejimena gaitzetsiko du, baina hau erretorika hutsa baino ez da, ez baitu ezer egingo hau aldatzeko eta lehengo egoerara bueltatzeko. Bere jarrera anbigua izango da, baina praktikan ez da liberalek mantendutako *status quo* horren defentsatik aldentuko.

XX. mendean, aurreko mendean existitu den nabarrismo kontserbadore hori

<sup>42</sup> IRIARTE LOPEZ Iñaki, *Tramas de identidad. Literatura y regionalismo en Navarra (1870-1960)*, Biblioteca Nueva, Madrid, 2000; 20. orr.



desitxuratzen hasten da, eta nabarrismo mota bi hasten dira desberdintzen (gaztelaniaz ezberdin idazten dira: “*navarrismoa*” eta nabarrismoa). Lehenak – *navarrismoak*, gaztelera –, foruen aldeko diskurtsoa alboratu gabe, Espainiarekin dauden ezberdintasunetan gehiegi sakontzeak izan ditzakeen ondorioez jabetuta bere diskurtsoa leuntzera joko du, nabarrismoa eta espainolismoa uztartuz. Hau horrela, XIX. mendetik zetorren nabarrismo tradizionalista horrek nabarrismo liberalaren tesi berberak defendatzen bukatuko du azkenean. Eta bigarren nabarrismoak, euskaroen ondorengo zuzenak ordezkaturik, foruzaletasun irredentismoaren alde egoten segituko du, baina oraingoan nazionalisten eta karlisten sektore baten eskutik<sup>43</sup>.

#### 1.4.1. Mankomunitateak

Egitura politiko bateratu bat osatzeko beste aukera bat gertatu zen 1913an. Urte horretako abenduaren 8ko Mankomunitateen dekretuak espainiar estatuko eskualdeen antolamendu administratibo berri baterako atea ireki zuen eta Nafarroa bakarrik ala probintziaz gaindiko subjektu bat osatzearen gaineko eztabaida ere ireki zen. 1914an Ebroko Mankomunitatearen aukera jarri zen mahai gainean Emerenciano Garcia Sanchez Zaragozako Diputazioko presidentearen eskutik. *El pensamiento Navarro* eta *La Tradición Navarra* egunkariak aldeko jarrera agertu zuten Nafarroaren izaera desberdindua errespetatuz gero beti ere. *Diario de Navarra* Nafarroa beste probintzia batzuekin batzearen aurka azaldu zen, 1841eko Legetik eratorritako errejimen horrekin jarraitu behar zuela argudiatuz, lege horrekin Nafarroak bazituelako jada ezarri nahi zen lege berriak eskaintzen zituen abantailak<sup>44</sup>.

Napartarra astekari nazionalistak Aragoirekiko mankomunitatea gaitzetsi zuen, azken honek Nafarroari foruak kentzeko egindako eskaria gogoratuz, eta gainontzeko euskal lurraldeekin egikaritu zitekeena aldarrikatu zuen, nahiz eta oposizio orokortua jaso. “*Joshe Miguel*” astekariari dagokionez, Napartarra separatistatzat jo zuen, baina hori alde batera utzita gainontzeko euskal probintziekin mankomunitatea eraikitzea hitz egitean, euskara eta foruak kontserbatzeko eta Euskal Herriaren historia hedatzeko baliogarria izango balitz, bere hitzetan ez luke zalantzarik izango bere “*arraza anaiekin*” eraikitzeko; halaber, nafar eta baskongadoek arraza anaiak zirela onartzen zuen. Baina dekretuak sortzera zihoan egitura politiko berri horien eskumenak mugatuta zituenez, ezinezkoa zen izendaturiko arlo horiek (euskara eta historia) garatzea. Ebroko mankomunitateari dagokionez, Erriberak Aragoi eta Errioxarekin interesak zituela aitortzen zuen (Kanal Inperialaren eraikuntza gehienbat) baina hori mankomunitate bat sortzeko arrazoi nahikoa ez zela ere aitortu zuen.

1914ko otsailean Bizkaiko Diputazioak dei egin zion Nafarroakoari euskal-nafar mankomunitate bat osatzeari begira. Nafarroakoak, Ebroko mankomunitatearen egin bezala, gonbitea analizatuko zutela esan zuen, baina ez zuen benetan horretan lan egiteko asmorik azaldu. 1917an jada “*El Pensamiento Navarro*”, Engracio Aranzadik (Kizkitza) “Euskadi” egunkarian proposatutako euskal mankomunitatea eraikitzearen aurka agertu zen. Arraza eta hizkuntza ez ziren nahikoak euskal lurraldeei batasun legala emateko: «pues son distintas, no sólo las leyes, sino las genuinas instituciones suyas y las nuestras; distinta es y ha sido secularmente la personalidad suya y la de Navarra, y muy diferente la vida de

<sup>43</sup> GARCÍA SANZ MARCOTEGUI Angel, *Historia del navarrismo...*, 242. orr.

<sup>44</sup> *Ibidem*, 253. orr. eta hurrengoak.

Navarra y de las provincias con relación a Castilla. Esa inveterada separación y diferencia a través de una larga historia ha creado distinción y, en casos, antagonismos de intereses, que hacen imposible, en este orden material, una acción común. Por eso, sin rechazarla en absoluto, estimamos difícilísima e inconveniente la Mancomunidad Vasca». Horrez gain, Kizkitzak “euskal nazionalitatea” aipatu zuenez, egunkariak edozein aldarrikapen nazionalista abiarazteko erabiliz gero, mankomunitatearen aurka joango zela esan zuen: «repudiamos la doctrina nacionalista sabiniana, que niega, que pretende destruir la personalidad histórica de estas cuatro provincias hermanas»; handik gutxira, ondorengo gehitu zuen: «Los sabinianos confunden la personalidad nacional. Así niegan la misma nacionalidad navarra, cosa que nosotros afirmamos plenamente refiriéndonos, claro está, a tiempos pasados».

#### ***1.4.2. 1917-1918. Posturen argitzea***

XX. mende hasieran nabarrismoan ematen hasi ziren aldaketak mende horretako bigarren hamarkadan zehaztuko dira gehiago, batez ere 1917-1919 urte bitarteko prozesu autonomistan. Lehendik aldatzen zihoan nabarrismo tradizional hori are gehiago astinduko du nazionalismoaren agerpenak. Aranaren nazionalismoak aukera sezesionista edo banatzaile bat proposatuko du lehenbiziz, aurreko ereduekin apurtuz. Espainiatik banandutako Euskal Estatuaren eraikuntza proposamen honek nabarrismoan aldaketak eragingo ditu tradizionalista eta kontserbadoreen sektore garrantzitsuetan 1841eko Legeari dagokionez. Eskumako nabarrismoa 1841ak emandako estatutu probintzialarekin geratuko da definitiboki, Espainiaren batasun konstituzionala kolokan jartzen duen edozein proposamen alde batera utziz. Hau horrela, Euskaroen oinordeko den nabarrismoak – laster nazionalismoan txertatuko direnak – eta karlismoaren sektore batzuek baino ez dute mantenduko 1839-1841 horiekin apurtzea Nafarroak ordura arte zegozkion eskubideak eta estatu juridikoa berreskuratzeko.

Lehen aipatu bezala, nabarrismo kontserbadoreak nabarrismo liberalak hasieratik zituen tesiak defendatuko ditu hemendik aurrera. Nafarroarentzako proiektu politiko bera defenditzen arituko dira lehenengoz bi nabarrismo hauek, nabarrismoaren beste adarra zen euskal nazionalismoaren parean jarritz. Honek, denborarekin, oraindik sakon errotu edo mamitu gabeko nazionalismo horren isolamendua ekarriko du; eta oraindik garrantzitsuago dena, nabarrismoa aldarrikapen euskaltzaleetatik urruntzea epe luzera.

Historikoki defendatu dituen elementu hauetatik urruntze hori askoz nabarmenagoa izango da 1917tik aurrera. Urte horretako uztailean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako diputazioek, katalanistak eraginda nolabait, errejimen foralaren berrezarkuntza eskatu zioten espainiar gobernuari. Eta horretarako Nafarroa kontuan hartu nahi izan zuten. Foru Kontseiluaren gehiengoak, ordea, ezezkoa eman zuen nahiz eta eskatutako xedea justutzat jo, aberria igarotzen ari zen une larriak eta zailak jarritz arrazoi bezala. Eta horrela izan zen, abuztuan bertan greba orokorrak eztanda egin baitzuen Espainia osoan, sozialista eta anarkistek lagunduta. Urriko iraultza boltxebikeak altxamendu orokortu baten beldurra areagotu egin zuen eta honek, era berean, edozein aldarrikapen autonomiko alde batera uztea, Estatua indartze aldera.

Esan bezala, batzuen eta besteen posizioa 1917-1919 tarte horretan erabat argituko da. 1918ko Romanones kondearen Gobernuaren helburuetariko bat erregio edo eskualdeen arazoa konpontzea izango da. Berehala piztu ziren autonomia eskaerak eskualde guztietan, eta Nafarroan Iruñeako Udaletxea izan zen lehen pausua eman zuena, azaroaren 20an gehiengo karlistak proposatutako mozio bat onartuz. Mozio honetan 1839ko Legea indargabetzea eta foruen berrezartzea eskatzen zen, eta Diputazioari luzatu zitzaion Gobernuarekin guzti hau kudeatzeko ardura.

Mozio honek herri askoren babesa jaso zuen eta Diputazioak, populazioaren nahiei erantzunez, diputatuak, senatariak, kontseilari administratiboak eta udaletxeak asanblada batetara deitu zituen. Herrien erantzuna masiboa izan zen: 268 udaletxetik 242k hartu zuten parte. Jose Maria Jimeno Juriok asanblada horretan gertatutakoa laburtzen digu<sup>45</sup>. 1918ko asanblada hau 1932an Euskal Estatutuarekin gertatuko zenarekin konparatzen du. 1918ko asanbladan gertatutakoak nafar agintarien interesei erantzun zien, 1841eko Legeak ezarritako egoera hori mantentzea baino ez zutelako nahi. Hau horrela, lege horren aldekoek iruñear mozioa eta ondoren udaletxeek babestutako mozio hori boikoteatu zuten euren irizpidea inposatuz. Horretarako, 25 pertsona esanguratsuk sinatutako mozio bat aurkeztu zuten.

Jose Maria Jimeno Juriok bi mozioen ideia nagusiak bildu eta hauen arteko konparaketa bat egiten du. Udaletxeen mozioak ondorengoa dio: «Reclamar más amplia autonomía para Navarra, mediante la derogación de la Ley de 1839 y restauración de organismos y fueros navarros. Manteniendo la unidad con España, colaborar con Vascongadas para recabar los derechos privativos»; eta 25en talde horrek aurkeztutakoak, oster, ondorengoa: «Integración de facultades forales, partiendo del régimen actual (Ley Paccionada de 1841), mediante derogación de todas las leyes opuestas a las facultades forales, sin quebranto de la unidad de España». Itxuraz, mozio biak bat zetozen. Baina eztabaidatutako eta azkenean onartutako 25en proposizio horretan dauden baieztapenak tranpa bat ziren. Mozioaren testua irakurriz, sinatzaileen mintzaldiak entzunda eta ondoren izan zuten jarrera ikusita, talde horren benetako asmoa 1841eko egoera mantentzea zela ondorioztatzen du Jimeno Juriok, 1839ko urriaren 25eko Legea ezabatzeko inolako asmorik gabe, eta horrela, «partiendo del regimen juridico actual», hots, 1841ko Legeak ezarritako egoera horretatik aurrera ahalik eta foru- eskumen gehien berreskuratzea. Legeen abolizioari egindako erreferentziak erretorikoak baino ez ziren izan, Iruñeako mozioak eta herriek babestutako horren kontrako jarrerak erakusten duen moduan. Izan ere, honetan bai eskatzen da argi eta garbi 1839ko Legea deuseztatzea.

Victor Praderak, Gorteetako diputatu karlista izandakoak, foruen berrezartze hori zalantzan jarri zuen Asanbladan, horretarako argudio ekonomikoetan oinarrituz. Bere ustez Nafarroa ez zegoen prest lehengo egoerara bueltatzeko. Horri hiru probintzien eta Nafarroaren arteko ezberdintasunak gehitzen dizkio eta gogora ekarri zuen hauek ez direla beti ondo portatu Nafarroarekin. Jimeno Juriok Victor Praderaren lana gogor kritikatzeko du: «realizó una labor demoledora, empleando toda clase de argucias y sofismas, (...) De entrada, dijo a los representantes populares: <<Demostraré que vuestra posición es antiforal sencillamente>>. Admitiendo que <<hay que pedir la reintegración foral>>, dedicó su disertación a desorientar a los navarros, alegando no ser estos momentos oportunos

<sup>45</sup> JIMENO JURIO, Jose Maria, *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*, Txalaparta, Tafalla, 1997; 48-56. orr.

para este tipo de reivindicaciones. Idéntico argumento empleará catorce años más tarde y siempre. Dar largas a soluciones autonomistas, con el fin de seguir manteniendo la situación cuarentaunista, el viejo fuero clasista, ha venido siendo la treta típicamente integrista, que siempre ha tenido éxito en la política Navarra»<sup>46</sup>.

Azkenean, Victor Praderaren argumentuak nagusituko dira eta 25ek aurkeztutako mozio anbigua onartu zen. «Tres horas y media duró la sesión (...) en que no se oyó la voz de un solo concejal de los 350 procedentes de los pueblos. (...) El drama del pueblo navarro, económicamente subdesarrollado y políticamente inmaduro, estaba en la manipulación de que era objeto por quienes, representándole (?) en la Diputación, en las Cortes Constituyentes y en el Senado, asfixiaban las justas demandas de libertad y soberanía defendidas desde la primera guerra carlista, y le engañaban con la muleta roja de la bandera <<Navarra sola>>, desvinculada de Euskal Herria, recabando para la <<provincia foral>> más <<facultades forales>>, pero dejando lo intangible, como un dogma político, como esencia frontal del Fuero (...) el Pacto-Ley de 1841».

Bereziki gogor agertzen da Mikel Sorauren Praderak 1918an izan zuen jarrerarekin: «sorprende que se pueda argumentar de una manera tan retorcida y sin embargo simplista. De lo único que dio muestras este personaje fue de su capacidad de manipulación, lo que ha sido característica de los dirigentes derechistas navarros hasta nuestros días, porque en lo demás no hay sino una ignorancia supina de la Historia de Navarra y de la de Europa en general»<sup>47</sup>.

Victor Praderak ezin izan zuenez foruen berrezarkuntza exijitzen zuen proposamen horren aurka joan, honek izango zituen eragozpenak zerrendatu zituen. Esaterako, 1839 baino lehenagoko egoerara bueltatuz gero, Nafarroako Gorteak berrezarriko ziren, baina hauek zuen konposaketa estamentalak – tartean, espainiar koroak ez baitzuen hauen modernizazioa ahalbidetu – XX. mende horretako gizarte modernoaren gobernatzeko desegokiak zirela esan zuen Praderak; batez ere Gortea osatzen zuen alde eklesiastikoa izan zuen bere kritiken jomuga, oso datu deigarria hau Soraurennek dioen moduan, kontuan hartzen badugu Praderaren izaera ultrakatolikoa. Hau eta Victor Praderak argudiatutakoak gogor salatzen ditu eta emandako argudioen kontraesanak azaleratzen ditu: «Resulta indignante la actitud de este personaje, precursor ideológico de los pseudo-navarristas de hoy, por el cúmulo de despropósitos que recogió en aquella memorable ocasión. Él, que aceptaba el sistema electoral español (...) y un Senado elitista del que formaban parte (...) no podía soportar los tres brazos de las Cortes de Navarra. En realidad Víctor Pradera engañaba a los representantes navarros al ocultar la posibilidad de una asamblea constituyente que (...) pudiese solventar el problema (...) sustituyendo los estamentos por una única cámara y adoptando el modo de representación más idóneo».

Lehen esan bezala, Praderak zioenez Nafarroa Erreinu bat izatera bueltatzea sostengaezina litzateke ekonomikoki, nafarren luxu eta handikeriari erreferentzia egiteraino. Puntu hau ere ukatu egingo du Soraunerek erabat: «En efecto, es de una ignorancia supina aludir a la tendencia al fasto de los navarros. Durante cuatro siglos el Reino, a partir de la conquista, fue capaz de mantener una administración ejemplar,

<sup>46</sup> JIMENO JURIO, Jose Maria, *Navarra jamás dijo no...*, 55. orr.

<sup>47</sup> SORAUREN Mikel, *Historia de Navarra...*, 358. orr. eta hurrengoak.

que llegó a ser la admiración de los territorios que nos rodeaban, con una deuda pública saneada, frente a la bancarrota permanente de la estatal. Los mismos liberales navarros (...) elaboraron precisos informes a las autoridades del Estado en los que resaltaban la eficacia de la administración, por economía de medios y rigurosa gestión de los recursos...».

Asanbladaren emaitzaren inguruan egiten duen gogoeta Jimeno Juriok egindakoarekin konparatuz gero, antzekotasunak identifika ditzakegu: «Lo verdaderamente dramático de la coyuntura histórica que se comenta, lo constituye la manipulación que ejercieron Víctor Pradera y sus adláteres, ante la ingenuidad de un pueblo al que una vez más se le tergiversa la realidad histórica con el fin de mantenerlo sometido a unos intereses espurios e inconfesables (...) En contra de toda lógica (...) los caciques manipuladores impusieron la definición en exclusiva sobre su propuesta, que en el mejor de los casos resultaba ambigua».

Praderaren planteamendua esanguratsua da oso, kontuan hartzen badugu Errejimen Zaharrera bueltatzea utopiatzat jotzen duen hau dioena ez dela liberal bat, karlismotik zetorren tradizionalista bat baizik. Aipatu bezala, XX. mendearen hasieran nabarrismo kontserbadore hori XIX.eko nabarrismo liberalak defendatzen zituen tesietara hurbiltzen hasiko da, eta 1918. urteko Asanbladan gertatutako da horren adibiderik argiena. Iruñeako udaletxeak aurkeztutako mozioaren defendatzaile bakarra Manuel de Aranzadi nazionalista izango da, Praderarengan gorpuztutako nabarrismo kontserbadore berri hori eta jatorrizko nabarrismoaren ildo jarraituko duen nazionalismoa – eta bestalde, karlismoaren zati bat – aurrez-aurre jarritz. Nabarrismo berri horrek historikoki izan duen euskaltasuna mantenduko du baina hau apaltzen joango da denbora aurrera joan ahala.

Esandako hau baieztatu egiten du Fernando Mikelarenak: «El proceso autonomista del 1917-1918 desembocará en la asunción explícita y rotunda de las posiciones cuarentaiunistas por parte de las derechas navarras, en especial de los conservadores y del sector praderista del tradicionalismo, así como en un progresivo alejamiento de esos sectores de las manifestaciones vasquistas. La intervención de Pradera en la Asamblea de Pamplona de 1918 y los comentarios de Raimundo García “Garcilaso”, director del Diario de Navarra, a lo largo de los años 1917 a 1923 en contra del nacionalismo vasco y el socialismo y en defensa del orden social y de la españolidad de Navarra y en los que las alabanzas a Euskal Herria y al euskara se hacen cada vez más excepcionales y tibias, son los ejes de la conformación final de ese navarrismo conservador»<sup>48</sup>.

## **2. ATALA. Nabarrismoa Errepublika garaiko Estatutu prozesuaren aurrean**

### **2.1. Errealitate berria. Hego Euskal Herriko testuinguru politikoa**

Primo de Riveraren diktadura bukatzean egin ziren monarkia berrezartzeko ahaleginen ostean, II. Errepublika aldarrikatu zen azkenean Espainian. Errepublikaren ezarpenak espainiar sistema politikoaren berrantolatzea ekarri zuen, une horretako errealitate politikora moldatzera bidean. Hau argi geratu zen jadanik Donostiako Itunean 1930eko abuztuaren 19an, monarkiaren aurkako oposizioa aurkeztean.

<sup>48</sup> MIKELARENA Fernando, Identidad e ideología en Navarra..., 29. orr.

Donostiako Itunak, *de facto*, Kataluniaren burujabetza planteatzen zituzten mugimenduen aitortza suposatu zuen espainiar indar errepublikarren aldetik. Ez da Itun honen testigantza idatzirik existitzen, baina indar errepublikar kataluniar eta espainiarren arteko konpromisoaren lekuko izan zen, errejimen aldaketaren aldeko borrokan eta behin Errepublika ezarrita, Kataluniaren izaeraren aitortzan oinarritua. Kataluniar herriaren autodeterminazioa oinarri hartuta, aitortza hau kataluniarrek eurek landutako Autonomia Estatutu batean gauzatuko zen, azkenik Gorte Konstituziogileetan aurkeztu eta berretsiz. Irtenbide autonomiko hau bestelako eskualdeei ere zabaldu zitzairen, baldintza konkretu eta zorrotzak betez gero. Autonomia eskaintzea izan zen, beraz, errealitate politikoari eman zitzaion erantzuna, nahiz eta honek bestelako atek ixtea suposatzen zuen, tartean federalismoarena. Kataluniak ez bezala – han behin-behineko Generalitatea lortu zuten –, 1931n euskal lurraldeek ez zuten autonomia aurreko inolako organismo edo erakunderik lortu, ez eta adostasunik ere Estatutuaren proiektua idazterakoan, lehian ari baitziren Gobernuak izendatutako probintzietako Foru Aldundietan agintzen zuten ezkertiarak – bertan errepublikarrak, sozialistak eta EAE-ANVko partaideak zeuden –, eta udal gehienen kontrola zuten eta aurreragoko Alkateen Mugimendua bultzatu zuten eskumako eragileak, *Comunión Tradicionalista* eta EAJ<sup>49</sup>.

Primo de Riveraren Diktadura bukatzean, honetan parte hartu eta honi lagundu ziotenak salatzeke errebisio politiko bat eman zen Nafarroan. Kritikan gogorrenak nazionalisten eta errepublikarren eskutik etorri ziren, logikoki. Oso kritikatu izan zen, besteak beste, *Diario de Navarra* egunkaria, diktadura onetsi, toleratu, eta berarekin elkar adituz ibili zela aurpegiratuz. *La República* astekari iruñearrak, zehazki, interes pribatuak babestearren izpiritu nabarrista erailteza leporatu zion<sup>50</sup>.

Nafarroari dagokionean, normalean II. Errepublikako 1931-1932 urteetan bizi izandako eta aztertzeraz goazen estatutu-prozesuari bi ardatz egotzi zaizkio: lehenengoa Nafarroa eta gainontzeko euskal probintziak osatuko luketen estatutua izango litzateke, eta bigarrena, Nafarroarentzat eredu desberdindu bat defendatuko lukeena. Eta halaxe izan zen azaletik begiratzen badugu, baina zehaztasun gehiagoz hitz eginez gero, aitortu beharra dago eztabaida ez zela bi horietara mugatu. Nafarroa alde batera uzteko asmoa zuen aukera horren barruan ere beste bi bide desberdin zeuden: bata, 1841etik indarrean zegoen *status quo* hori mantentzearena, eta bestea, entitate autonomiko berri bat eraikitzearena ordura arteko eredu tradizionala hautsiz, probintzia bakarreko autonomia estatutu baten bidez. Aipatzekoa da bigarren honek aukera gehiago eskaintzen zituela konpetentzia edo eskumenen arloan ordura arteko eredu tradizionalak baino.

Autonomia Estatutuen auzi honetan alderdi ezberdinak izango dira

<sup>49</sup> DE LA GRANJA, Jose Luis, DE PABLO Santiago (koord.), *Laurak bat. Euskadi eta Nafarroa XX. mendean*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Leioa, 2010; 68. orr.

<sup>50</sup> Horrela dio testuak: «Ha(bi)a matado el espíritu navarrista, recomendando prudencia y quietud, en los días en que se infirió a nuestro derecho foral la terrible puñalada que hoy le tiene postrado de muerte... no le bastó tener una Diputación sumisamente adicta durante la Dictadura y una representación en la Asamblea Nacional que a ninguna entidad más que a él le fue concedida, sino que ahora pretende derrocar a la actual Diputación, porque no se aviene a sus designios»; GARCÍA SANZ MARCOTEGUI Angel, IRIARTE LOPEZ Iñaki, MIKELARENA PEÑA Fernando, *Historia del navarrismo...*, 283-284. orr.

protagonista. Euskal politikagintza hiru alderdi nagusitan oinarritzen zen batez ere: *Comunión Tradicionalista*, EAJ eta ezkerrekoak alderdiak – sozialistak eta errepublikarrak tartean –. Baina bakoitzaren sustraitzea ezberdina eta irregularra zen lau probintzien artean: *Comunión Tradicionalista* nagusi zen Araban, EAJ Bizkaiko eta Gipuzkoako eremu handi batean eta ezkerreko indarrak kostaldeko bi probintzi hauetako industria-hiriguneetan, batez ere Bilboko barrutian. Nafarroan, ordea, eskuma hegemonikoa zen, nazionalismoa eta langileen mugimenduaren ahuleziaren aurrean. Izan ere, gizartea oraindik tradizionala zen bertan – Araban gertatu bezala, Bizkaia eta Gipuzkoa aurreratukoak izanik zentzu horretan – eta landatarra ia bere osotasunean, industrializazio falta zela medio. Hala, karlismoa eta nazionalismoa izan ziren Hego Euskal Herriko alderdi-sistemaren bereizgarri nagusiak, Espainiakoarekin alderatuta. Espainian, euskal indar politiko nagusiak ez ziren existitzen (EAJ), edo ez zuten ia eraginik (*Comunión*). Honek, dudarik gabe, euskal probintziak era argian desberdindu zituzten gainontzekoetatik eta nahiz eta Estatu espainiarraren bilakaeraren arabera garatu zen, euskal lurraldeetako politikak bere ibilbide propioa edo bereizia egin zuela esan dezakegu. Errepublika garaian, EAJk gehiengo izan zuen Gipuzkoan eta Bizkaian, eta karlismoak, Araban eta Nafarroan. Alderdien indar maila ezberdinen dinamika honetan bazegoen bestelako elementu bereizgarrikerik ere, tartean, eskuin nabarrista baten existentzia, eta alderdietatik independentea zen katolikotasun politiko bat, *Diario de Navarra* (Iruñean), *La Gaceta del Norte* (Bilbon), eta *El Pueblo Vasco* (Donostian) egunkariaren jabe, eta beraz, hautesleengan eragin zuzena zeukana<sup>51</sup>.

Jakina denez, II. Errepublika ez zen kronologikoki oso garai luzea izan, baina indarrean egon zen 5 urteetan Hego Euskal Herriko bizitza politikoa goitik behera astindu zuen, aldaketa ugari eta sakonak ekarriz. Zehatzago hitz eginez, XX. mendera arte heldutako identitate eta ideologia eredu ezberdinak nahastu, alendu, hurbildu eta kasu batzuetan desagerraraztera iritsi ziren aipatu garai honetan.

Nabarrismoaren bilakaera Estatutuaren auziaren testuinguruan ulertu behar dugu, hau izango baita nafar politikagintzaren ardatza II. Errepublika garaian. Estatutuaren aurrean bere lekua hartzen joango da nabarrismoa, aurrerago aipatutako 1917-1918. urteetan izan zuen azken aldaketaren ondoren. Kontraesan horiek areagotu egin ziren 30. Hamarkada bukaeran begien zaigun nabarrismo kontserbadorea eta mende hasierakoa kontrajarriak izatera helduz aspektu gehienetan.

## 2.2. Errepublikako Estatutu prozesua

### 2.2.1. Lizarrako Estatutua

Errepublikaren ezarpenak esanahi ezberdina izan zuen sektore politiko bakoitzarentzat. Eskuma monarkiko eta katolikoak atsekabeturik zeuden Alfonso XIII.a erregearen alde egitearekin eta aldaketa politiko eta sozialen beldur ziren. Errepublikar eta sozialistek, ostera, eraldaketa demokratikoa eta arlo sozialean lan egiteko asmoak zekartzaten, eta nazionalistek, autonomia lortzeko aukerarekin lotu zuten Errepublika. Hori horrela, aldaketa politiko eman eta ia berehala Euskal Errepublika ezartzea ere aldarrikatu zuten, Bartzelonan Maciák egin bezala, *Estat*

<sup>51</sup> DE LA GRANJA, Jose Luis, DE PABLO Santiago (koord.), *Laurak bat...*, 59 eta 62. orr.

*Catalá* aditzera emanaz. Jakina denez, ez zen Euskal Errepublika sortzea lortu baina EAJk azkar bultzatu zuen autonomia lortzeko bidea<sup>52</sup>.

1931ko apirilaren 17an EAJk Bizkaiko alkate eta zinegotziak deitu zituen Gernikara, baina Alcala-Zamoraren Gobernuak debekatu egin zuen batzarra. Hau zapuztu izanak ez zuen, aitzitik, nazionalisten manifestuaren hedapena ez eta Alkateen Mugimendua bezala ezaguna egingo zen ekimena abian jartzea zapuztu. Horrela, buruzagi nazionalistek onartu egin zuten ahaldun bizkaitarren manifestua, eta honen bidez errejimen berria onestea eta Espainiako Errepublika Federalari atxikitako euskal gobernu errepublikarra ezartzea defendatzen zuten. Jose Antonio Agirrek zinegotzi nazionalistak zuzendu zituen aipatu mugimendu honetan eta autonomiaren aldeko kanpaina bati ekin zioten.

Euskal eremuko ezkerak, bestalde, gaindituta ikusi zuen bere burua nazionalistek autonomiaren aurrean hartutako jarrera zela medio, eta nahiago izan zuen asmo hauek alde batera utzi eta Errepublika sustraitu edo egonkortzearen alde lan egin beste edozein eskakizuni erantzun aurretik. Gauzak horrela, gai honen inguruan euskal indar politiko nagusien batasun ezak ez zuen batere lagundu autonomia eskariak lortzerako orduan. Errepublika egonkortzeaz gain, errepublikar eta sozialistek Agirrerri jarraitzeari uko egin zioten ez zutelako ahantzi oraindik nazionalisten mesfidantza Donostiako Itunera batzerako orduan, funtsean, ez ziren jeltzaleen Errepublikarekiko fideltasunaz fio<sup>53</sup>.

Desberdintasunak desberdintasun, orokorrean alderdi politiko eta erakunde guztiek onartu zuten Eusko Ikaskuntzaren lidergoa estatutu-testuaren erredakzioan, bere alderdiez gairagatik eta legegintza kontuetan zuen esperientzia handiagatik. II. Errepublika heltzeak, Eusko Ikaskuntza lehenagotik foruen berrezarkuntzari eta autonomiari buruz egiten ari zen lanen bizkortzea ekarri zuen. Lan hauek, Autonomia Estatutu baten elaborazioan zehaztu ziren azkenik, EAJk zuzenduriko Alkateen Mugimenduak eskatuta. Virginia Tamayo Salaberriaren arabera, alderdi nazionalistak Hego Euskal Herriko eskuma eta ezkerre erakar zitzakeen Estatutu bat nahi zuen, eta horrez gain, egitura federala zuena, Nafarroako eta Arabako zenbait sektoreen mesfidantzak ekidite aldera<sup>54</sup>.

Proiektuaren izaera anitzaren adierazle da Eusko Ikaskuntzak lau probintzietako pertsonaia esanguratsuei autonomiaren inguruan galdegin izana, eta gehientsuak lau probintzien federazio bidezko autonomiaren alde azaldu ziren. Victor Pradera izan zen kontra azaldu zen bakarrenetarikoa. Autonomia terminoa arriskutsua iruditzen zitzaion, eta proiektu komun honen inguruan zuen iritzia azaltzerakoan, euskal etniaren inguruko argumentuak eman zituen: «No puedo en modo alguno dar por afirmada la personalidad vasca en su unidad étnica y espiritual: porque las personalidades sociales son históricas y en la historia no se nos presenta una sola personalidad vasca sino varias»<sup>55</sup>.

<sup>52</sup> MONTERO Manuel, *Historia General del País Vasco*, Txertoa, Donostia, 2008; 431. orr.

<sup>53</sup> AZCONA PASTOR Jose Manuel, GORTARI UNANUA Joaquín; *Navarra y el nacionalismo vasco. Ensayo histórico-político sobre las señas de identidad originaria del Viejo Reino*, Biblioteca Nueva, Madril, 2001; 71. orr.

<sup>54</sup> TAMAYO SALABERRIA, Virginia, *La autonomía vasca contemporánea. Foralidad y estatutismo (1975-1979)*, Instituto Vasco de Administración Pública=Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Oñati, 1994; 120. orr.

<sup>55</sup> ESTORNES ZUBIZARRETA Idoia, *La construcción de una nacionalidad vasca. El autonomismo*



Eusko Ikaskuntzak sortutako testuari erreparatuz, Gregorio Monreal Ziarentzat aurreko foru garaiarekin apurtzen du erabat, eta gertakari iraultzailea da Historia Garaikidean euskal herritargoaren eboluzio politikoan bere 1. Artikuluan ondorengoa aipatzean: «El País Vasco, integrado por las actuales provincias de Álava, Guipúzcoa, Vizcaya y Navarra, constituye una entidad natural y jurídica con personalidad política propia y se le reconoce, como tal, el derecho a constituirse y regirse por sí mismo como Estado autónomo, dentro de la totalidad del Estado español en el que vivirá articulado, conforme a las normas de la Ley de Relaciones que se concierte»<sup>56</sup>.

Lizarrako Estatutura eramán zuten bideak aurrera jarraitu zuten Alkateen Mugimenduarekin. Autonomia prozesu honetan udaletxeen parte hartzeak bertako udal-tradizio politikoari erantzun zion hein baten, baina protagonismo politikoa izan zuten, batez ere, Diktadura ostean udaletxeak eurak zirelako ordezkari-erakunde bakarrak. Era horretan, euskal nazionalismoak prozesu politico honetan indar handiz sartzea lortu zuen, presentzia handia baitzeukan udaletxeetan. Nafar udaletxeei dagokienez, hauetariko kopuru handi batek – asko, eskuma tradizionalista edota eskumarekin lotutako independenteak agintean zeudenak – foruen berrezarpena eta Euskal Estatutuaren aldeko manifestu, aldarrikapen eta atxikimenduak plazaratu zituzten. Lehen esan bezala, Eusko Ikaskuntzak burutako idazkiak izaera konfederal oso markatua zuen, eta helburua nazionalismoa gutxiago hedatua zegoen lurraldeak – Araba eta Nafarroa alegia – eroso sentiaraztea zen, aurretik existitzen ziren foru-erakundeekiko eta lau lurraldeen parekidetasunarekiko errespetua zainduz, besteak beste.

1931ko ekainean jakinarazi zuten euskal indar politikoek Eusko Ikaskuntzaren Aurreproiektuaren aurrean zuten posizioa. Zentro-ezker indar bik baino ez zuten bere horretan onartu: EAE-ANVk eta Madariagaren lidergoan zegoen Alderdi Errepublikarrak. Eskumako alderdiek (EAJ eta *Comunión Tradicionalista*) eta ezkerak (PSOE) emendakinak sartu zituzten gai orokorretan: Estatua/Eliza arteko erlazioan, foruen berrezarkuntzan, euskararen, herri barneko antolaketan, eta abar. Ez zen akordiorik eman eta euskal batasun nazionala suposatzen zuten proiektuaren apurketa gertatu zen azkenean, Eusko Ikaskuntzaren Estatutuak indar politiko guztiak autonomiaren alde batzeko aukera galduz. Hortaz, Eusko Ikaskuntzak sortutako Estatutu hau II. Errepublikan agertuko zaizkigun hurrengo oinarri izango da: Lizarra eta Gestorena hain zuzen<sup>57</sup>.

Hau horrela, Alkateen mugimenduak Asanblada deitu zuten Iruñean, baina azkenean Lizarran ospatu behar izan zuten, karlistek, integristek eta katoliko independenteek ekitaldi masibo bat antolatu baitzuten hiriburuan egun eta leku berean, 25.000 bat pertsona batuz. Ekitaldi hau Asanbladaren egun eta toki berean deitzeak argi uzten zuen talde horien iritzi politikoak askotan kontrajarririk zeudela, eta ez zegoela jarrera finko eta irmorik Estatutuaren alde, nahiz eta ekitaldia deitu

*de Eusko Ikaskuntza (1918-1931)*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1990; 223. orr.

<sup>56</sup> TAMAYO SALABERRIA, Virginia, *La autonomía vasca contemporánea...*, 120-121. orr.; jatorrizko testua: MONREAL ZIA Gregorio, *Los vascos...*, 12-13. orr.

<sup>57</sup> *Ibidem*, 121. orr.

zuten talde horiek, printzipioz, lau lurraldeak batuko zituen erakunde politiko bat sortzearekin ados egon.

Lizarrara bueltatuz, hurrengo izan zen bilkurak eman zuen emaitza: lau probintzietako 427 udaletzek – guztira 548tik – baiezkoa eman zioten. Gehiengo oso garrantzitsua izan zen beraz, alabaina, lau hiriburuak, hiri garrantzitsuak eta populazio handiko gunek honetatik kanpo geratu ziren. Dena dela, autonomia inguruko mobilizazioak bat zetozen Donostiako Itunean ezarritakoarekin, autonomia lortzeko aukera udaletxeen esku uzten baitzuen<sup>58</sup>. Eusko Ikaskuntzaren Estatutuari emendakinak sartu zizkioten, tartean, Euskal edo Euskal-Nafar Estatutu horrek Erromarekin konkordatuak negoziatzeko ahalmena izatearena. Estatutua berrezarkuntza foralaren alternatiba bezala planteatzen zuen bide honen bilakaera zaildu egin zuen, esan bezala, lau lurraldeetako hiriburuek – denak errepublikar edo sozialistak – estatutu- kanpaina zuzentzeari uko egiteak. Horren ordez, alderdi sozialistak, errepublikarrek eta ANVk kontrolatutako Gestora probintzialen ekimena babestea erabaki zuten lau hiriburuek, alkateen mugimenduaren pareko bidea eginez<sup>59</sup>.

Karlistei dagokienez, Lizarrako Estatutua onartu zuten baina ez horrenbeste euskal aberriaren egikaritzea bilatuz, baizik eta Espainia Errepublikaren atzaparretatik salbatzeko asmoz. Lor zitekeen Autonomia Estatutuari esker, Errepublikaren politikatik salbu legokeen Euskadi horretan indartsu egiteko esperantza zuten. Aitzitik, autonomiaren inguruko hausnarketa hau ez zihoan karlismoaren ideologiaren kontra, tradizionalki Foruen defentsa aldarrikatu izan zuelako beti, eta autonomiak bazuen horiekin loturarik. Dena den, 1931ko Gorte Konstituziogileetarako hauteskundeetan Lizarrako Estatutua defendatzen zuten indar nazionalista eta tradizionalistek izandako garaipenaren ostean, alderdi hauetako agintari batzuk Donostian bildu ziren “Euskal-Nafar gutxiengoa” – *Minoría vasconavarra* gazteleraz – osatzeko, Joaquin Beunzak zuzenduta eta Agirre idazkari gisa izanik. Talde hau osatu zuten 14 partaideek, erlijio-ereduak, foruen berrezarkuntza osoa eta egonkortasun sozialaren mantentzea – klase borrokari kontrajarririk –, katolizismo integristaren defentsa – egonkortasun sozial hori bermatzeko beharrezko ideologia zena, bestalde – eta Euskal Estatutuaren defentsa zituzten xede. Beraz, indar politiko horietako bat interesatuago zegoen Euskadiren burujabetza lortzean, eta bestea euren antierrepublikanismoagatik, hegemonia politikoa ziurtatuko zien Autonomia Estatutu zabal bat lortzearen alde zegoen. Horrekin batera, prozesu konstituziogilean parte hartzeko interesa zuten biek ala biek, errepublikar eta sozialisten ideien aurka jarduteko. Bi indarrak hurbiltzea ekarri zuen honek<sup>60</sup>. Baina hala eta guztiz ere, desadostasun garrantzitsuak existitzen ziren euren artean eta homogeneotasun politiko gabezia honek gutxiengo horren iraupen laburra aurreikusten zuen, azkenean urtebetez baino ez zuen irautea lortu.

Bien bitartean, Alkateen Mugimenduarekin paraleloki hasitako bideak ere aurrera egin zuen. Errepublikarrek eta sozialistek kontrolatutako Gestora

<sup>58</sup> GARCIA DE CORTAZAR Fernando, LORENZO ESPINOSA Jose Maria, *Historia del País Vasco*, Txertoa, Donostia, 1994; 211. orr.

<sup>59</sup> FERRER MUÑOZ Manuel, *La cuestión estatutaria en Navarra durante la segunda república*, 197. orr.

<sup>60</sup> ESCUDERO Manuel, VILLANUEVA Javier: *La autonomía del País Vasco desde el pasado al futuro*, Txertoa, Donostia, 1976; 25-26. orr.

probintzialesk estatutu proposamenak bultzatu zituzten, Nafarroa hegoaldeko udaletxeen babesa jasoz. Hauek Estatutu proiektu bi jarri zituzten mahai gainean: euskal-nafarra eta nafarra, soilik. Horrela, Nafarroako Diputazioko Gestorak ere udaletxeak deitu zituen 1931ko abuztuaren 10ean eta gehiengo zabal batek Euskal-Nafar Estatutuaren alde bozkatu zuen.

Errepublikar Gobernuak ez zuen Lizarrako Estatutua onartu. Honen arrazoia, edo aitzakia, aurreikusten zen Konstituzioaren izpirituaren aurka joatea izan zen. Estatutu honen defizit demokratikoak alde batera utzita, ez zen erreza ezkerreko gehiengo zabala zuen Parlamentu batek gehiengo horren oinarriko printzipioen aurka zihoan Estatutu proiektu bati baiezkota ematea; eta are gehiago, kontuan hartzen badugu euskal eremuko ezkerrekin adostu gabekoa zela, eta bai errejimenaren arerio nagusietako bat ordezkatzan zuen tradizionalismoaren babesa<sup>61</sup>.

II. Errepublika honen Konstituzioa 1931ko abenduaren 9an jaio zen. Berarekin, federalismoaren inguruko itxaropen eta espektatiba guztiak desagertu egin ziren figura konstituzional berri bat eraikitzean: autonomismo erregionala. Errejimen hau, Estatu unitario zentralistaren eta Estatu federalaren tarteko bezala kontsidera dezakegu. Errepublikar Konstituzioan, Estatu “integral” bezala definitzen da hau, baina erregioen eta herrien autonomiarekin bateragarria<sup>62</sup>. Hala ere, nabarmentzekoa da azkenean autonomia lortu zuten erregioetan onartutako Estatutuen artean eta Gorteek aldatu, ebaki eta ondoren onartu zituztenen artean alde handia egon zela, azken hauek askoz ere mugatuagoak baitziren.

Hau horrela, 1931ko abenduan onartutako Konstituziora moldatutako estatutu-proiektu berri bat sortzeko prozesuari ekin behar izan zitzaion berriro ere. Horretarako, Azañaren gobernuak Estatutua lortzeko egin beharreko bidea zehaztu zuen dekretu baten bidez. EAJk bide hori ontzat eman zuen, baina karlismoak ez, eta une honetatik aurrera Errepublika behera botatzeko konspirazioetan murgildu zen. Izan ere, behin Lizarrako Estatutuak Errepublikaren legedi antiklerikalaren aurrean babesteko neurri eta errejimenaren aurka joateko tresna izateari utzi zionean, eskuineko alderdien artean autonomismoaren aurkako jarrera areagotzen joan zen. Eskuma, foruak eta Estatutua kontrajartzera heldu zen eta horrela agerrarazi zituen gizartearen aurrean, Estatutuak porrot egin zezan eta horrela errejimena egonkortzeko oztopo eta zailtasun gehiago jarritz<sup>63</sup>.

Abenduaren 8an Gobernuak Estatutuak aurrera eramateko jarraitu behar ziren arauak ezarri zituen. Lau euskal probintzietako Diputazioei dei egin zien estatutu bat sortzeko lanen gidaritza har zezaten, hala nahi izanez gero. Gainera, estatutuaren lanak hasi baino aurretik probintzia guztiek onartu beharko zuten, berriro ere, estatutu bakarraren alde zeuden ala, aitzitik, lurralde bakoitzak berea garatzea nahiago zuen, kontuan hartu gabe 1931. urte horretan argi eta garbi adierazitako Euskal-Nafar Estatutu bateratua izateko nahia.

### **2.2.2. Gestoren Estatutua**

<sup>61</sup> DE PABLO Santiago, MEES Ludger, *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco (1895-2005)*, Crítica,artzelona, 2005; 126. orr.

<sup>62</sup> ESCUDERO Manuel, VILLANUEVA Javier: *La autonomía del País Vasco...*, 10. orr.

<sup>63</sup> DE LA GRANJA, Jose Luis, DE PABLO Santiago (koord.), *Laurak bat...* 66 eta 69. orr.

1931ko abenduan bertan, lau probintzietako Gestoren Batzordeen ekimenak bultzatuta estatutu prozesuari hasiera eman zitzaion berriro ere, udaletxeen Asanbladak deituz lau hiriburuetan beste behin ere. Asanblada hauek 1932ko urtarrilaren 31n ospatu ziren eta lauretan nagusitu zen berriro ere baiezkoa. Hau da, Nafarroak hirugarren aldiz – Lizarrako Estatutua eta Gestorek proposatutakoaren ostean – bozkatu zuen Euskal Estatutu bateraturen alde.

1932ko urtarrilean Nafarroaren emaitza ondorengoa izan zen: 160 udaletzek (209.479 biztanle ordezkatzzen zituztenak) Euskal-Nafar estatutuaren alde egin zuten eta 36k Nafar Estatutuaren alde (28.891 biztanlerekin); 21 udaletxe, ordea, (66.553rekin) edozein estatuturen kontra azaldu ziren, 12 (20.044rekin) abstenitu egin ziren eta, azkenik, 39 udaletzek ez zuten ordezkariarik bidali asanbladara. Euskal-Nafar estatutua berriz izan zen nagusi, baina oraingo Asanbladan beste neurrikerik ere onartu zen. Estatutua onartzeko, sortzera zihoan eskualde horretan boto kopuruen bi herena lortzea ezinbesteko baldintza zen. Baina Emilio Azarolak, Santestebango alkate erradikal-sozialistak, baldintza hau sortzear zegoen subjektu autonomo horretan aplikatzeaz gain, Nafarroan ere aplikatzea eskatu zuen. Honek batzera zihoazen lau lurraldeetariko batean baldintza berezi bat inposatzea suposatzen zuen.

1932ko Asanblada honen inguruan, Jose Mari Esparzak Santiago de Pablaren hausnarketak biltzen ditu, eta azken honek onartu bezala, Nafarroari Euskal-nafar Herriaren – *País Vasconavarro* darabil gazteleraz – parte izan nahi zuen ala ez galdetu zaion aldi bakarra izan zen hura, eta nafar udaletxeen gehiengo zabal batek baiezko erantzuna eman zion, proiektuaren inguruko zalantzak izan arren<sup>64</sup>.

Hurrengo hilabeteetan Gestorek eta udaletxeetako ordezkariak izendatutako komisiok proiektua lantzeari ekin zion, 1932an Iruñean ospatuko zen udaletxeen Asanbladak berretsi zezan. Proiektu honetan aurreko urtean idatzitakoen eredia nabaria zen. Berritasunik bazegoen, ordea, tartean organo legegilearen konposizioa: aurreko estatutu-proposamenetan nabaria zen lau probintzien arteko parekidetasun horretatik erregimen proportzional batera igaro zen, probintzien arteko presentziaren oreka hautsiz; horrez gain, Garcia-Sanz Marcoteguik, Iñaki Iriarte Lopezek eta Fernando Mikelarena Peñak hezkuntza eta lurraren jabegoaren gaineko erreferentzien garrantzia azpimarratzen dituzten euren lanean, nahiz eta euren esanetan, autore batek ere ez duen kontuan hartu<sup>65</sup>. Horrez gain, garrantzitsua da gogoratzea 1931-1932 urteen artean proposatutako lau estatutu-proiektuekin kompetentzia maila altua lor zitekeela, 1841eko Hitzarturiko Legeak ezartzen zuena baino askoz ere altuagoa.

### **2.2.2.1. Indar politikoaren jarrera Gestoren Estatutuaren aurrean**

Estatutu komunaren aurka egindako oposizioaz hitz egitean, Jose Mari Esparzak dioenez oposizio hau ez zen egin, horrenbeste, euskal batasuna zalantzan jartzen zuten argumentuak erabiliz – aurretik egindako kontsultetako emaitzetan argi ikus daitekeen moduan –, koiuntura politikoaren araberrako arrazoiak erabiliz baino. Tartean, tradizionalismoaren sektore batzuentzat Estatutu hau laikoa eta Elizaren

<sup>64</sup> ESPARZA ZABALEGI Jose Mari, *Mapas para una nación*, Txalaparta, Tafalla, 201; 171. orr.

<sup>65</sup> «Otros aspectos novedosos de este proyecto de Estatuto son los referidos a la educación y al trabajo y a la propiedad de la tierra. Su importancia no ha sido destacada por ningún autor, pero su alcance debe ser realizado porque su carácter marcadamente progresista podría explicar las reticencias y la negativa de parte de la derecha a apoyarlo»: GARCIA, Angel, *Historia del navarrismo...*, 290. orr.

eskubideen eta Jainkoaren legeen aurkakoa zen, gorroto zuten errepublikar Konstituzioaren menpeko izateaz gain<sup>66</sup>.

1932ko ekainaren 19an ospatu zen Iruñeako Asanblada, baina garrantzitsua da batzuen eta besteen jarreraren testigantza arakatzea, horrela bakarrik lortuko baitugu Asanblada horren emaitza argitzea. Deialdi horren aurretik, indar politiko ezberdinek Estatutuaren inguruko iritzia azaldu zuten eta gehienetan barne-desadostasunak izan ziren nagusi, ondoren ikusiko dugun moduan.

Nafarroako eskumaren zati handi batek batasun proiektu hori baztertu egin zuen Estatutuaren aplikazioak Errepublika egonkortu eta honek suposa zezakeen demokratizazioaren beldur zelako. Hau gertatuz gero, Euskal Estatutua ez litzateke izango jada Errepublikari aurre egiteko instrumentu baliagarri bat, askok “Gibraltar Vatikanista” bat eraikitzearekin konparatu dutena<sup>67</sup>. Tradizionalismo nafarrak, une horretara arte defenditu zuen politika autonomikoa aldatu eta Emilio Azarolak gidatutako nafar ezkerren sektore bati batuta, Euskal Estatutuaren aurka joko du azkenean 1932an.

Ezkerrek bestelako arrazoiak izan zituen Euskal Estatutuari ezezkoa emateko. Sozialismoak penintsulan ezartzeko izan zuen eredia zela medio, mentalitate eta jardun zentralista izan zuten eurentariko gehienek, eta gehiengoa nazionalismoa eta euskaltasunaren aurka zegoen edota, oro har, euskal kulturaren edozein adierazpenaren aurkakoa zen. Horrez gain, sozialistentzat, langile klaseak bestelako arrazoi politiko batzuegatik egin behar zuen borroka, Nekazari Erreforma kasurako<sup>68</sup>. Baina goazen batzuen eta besteen planteamenduak banan banan eta sakonago aztertzeraz.

Euskal nazionalista ez zen eskumari helduz, *Comunión Tradicionalista* barruan desberdintasunak zeuden euren liderren artean. Marcelino Orejak eta Joaquin Beunzak, esaterako, aldeko iritzia zuten, baina integristen laguntza zutenak eta orokorrean Victor Praderagandik gertuen kokatzen zen sektorea aurka zeuden. Rodeznoko kondeak eta Jose Luis Oriolek, bestalde, mesfidantza agertu zuten, baina ez oposizio argi bat<sup>69</sup>. Hau horrela, alderdi honek Gasteizen 1932ko maiatzean ospatutako Euskal-Nafar Biltzarrean, afiliatuei boto askatasuna eman zien, oraintxe aipatutako joera ezberdinak kontuan hartuz. Boto askatasun honetara iritsi aurretik Estatutuaren idazketan parterik ez hartzea erabaki zuen, ilegitimotzat joz eta 1931ko Konstituzioak ezarritako errejimen laikoa eta zentralista gaitzetsiz. Ondoren, aurkeztutako proiektuaren aurrean foruen berrezartzea aldarrikatu zuen, Estatutua onartzeak aldarrikatzen zituzten eskubide horien oinarriak aldatzea suposatuko lukeela ohartaraziz. Baina aldi berean, *Comunión Tradicionalista* ez zuen egoki ikusten proiektuaren aurkako botoa proposatzea, alderdiaren zuzendaritza jakitun zelako Estatutuak onurak ere ekar zitzakeela. Beraz, anbigutasun eta boto askatasun horretan geratu zen azkenik. Hala ere, esanguratsua da karlistek foruen berrezarpena behin eta berriz aldarrikatzen jarraitu zutela estatutuaren ibilbidearen aurrean.

Karlistak ez ziren katoliko independenteak batzen zituen eskumaren sektoreak

<sup>66</sup> ESPARZA ZABALEGI Jose Mari, *Mapas para una nación...*, 172. orr.

<sup>67</sup> GRANJA SAINZ, Jose Luis de La: *El oasis vasco*, Madril, Anaya, 2007; 50. orr. eta hurrengoak.

<sup>68</sup> TAMAYO, Virginia, *La autonomía vasca...*, 130-131. orr.

<sup>69</sup> GARCIA, Angel, *Historia del navarrismo...*, 291. orr.

– 1933an *Union Navarra* sortu zuenak – ere anbiguotasuna adierazi zuen. Bere partaide esanguratsuenak, Rafael Aizpun eta Miguel Gortari Errea, Euskal Estatutuaren alde zeuden, ñabardurak eta zalantzak gorabehera. Estatutuak nazionalismorako joera zuela pentsatzen zuten, eta hori gogoko ez izan arren, euren ustetan Nafarroarentzat arriskutsuagoa zen espainiar politika orokorrarekiko dependentzia. Beste alde batetik, espainiar batasuna ez zuen kolokan jartzen eta Nafarroaren izaera ziurtatuta gelditzen zen euren aburuz.

Gerora ordea, 1933an, Aizpunek eta berak gidatu zuen *Unión Navarra* alderdiak nabarrismo politikoaren ildoari jarraitu zioten, 1841eko markoaren defentsan. Azkenik, CEDA alderdian integratu ziren, erabakia 1934eko otsailean emandako mitin baten bidez ospatuz<sup>70</sup>. Eskumaren posizioen analisia ezin azter daiteke bere prentsa kontuan hartzen ez badugu. *El Pensamiento Navarro* egunkaria, karlistek egin bezala, alderdiaren agintariek estatutuaren aurrean zuten jarreraren eboluzioaren arabera joan zen aldatzen berea.

*Diario de Navarraren* jarrera ezaguna izan zen hasiera-hasieratik, 1931ko udaberritik egon baitzen Estatutu komun horren aurka. Eskumaren anibalentzia hau ere hasieratik eman zen fenomeno bat izan zen eta ez 1932. urtera mugatutakoa. Horren froga, azkenean Lizarran antolatu behar izan zen asanblada izan zen. Lehen aipatu bezala, jatorrizko ideia Iruñean egitea izan zen, baina aldatu egin behar izan zuten egun eta toki berean katolikotasuna baieztatzea helburu zuen kontzentrazio bat antolatu zutelako karlistek, integristek eta katoliko independenteek, 25.000 pertsona inguru bilduz Lizarran asanblada ospatzen ari zen egun berean.

Prentsa bueltatuz, *Diario de Navarra* hasieratik Estatutuaren aurka azaldu bazen ere, oso idazki adierazgarriak aurki ditzakegu garai hartako aleetan. Hilario Yaben kanonigoak idatzitakoa aipatzen ari garen horren adibide argia da<sup>71</sup>. Bere hitzetan, idazki hau Nafarroako Udal asko Euskal Estatutuaren alde bozkatzeko asmoa zutela ikusi ostean idatzi zuen. Berak iritzi hau errespetatzen zuen, baina Nafar Estatutua zergatik defendatzen zuen ere azaldu zuen bertan. Estatutu bateratuaren aurkako arrazoiaren artean Nafarroaren izaera historikoa aldarrikatzen du, inoiz existitu ez den “Euskal Estatu” baten aurrean. Sakanan jaioa, bere arraza-anaiak ziren arabar, gipuzkoar eta bizkaitarrak begirunez ikusten zituen, baina hauek 1512an Albako dukeari emandako laguntza leporatzen zien eta oraindik euskal estatu bat eraiki ezina zela zioen bukatzeko. Hala ere, Euskal Herriaren – “*Pais Vasco*” darabil berak – batasun politikoa prestatzen joango litzatekeen konfederazio bat bai onartuko luke.

Eskuma tradizionalaren Errepublikarekiko oposizioa aztertzean, azpimarratzekoa da foru eta erlijioaren argumentuak erabiltzen dituela Diputazioko Gestora errepublikarren aurka. Ez zen gauza bera gertatu, aitzitik, Primo de Riveraren Diktadura garaian, une horretan eskuma tradizionalak ez baitzuen erresistentzia handirik azaldu diktadorearen eta bere errejimenaren homogenizazio ahaleginen aurrean, ez eta Diktadurak berak inposatutako diputatuen izendapenen aurrean ere. Bai egingo du, oster, Errepublikaren aurka. Foruen argumentu hori erabiliko dute Nafarroan Nekazari Erreforma Legea aplikatzearen aurka, 1841eko legera joz.

<sup>70</sup> Ibidem, 293-294. orr.

<sup>71</sup> GARCIA-SANZ MARCOTEGUI Angel, *La identidad de Navarra...*, 95-96. orr.

Errepublikara garaiko testuinguruan, ordea, katolizismoz eta espainolismoz jantzitako nabarrismo bat ezartzen joango da pixkanaka.

Alderdi errepublikar eta sozialista aipatuko ditugu ondoren. Errepublikar alderdi politikoei dagokienez, hauetan ere ikuspuntu ezberdinak egon ziren autonomia estatutuaren inguruan, eta are gehiago 1932an zehar, sektore errepublikarrek iritzi ezberdinak jarri zituztelako mahai gainean<sup>72</sup>.

Alderdi Errepublikar Autonomoaren – *Partido Republicano Autónomo* gazteleraz – organoa Lizarran onartutako Estatutuaren aurka azaldu zen, Nafarroa ekonomikoki galtzen irtengo zelakoan. Baina, beranduago, Gestoren Estatutua defendatu zuen. Idazkia nork egiten zuen arabera joera aldatu zuen beraz, eta antzeko eboluzioa izan zuen *Hoy* izeneko tuterar astekari errepublikarrak. *El Eco* hamabostekari tuterarra mesfidatiago azaldu zen, Erriberarentzat kanto independente bat proposatzeraino helduz.

Alderdi Errepublikar Erradikalak – *Partido Republicano Radical* – autonomiaren aurkako diskurtsoa izan zuen ikur Nafarroan. 1932an prentsan argitaratutakoaren arabera, EAJren nahi sezesionista, separatista eta antiespainolen aurka zegoen. Alderdi hau Euskal Estatutuaren aurka azaldu zen Araban ere, baina babestu egin zuen Bizkaia eta Gipuzkoan. Horrez gain, *La Voz de Navarra* publikatutako editorial batean alderdi honen buruzagien adierazpenei buruz hitz egin zuten, eta Espainiaren batasuna zalantzan jartzen ez bazen autonomiaren aldekoak zirela komentatzen zuten bertan.

Ezker errepublikarrean kokatutako Alderdi Errepublikar Erradikal Sozialista, Euskal-Nafar Estatutuaren aurka azaldu zen, eta Tuteran jaio zen jarrera hau hain zuzen. 1931n Iruñeak eta Tuterak Gestoren Estatutuaren aurrean izandako adostasuna 1932ko urtarrilean puskatu zen. Iruñeak bere adostasuna mantentzen jarraitzen zuen bitartean, Tuterak kontrako bidea hartu zuen, baita Nafar Estatutuaren aurrean ere. Aldaketa hau ordura arte Euskal-Nafar Estatutua babestu zuen Luis Sorianok protagonizatu zuen. Bere jarrera aldaketa Nafarroarentzat Estatutuak ekarriko zituen kalte ekonomikoetan oinarritu zuen, eta eskumak bilatzen zuen gauza bakarra Lizarrako emendakinak zirela ere esan zuen. Hala ere, aipatzekoa da alderdi berekoa zen Aquiles Cuadrak Euskal-Nafar Estatutua defendatzen zuela. Tuterak bere iritzia aldatu izanak eragina izan zuen Erriberako gainontzeko herrietan, euretariko askotan gehiengo errepublikar eta sozialisten eskuetan baitzegoen.

Josu Chuecak, *Democracia* egunkari errepublikarrean argitaratutakoak erabili ditu Estatutuaren aurkako nafar errepublikarrek euren iritzia justifikatzeko erabili zituzten argumentuak biltzeko. Honela laburbiltzen ditu<sup>73</sup>: 1) Estatutuak abian jarritako organismo politiko horretako hegemonia politikoa indar eskuindarretan egongo litzateke. Beraz, aurreikusten diren erakundeak (Diputazioak, Parlamentua, Kontseilua, ...) nazionalisten eta eskuindarren kontrolpera igaroko lirateke; laburbilduz, egunkariaren arabera errepublikarrek Estatutua babestea demokrazia eta

<sup>72</sup> Ezkerreko alderdien posizioak deskribatzeko ondorengo lanetik hartu dira erreferentziak: GARCIA, Angel, *Historia del navarrismo...*, 297-301. orr.

<sup>73</sup> CHUECA INTXUSTA, Josu, *El nacionalismo vasco en Navarra (1931-1936)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1999; 123-124. orr.

euskal izpiritu liberalaren bukaera litzateke; 2) Nafarroaren *status quo* hori mantentzearen aldeko posizioa eta Estatuarekin dituen harreman ekonomikoen mantentzea, 1831eko Legeak agindu bezala. Kupoa litzateke ardatza, eta hau ezingo litzateke aldatu ez eta “esperimentuetan” sartu beste probintzia batzuekin batuz. Ekonomikoki galdu edo irabaztearen aldeko argumentua nagusitzen da bestelako elementuak – etnikoa, kulturala, historikoa – alde batera utziz; 3) Estatutua eta Konstituzioaren eta errepublikar legalitatea aurrez aurre jartzea. Nazionalistek Estatutuari emango dioten erabilerak Konstituzioari burla egin eta honen zilegitasuna zalantzan jartzea izango da, aipaturiko euskal-nafar lurralde horretan; 4) Ezaugarri etniko eta kultural komunen gainetik, historikoki eta ekonomikoki nafarrek desberdindutako errealitatea – *hecho diferencial* aipatzen da – dute. Ez zaie komeni berezko zaizkien legeak bertan behera utz ditzakeen hiritartasun bat onartzea: «Nuestras aspiraciones se verían colmadas por un reconocimiento pleno por parte de la República de nuestra personalidad Navarra».

Era berean, Chuecak argumentazio hauek izan zuten erantzuna ere jasotzen du bere lanean. Erantzuna, arraro suertatu badaiteke ere, errepublikar alde horretatik bertatik jaso zuten, eta *Democracia* egunkarietako orrialdeen bidez hain zuzen ere. Ondorengoak izan ziren Estatutuaren alde egiteko erabilitako argudioak: 1) Errepublikako konstituzioak, eskualde ezberdinei autonomikoki antolatzeke aukera eskaintzen die, monarkiak bere historian egin ez bezala; 2) Nafarroak izan dezake, berak bakarrik, erakunde autonomiko bat, baina Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiari batuta aukera gehiago izango lituzke eskualde ekonomiko hori osatzeko. Nafarroak arazoak ditu ekonomian eta azpiegituretan eta beste hiru probintzia horiekin batuz baino ezin ditzake konpondu; 3) Estatutuak, Nafarroak duen probintzi testuinguru isolatzaile horretatik irteten eta familia tradizional gutxi batzuen menpeko diputazio ahalguztidun horrekin dituen loturetatik askatzen lagunduko du.

Alderdi politiko errepublikarren artean, *Acción Republicana* da, agian, autonomiaren alde argien azaldu zena. 1931ko uztailean jadanik, alderdiko buru zen Mariano Anso Estatutuaren alde mintzatu zen Gorteetan. 1932ko ekainean Ansok berak emandako konferentzia batean, bere eta bere alderdiaren estatutuaren aldeko borondatea adierazi zuen. Bere iritzi, nahiz eta zalantzak zor zitzakeen, Nafarroa ezin konforma zitekeen 1841eko Legearekin, nafar askatasunak elbarritu zituelako, eta horrez gain, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarekin batzeak bere izaera errespetatzen zuen.

Sozialistei dagokienez, 1920ko hamarkadaren lehenengo urteetan nafar sozialistak *Federación Socialista Vasconavarra* izenekoaren parte ziren, 1932an euren Federazio bereizia sortu arte. Hauetan ere, aldakorra izan zen gai honen aurreko jokaera. Hasieran, Lizarrakoari ezezkoa eman zioten baina Gestorena onartu. Aurrerago aipatutako Tuteraren ezezkoak eragina izan zuen Iruñeako sozialistengan. Azkenean, lau probintzien batasun etnikoa ukatzera heldu ziren 1932ko ponentzian, Nafarroan bakarrik jada oso ezberdinak ziren zonalde bi zeudela esanez, Erribera eta Mendia; eta euren lotura eta konpartitzen zituzten gauza bakarrak Diputazioa eta kupoa zirela esanez. Argumentu hau etengabe erabili zuen tuterar prentsa errepublikarrak Lizarrako Estatutuaren aurka, hegoaldeko zonalde horren sezesiorako aukera justifikatuz.

### **2.2.3. 1932ko Iruñeako Asanblada**



Horrela, Gaiarre Antzokian ospatu zen 1932ko ekainaren 19an Iruñeako Asanbladara iristen gara. Asanblada hastean, Azarolak, berak proposatu zuen eta onartua izan zen klausula ekarri zuen gogora: honen arabera, Nafarroako udaletxeen botoak aparte kontatu behar ziren eta hauen bi herena lortu behar zen proiektuak aurrera egin zezan.

Azarolak bilera etetea lortu zuen eta alkate nafarrak foruen jauregira eramán zituen. Estatuturik ez bozkatzeko eskatu ziren hauei, baina Aquiles Cuadra tuterarrak, askok alde ala kontra bozkatzeko agindua zekartela gogoratu zion. Azkenean, bozketa egitea lortu zen. Emaiza aski ezaguna da: 267 udaletxeetatik 109k baino ez zuten alde bozkatu (135.585 biztanle ordezkatzuz); 123k aurka (186.666 biztanlerekin) eta 35 (28.859rekin) abstenitu egin ziren. Gainontzeko hiru probintziek alde bozkatu zuten bitartean, Nafarroa estatutu bateratu honetatik at geratu zen une honetan.

Tentsio handiko asanblada izan zen. Irregularitasunak eta maniobrak egon ziren alkate hauetariko batzuk abstenitu eta beste batzuk ezezko botoa eman zezaten, herri bakoitzean erabakitakoari eta euren aginduari iruzur eginez. Integristen maniobrak euren helburua lortu zuten: alde batetik, diputatu karlistak ez zirelako Asanbladara joan, eta bestetik nafar herri batzuetako ordezkariak euren herrietako agindua alde batera utzi zutelako. Barbarin, el Busto, Guirguilliano, Irañeta, Mendigorria, Obanos eta Sansol herrietako ordezkariak ezetz bozkatu zuten, nahiz eta alde egiteko agindua izan; eta Artoja, Azuelo, Bakaikoa, Iturmendi, Lazagurria, Orreaga, Ucar eta Zubietako ordezkariak, nahiz eta agindu bera izan, abstenitu egin ziren<sup>74</sup>.

Jose Maria Jimeno Juriok oso ondo jorratzen du bere “*Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*” lanean 1932ko Asanblada honen inguruan gertatutakoa<sup>75</sup>. Bere ustez Nafarroak ez zion ezezkorik esan Euskal Estatutuari, bere obrako izenburuan argi eta garbi jasoz. Asanbladan irtendako emaitza ikusita, abuztuaren 2an *Acción Autonomista* elkarteak sortu zuten Iruñean, Nafarroan autonomiarekin sortutako arazo hori konpontzeko xedearekin. Honekin batera, *La Voz de Navarra* egunkariak, euskal nazionalismoaren ildokoak, bozketa honen inguruko estatistika argitaratu zuen, datu “ofizial” eta “benetakoez” osaturik. Ofizialak jada ezagutzen ditugunak izango liriteke, eta “benetakoak”, ondorengo hauek: baiezkoak 122, ezezkoak 116 eta abstentzioak, aldiz, 29.

Jose Antonio Agirreren kalkuluen arabera, eta bere hitzak erabiliz: «si las intrigas no hubieran hecho a estos apoderados infringir incluso el mandato que tenían recibido de sus propios ayuntamientos», emaitza honela geratuko litzateke: baiezkoak 127, ezezkoak 115 eta 25 abstentzio. Jose Maria Jimeno Juriok, berriz, ez die fidagarritasun osoa ematen datu hauei, baina horrek ez du esan nahi “benetako” emaitzak zalantzan jartzen dituenik, bere esanetan, Estatutu bateratuaren aldeko botoak oraindik gehiago izan zitezkeelako.

Baina ahalegin eta salaketa guzti hauek ez zuten eragin praktikorik izan eta

<sup>74</sup> TAMAYO, Virginia, *La autonomía vasca...*, 131-132. orr.

<sup>75</sup> JIMENO JURIO, Jose Maria, *Navarra jamás dijo no...*, 87 eta 107-108. orr.

Nafarroa prozesu honetatik at gelditu zen. Emaitzak bere horretan geratu ziren. Laburbilduz, ezkerak kontrolatutako 59 udaletxetik 20k alde bozkatu zuten, 27k kontra eta 12 abstenitu egin ziren; eskumaren eskuetan zeuden 208 udaletxeetatik, ordea, 89k alde bozkatu zuten, 96k kontra eta 23 abstenitu egin ziren. Beraz, Estatutuarekiko oposizioa ez zen ideologia zehatz batekin identifikatu. Baina EAJk Iruñeako Asanbladaren emaitza tradizionalisten traizio bezala hartu zuen. Manuel Irujo suminduta agertu zen eskumek izandako jarrerarekin, Estatutua Errepublikaren aurka joateko instrumentu bezala erabiltzeko aukera galduta, euren benetako aurpegi nabarrista erakutsi zutelako. Gainera, ezkerreko desengainua ere erakutsi zuen, salbuespenak salbu nafar partikulartasunaren bandera erabili zutelako. Era berean, bere alderdiarekin ere kritiko azaldu zen, bai Asanblada aurretik Nafarroarekin erakutsitako jarreragatik, baita honek izan zuen emaitza hain erraz onartzeko prestutasunagatik ere<sup>76</sup>.

Hala eta guztiz ere, Jimeno Juriok hainbat ondorio ateratzen ditu bozketa honen inguruan. 1932ko ekaineko bozketa horren balio legala kolokan jartzen du, ofizialki onartu bazen ere, emaitza zalantzarria eta moralki baliogabea izan zela argudiatuz, erabili zen sistema zela medio, nahasmena eta batez ere egon ziren presio eta mehatxuei erreparatu. Horrez gain, datu ofizialak nafar herritarren nahiaren erakusle direnik ukatzen du, nafarren iritzia benetan ezagutzeko hurrengo astebururako aurreikusita zegoen erreferendumera edo plebizitura jo behar izango zelako. Dioenez, aurretik aipatu ditugun datu “erreal” horietan oinarrituta, beraz, ezin daiteke esan Nafarroak ezezkua eman zionik Euskal Estatutuari<sup>77</sup>.

Autore asko ezezko ofizial honen zergatiak argitzen saiatu dira. Ignacio Olabari Gortazarrek, adibidez, 1932. urte hasieratik Estatutu komunaren aurkako oposizioa areagotzen joan zeel nabarmentzen du, eta honen arrazoia 1931ko Estatutuak zuen norabide konfederal hori galtzea izan zitekeela uste du. Horrez gain *Comunión Tradicionalista* barneko integristen iritzien garrantzia ere bai, Lizarrakoarekin konparatuz 1932ko proiektua laikoa eta Elizaren eskubideen aurkakoa zela uste baitzuten, eta honek jarrera aldaketa justifikatuko luke. Horretaz aparte, Garcia Sanz, Iriarte eta Mikelarenak euren lanean diotenez, normalean historialariek ez dute erreparatu edo ez diote behar bezalako garrantzirik eman estatutuaren testuak aurkezten zituen hezkuntzaren gaineko eduki progresistei, lurraren jabegoaren auziari ez eta nekazari munduko arazoei ere. Sozialistek aipatu neurri hauek gutxietsi zituzten arren, eskumako indar politikoengan nolabaiteko eragina izan behar zuten, eta are gehiago foru- berezitasunari erasotzea suposatzen zuen Nekazari Erreformaren Legea aplikatzea gogor kritikatu zutela gogora ekartzen badugu<sup>78</sup>.

Bestalde, euren ustez gutxi ikertu den beste aukera bat lau probintzien batasun politiko horrek ekarriko zuen marko instituzionala da. Euskal-nafar parlamentuan EAJk gutxituta ikusiko zuen bere presentzia eskuma eta ezker espainolisten aurrean, 1936an ez baitzuen lurralde bat ere nagusiki bere kontrolpean. Era berean, eskumak presentzia oso garrantzitsua izango zukeen, 1936an beste bloke biak argiki gaintzen zituelako Araba eta Nafarroan, parean zituen Gipuzkoan, eta Bizkaian baino ez zen azpitik geratzen. Orokorrean hitz eginda, eskuma litzateke lehen indarra

<sup>76</sup> DE PABLO Santiago, MEES Ludger, *El péndulo patriótico...*, 129. orr.

<sup>77</sup> JIMENO JURIO, Jose Maria, *Navarra jamás dijo no...*, 108. orr.

<sup>78</sup> GARCIA, Angel, *Historia del navarrismo...*, 303. orrialdea eta hurrengoak.

botoen 45,6arekin, Frente Popularrak 31,4a eta EAJk 23,0a zituzten bitartean. Hau guzti hau kontuan izanda deigarria da eskumak lau probintzien estatutuaren aldeko apustu argiagoa egin ez izana, printzipioz bere eskuetan egongo litzatekeelako beronen kontrola.

Paynek, ordea, lau faktore azaltzen ditu: Nafarroan euskal nazionalismoaren ahultasuna, Nafarroaren identitatea beste sektore batzuek ere defendatzea, ezkerren zentralismo jakobinoa eta karlisten errezeloa errepublikar errejimenarekiko elkarlanean aritzeko<sup>79</sup>.

Josu Chuecak, bere aldetik, Nafarroako errepublikarren artean zeuden kontraesanen artean ezetza defenditzen zutenen argudioak bildu ditu, *Democrata* egunkari errepublikarrean ageri bezala, orri batzuk gorago ikusi dugun moduan. Laburbilduz, ezetzaren atzean eraikitzaera zihoan entitate politiko horretako hegemonia eskumaren eskuetan erortzearen beldurra legoke, bai eta 1841etik zetorren Nafarroako *status quo* hori mantentzearen aldeko posizioa, Kupoa barne, ekonomikoki kaltegarri gerta zitekeen lurraldeen batasun horren aurrean; eta azkenik, Estatutua eta Errepublikako legalitatean bateraezintasuna.

Jose Maria Jimeno Juriok bestelako ikuspuntu bat darabil. *Comunión Tradicionalista* deritzonak Euskal Estatutuaren inguruan izandako iritzi politikoaren aldaketa oso lotua ikusten du erlijioarekin: Lizarrako Estatutuari gehitutako emendakin erlijiosoak – Azpeitiko emendakinak bezala ezagutzen direnak – ez zetozen bat Errepublika eta honen Konstituzioarekin, eta horregatik egin zuten Estatutu laiko eta ateoaren aurka. Baina fede eta erlijio liskar hau eta euskaltasunaren aurka egin zuten kanpaina amarru bat izan zirela defendatzen du, argumentu hauek jendea engainatzeko eta euren benetako asmoak ezkutatzeko<sup>80</sup>.

Errepublika aldarrikatu zenean, lurjabeek, aristokratek, oligarkek eta monarkikoek ezin izan zuten herriaren garaipena ez eta demokraziarantz hurbiltzeko ahaleginak egiten zituen sistema bat onartu, eta horregatik bizi izan ziren Errepublika eta hau behera botatzeko konspirazioak elkarrekin hasiera-hasieratik. Honela, 1932. urte hasieratik, militarrek eta aristokrata-lurjabeak errejimen berriaren aurkako kolpe militar bat prestatzen egongo dira, Jimeno Juriok dioenez aberria eta interes partikularrak nahastuz. Iruñeako Asanblada egunean, ekainaren 19an, konspirazioaren ideia jendartean zabaldua zegoen jadanik. Honen adibidea Asanblada horretan ezezkoa botoa eman zuen Barbaringo alkatearen kasua dugu, nahiz eta baietz bozkatzeko agindua izan. Pablo Morras alkatearen iruzurraz jabetu ostean hau da ekainaren 23ko aktan irakur dezakeguna: bere karguaz baliatu zen «para contribuir a los medios empleados por la conspiración monárquica que, haciendo del país un medio, pretendió, al obstaculizar el Estatuto, preparar el terreno para que, desarrollándose el malestar, sea más fácil el logro de sus ideales monárquicos»; beste adierazpen baten arabera, alkateak nahiago izan zuen «seguir sugerencias carlistas a representar el criterio municipal; se sintió afiliado a una bandera antes que alcalde; obró como monárquico, en lugar de hacerlo como mandatario del pueblo, cuyo sentido foral y navarro le había llevado a votar el Estatuto siempre»<sup>81</sup>.

<sup>79</sup> PAYNE Stanley George, “Navarrismo y españolismo en la política navarra bajo la Segunda República”, *Príncipe de Viana*, 166-167 zenbakia, Iruñea, 1982; 904. orr.

<sup>80</sup> JIMENO JURIO, Jose Maria, *Navarra jamás dijo no...*, 112. orr. eta hurrengoak.

<sup>81</sup> JIMENO JURIO, Jose Maria, *Navarra jamás dijo no...*, 94 eta 115. orr.

Azken batean, karlismoaren eta integrismoaren agintariak, hurrengo kolpe armatuaren ostean Alfonso Carlos tronuan jarriko zutela sinetsarazi zieten nafar herrietako afiliatuak<sup>82</sup>.

Nafarroako eskumen artean, EAJ izan zen Euskal Herri osorako batasun eta autonomia programa bere horretan defendatzen jarraitu zuena, Gestoren Estatutuaren alde azalduz. Karlo-integrismoak, aldiz, ez zion barkatu eta bere batasunaren ostean, *Comunión Tradicionalista* alderdiak nazionalismoaren eta Euskal Estatutuaren aurkako erasoak areagotu zituen. Izan ere, lau probintzien batasunak 1841etik zetorren egoera horrek agintari batzuei eskaintzen zizkien onurak arriskuan jarriko zituen, eta aldi berean Errepublikaren aurkako konspirazioa ere bai. Nafarroa, bera bakarrik hartuta eta monarkiakoa zen nagusitasunarekin errazago maneia zitekeen; eta guzti hau justifikatzeko, *La Constancia* edota *El Pensamiento Navarro* egunkari karlistek, esaterako, Estatutuaren aurkako kanpainak gogortu zituzten, herriari jarrera honen benetako arrazoia ezkutatu eta, horren ordez, egundaino iritsi zaizkigun eta oraindik gaur nafar askok egiazat hartzen dituzten argumentuak erabiliz: “Estatutua nazionalista da”, “Estatutua laikoa da, Elizaren eskubideen eta Jainkoaren Legearen aurkakoa”.

Estatutuaren aurkako ahalegin hauen artean, Raimundo Garciak – Garcilaso – jokatu zuen papera erabakigarria izan zen. Nafarroa Estatututik banatzeko asmoz, Iruñeako gutxiengo eskuindarraren kontzejalak bildu zituen bere bulegoan 1932ko ekainean bertan, udaletxean Estatutuaren aurka aritu zitezkeen. Horrez gain, bera izan zen hiria Estatutuaren aurkako panfleto eta propaganda orriz betetzeko ideia izan zuenetariko bat. Orri hauek, *Diario de Navarraren* tailerretan inprimatutakoak ziren, antza denez. Asanblada baino bi egun lehenago hiriburuko hormak eta kaleak panfletoz bete ziren, elizen atek, herrietako ermitak, Plazaolako geltokiak etab. Honakoak ziren irakur zitezkeen mezuetariko batzuk: “*Fueros, sí; Estatuto, no*”, “*El Estatuto aumentará en un 30% los impuestos*”, “*No votéis al Estatuto laico*”, “*El que vote Estatuto Vasco-Navarro no es católico*”, “*No votéis el Estatuto anticatólico y sin Dios*”<sup>83</sup>.

Ezkerrak eta eskumak, azkenean, bat egingo dute Estatutuaren aurkako jarrera horretan. 1932an maiatzaren 22an ospatuko beharrekoa zen Asanblada ekainaren 19ra atzeratu zen Alderdi Errepublikar Erradikal Sozialistak eskatu bezala. Nafarroan eta Espainian gauzak zeuden moduan ikusita, Asanblada atzeratzeak estatutuaren aurkako jarrerei denbora gehiago ematea suposatzen zuen, kolpe militar baten aurrean indar ezberdinen arteko banaketa areagotuz; eta horrez gain, nafarrek, denbora hau soluzioak bilatzeko aprobetxatu beharrean, alderdien arteko gerra, edota alderdi bereko partaideen arteko borroka sustatzeko erabili zuten, Iruñean eta Tuteran gertatu bezala, konspiratzaileen mesedetan. Nafarroako ezkerreko alderdiek ez zieten behar zuten garrantzia eman kolpea prestatzen ari ziren indar atzerakoiei, eta euren zentralismoa eta espainiartasuna nafar izaeraren gainetik jarritz, arerioari lana erraztu zioten, nahiz eta ondoren ikusiko dugun bezala, asko damutu ziren.

Karlismoari dagokionez, bere jaiotzatik lau probintzietako foruen berrezarkuntza osoa aldarrikatu zuen karlismo hori, bat batean, 1932tik aurrera erabat aldatu zen. *Comunión Tradicionalista* alderdiko zuzendariak aldaketa sakon bat eman

<sup>82</sup> GRANJA SAINZ, Jose Luis de La: *El oasis vasco...*, 111. orr.

<sup>83</sup> JIMENO JURIO, Jose Maria, *Navarra jamás dijo no...*, 121-122. orr.

zioten honi, Espainiako Antzinako Errejimena ezartzeko konspiratuz, eta euskaltasunaren aurkako joera gogorra hartuz. Zuzendarien jarrera zentralista horretatik hasita, tradizionalismoa kontraesanetan eroriko da eta bere tradizio foralari traizio egingo dio. Euskaltasunari gorroto izatetik hasi eta nabarrismoaren aurka kokatuko da, azkenik Nafarroak erreinu independente bezala izandako izaera historiko, politiko eta forala ukatzera heldu arte<sup>84</sup>.

Horrez gain, behin Nafarroa Estatutuaren bidetik bananduta, gauza bera egiten saiatu ziren Arabarekin. 1933an Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan ospatutako erreferendum horretara ez zirenak joan, ala joan eta ezezko botoa eman zutenak ultrakatolikoen indar politikoak izan ziren batez ere, Estatutuaren aurka joz; herriak hau onartuz gero, euren iritziz elizaren eskubideak zapaltzen zituen errejimen errepublikarra legitimatuko baitzuten. Honen ondoren, eta behin CEDAk Gobernu hartuta, Euskal Estatutua gelditu egin zen, Oriol diputatu karlistak eta CEDAk Arabaren auzia mahai gaineratu zutenean. Euren iritziz, Arabak ezezkoa eman zion erreferendumean Estatutuari – aldeko botoak boto-emaeleen %47a izan ziren – eta autonomia- prozesutik ateratzeko eskatu zuten. Proposamenak ez zuen aurrera egin, baina bi urtetan zehar Gorteek geldirik izan zuten Estatutu proiektua<sup>85</sup>.

### 2.3. Estatutuaren auzia 1932-1936 urteen artean.

1932ko Asanblada igaro ondoren aukera bi geratzen ziren: Nafarroarentzako probintzia bakarreko Estatutu bat idatzi eta onartzea, ala Estatutu komun horretara bueltatzen saiatzen jarraitzea. Ez zen ez bata ez bestea gertatu. Izan ere, Estatutu komun horretara batzeko beldurra oraindik bizirik zegoen, eta ordura arte honen aurka zeudenek ez diote gaitzesteari eta kritikatzeari utziko Errepublikak iraun bitartean.

Aurrerago aipatu dugun Hilario Yaben kanonigoak berriro idatzi zuen *Diario de Navarra* egunkarian, Estatutuen aurka azalduz eta foruen berrezartzearen alde. Estatutuaren aurkako indar tradizionalisten eta nazionalisten arteko banaketa deitoratzen du, berarentzat katolizismoa zelako garrantzitsuena. *Diario de Navarra* bere esker ona adierazi zion batzuen eta besteen arteko elkarkidetzak bilatzeagatik erlijioaren defentsan, baina eskumako indarren arteko banaketaren arrazoia Estatututik haratago zihoala erantzun zion, askoz sakonagoa eta konponbiderik ez zuen zerbait zela argudiatuz. Nahiz eta ez zuzenean aipatu, euskal nazionalisten antiespainolismoa zen arrazoi hori. Ildo beretik doa Francisco Javier Arraiza Baleztenak argitaratutako artikuluan esandakoa. Bere hitzetan Nafarroa oso espainola zen eta ez zuen bizkaitar nazionalismoaz eta Estatutuaz ezer jakin nahi, sakabanaketa nazionala ezkututzen baitzuten. Hau horrela, Errepublika urteak aurrera joan ahala, Parlamentuak ordezkatzeko botere legegilearen eta liberalismoaren aurkako monarkia bat defendatzen zuten nabarrismoa nagusitzen joango da<sup>86</sup>.

Nafar Estatutuari dagokionez, bi alditan baino ez zen azaldu kontua hurrengo errepublikar urteetan zehar: 1932ko irailean eta 1936ko udaberrian. Lehenengo aldia, gainontzeko euskal probintziekiko estatutuaren lanak berriro hastean eta *Accion*

<sup>84</sup> Ibidem, 130. orr.

<sup>85</sup> AZCONA PASTOR Jose Manuel, GORTARI UNANUA Joaquín; *Navarra y el nacionalismo vasco...*, 83. orr. eta hurrengoak.

<sup>86</sup> GARCIA-SANZ MARCOTEGUI Angel, *La identidad de Navarra...*, 105-106. orr.

*Autonomistaren* ekintzen ondorioz eman zen. Emilio Azarola 1932. urteko irailaren 14an bildu zen Iruñea, Lizarra, Tafalla eta Tuterako alkateekin Nafar Estatutua abiarazi zezaten eskatuz. Baina aukera honek ez zuen jarraipenik izan.

Estatutuaren auziak 1936ko udaberrian berreskuratu zuen protagonismoa bigarren aldiz, eskumaren kontrolpean zegoen Diputazioak probintzia bakarreko estatutu hau berriz mahai gainean jarri zuenean. Bien bitartean, Gorteetan Euskal Estatutua tramitatzen ari zen, Nafarroa etorkizunean batzeko zioen artikulua gehigarria barne, eta baliteke hau izatea Nafar Estatutua berpizteko arrazoia. Nazionalistek eta errepublikarrek Diputazioaren ekimen hau kritikatu zuten, baina baita eskumak berak ere. Nazionalistek gogorarazi zuten Nafarroa ez zela sekula Nafar Estatutu baten alde agertu, eta eskumak autonomia proiektu hau “antiforala” eta tradizioaren aurkakoa zela esan zuen, foruen hobekuntza ez zen beste edozer onartzeari uko eginez. Azkenean, Estatutu komunaren aurka zeudenak ez zuten Estatutu Nafarraren bidea jorratu. Esanguratsua da bide hau jorratu ez izana kontuan hartzen badugu bide honek, arestian aipatu bezala, 1841eko Legeak ezarritakoa baino eskumen gehiago izateko aukera eskaintzen zuela. Eztabaida guzti honetan Nafar Estatutuaren alde azaldu zen bakarra *El Pensamiento Navarro* izan zen. *Diario de Navarra* egoera bere horretan mantentzearen alde azaldu zen, beste edozer egiteak Nafarroa foruaren heriotzara eramango zuelako<sup>87</sup>.

Baina dena dela, eztabaidak egon ziren Nafarroak Estatutu bat izatea komenigarria izango litzatekeen ala ez ebazteko, eta 1841eko Legea bere horretan mantentzearen aldeko ahotsak entzun ziren beste behin ere, sustraituagoa, seguruagoa eta onuragarriagoa omen zelakoan. Hauen artean, Angel Garcia-Sanzek Hilario Yaberen azpimarratzen du beste behin ere<sup>88</sup>. Aipatutako idazki horietan, Hilario Yaben Estatutuen aurka mintzatzen da, espainiar batasunaren aurkakoak zirelako, eta Nafarroaren kasuan, foru askatasunen aurkakoak, azken hauek izanik Nafarroaren historia eta izaerarekin bat zetozenak. Bere ustez estatutuetatik eratorritako eskubide edo askatasunak oso ahulak edo epelak ziren, Konstituzio ezegonkor baten mende zeudelako; autonomia forala, aitzitik, paktu batean oinarritzen zen, 1841eko Hitzarturiko Legean hain zuzen, eta hau, era berean, 1512. urtean Gaztelarekin izandako paktuan. Beraz, ez zen komeni 1841eko Legea Estatutu baten truke aldatzea.

Estatutu komunaren aurka azaldu zirenak ere ez zuten interes berezirik agertu Nafar Estatutuarekiko. Afera hau bigarren maila batean kokatu zen – nahiz eta, esan bezala, 1841eko Legeak baino eskumen maila handiagoa lortzea ahalbidetu – estrategia politiko orokorretan murgilduta, eskumako eta ezkerreko nabarrismo politikoarentzat ez baitzen lehentasuna izan. Estatutu bakarraren aurkako karlisten, integristen eta katoliko independenteen kasuan, Errepublikako Konstituzioak ezarritako legeen testuinguruan parterik ez hartzea izan daiteke arrazoia. Nafarroako eskumak, orokorrean, ez zuen interes gehiegirik izan proiektu honetan parte hartzeko. Kontuan izan behar dugu errepublikar garaia hasi eta berehala hasi zirela Errepublikaren aurkako kolpea prestatzen, hau behera botatzeko helburuarekin. Estatutu bakarraren aurka zeuden ezkerreko indarrei dagokienez, euren presentzia politiko eskasa eta eskumari botere gehiago ematea ekiditea izango lirateke arrazoi

<sup>87</sup> GARCIA, Angel, *Historia del navarrismo...*, 308. orr.

<sup>88</sup> Bere esanetan: «un gramo de libertad foral vale más que una tonelada de libertad estatutaria». GARCIA-SANZ MARCOTEGUI Angel, *La identidad de Navarra...*, 109-110. orr.

garrantzitsuenak, besteak beste<sup>89</sup>.

Estatutu komuna egikaritzeko lanean jarraitu zuten horren alde zeuden sektore errepublikarrak eta sozialistak. Nazionalisten babesaren ere jaso zuten, nahiz eta hasiera batean eta 1932ko Asanbladaren emaitzak ikusita, EAJk hiru probintziadun estatutu horren alde egin, Nafarroa bertan sartzeko klausulak gehituz. *Acción Autonomista* izan zen estatutu komun hori berriro abiarazteko egin zen ahaleginaren protagonista. Bere helburua, lehenago aipatu bezala, 1932ko ekainaren 19ko Iruñeko Asanblada horren berrikusketa lortzea izan zen, bozketaren balio eza argudiatuz eman ziren mehatxu, eta botoen faltsutzeak zirela eta. Baina, dakigunez, ez ziren eskaera hauek onartu.

Hala ere, Nafarroa beste hiru probintzien bidera ekartzeko ahaleginak egon ziren 1933an ere. Martxoaren 2an Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Gestorek Nafarroakoa gonbidatu zuten estatutu-prozesura gehi zedin. Baina ezezkoa eman zuen azken honek, lehenbizi nafar udaletxeen iritzia jaso gabe ez zela posible erantzunez. Bide honek ere ez zuen inolako emaitzarik eman.

Bien bitartean, 1935ean Eladio Esparzak diskurtso baten bitartez nabarrismoaren posizioa argitu eta definitu zuen. 1841eko Legea, Foruaren XIX. mendeko errealitateari egindako egokitzapen bezala ulertzen du, eta ere berean, lege Hitzartu hau, 1515eko paktuaren berriztapen gisa. Bere hitzetan Nafarroa ez zen erreinu independentea izan, Espainia osatzen zuten erreinuen mosaiko horretan beste erreinu ezberdin bat baizik. Berrezarkuntza foralari dagokionez, bi irakurketa egiten ditu: «no se expresa concretamente nada», edota «quiere decir el derecho de un pueblo a gobernarse por sí mismo, con total y absoluta independencia. Pero esto es nacionalismo puro, lógicamente separatista». Estatutuari dagokionez, euskal nazionalismoak bere asmo separatistak gauzatzeko instrumentu bezala jotzen du, eta Konstituzioa eta Estatutuaren aurrean, tradizio forala aldarrikatzen du. Bere programa forala 1841eko Legea mantentzean datza, baina Nafarroari bere autonomia praktikatzeko beharrezko zaizkion instrumentuekin hornituz, zazpi pertsonen osatutako Diputazioa ez zelako nahiko helburu horretarako<sup>90</sup>.

Euskal-Nafar Estatutu hori egi bihurtzeko azken ahalegina Gerra Zibila baino hilabete bat lehenago egin zuten. 1936ko ekainaren 15ean Nafarroako Frente Popularraren batzordeak Diputatuen Kongresuko presidenteari gutun bat bidali zion, Nafar Estatutuaren proiektuagatik protesta eginez eta Nafarroa Euskal Estatutuan sartzeko eskatuz. Parlamentuko Estatutuen Batzordeak Euskal Estatutuan Nafarroa integratzeko artikulua gehigarria onartu ez zuela jakitean bidali zioten Gobernuari. Aukera honen arerioa eskuma zela argudiatu zuen, hasieratik Estatutuen aurka egon zela gogoratuz: lehenengo Euskal-Nafarra, gero Euskal Estatutua eta azkenik Nafarroa honetara integratzeko aukera horren aurka jarritz. Eta behin hau lortuta, eskumak ondorengo bilatuko luke: «persigue que, ante la amenaza que pudiera cernirse contra los restos forales que disfruta Navarra, no quedase más solución que la del Estatuto Navarro. Este Estatuto aislado vendría a confirmar y afianzar el dominio de las derechas en Navarra (...) a impedir que el contacto y trabazón con la democracia vasca diera a las izquierdas de Navarra una mayor representación y

<sup>89</sup> GARCIA, Angel, *Historia del navarrismo...*, 309-310. orr.

<sup>90</sup> IZU BELLOSO Miguel Jose, *Navarra como problema...*, 272. orr.; jatorrizko testua: Eladio Esparza, *Discurso sobre el fuero de Navarra*, Ediciones Príncipe de Viana, Iruñea, 1935.

fuerza». Nafarroa Euskal Estatutuan integratzeko aukera ezabatu nahi izatea aurpegiatzen die eskumako indarrei, aurretik udaletxeek adostutako erabakia izan baitzen eskumako zati handi baten oniritziarekin. Horregatik guztiagatik, Gobernuari nafar ezkertiarrek bakarrik ez uzteko esan eta Estatutuan sartzeko aukera hori erraz zezan eskatu zioten. Eskaera hau Nafarroako ezkerreko alderdi guztiek sinatu zuten<sup>91</sup>.

Jose Mari Esparzaren ustez, dokumentu honek izugarritzko garrantzia du eta horregatik saiatu dira ezkututzen. 1981ean, euskal batasunetik Nafarroa banatzeko probintzia horretako PSOEk erabilitako argumentuetariko bat zera izan zen, 30eko hamarkadan nafar indar ezkertiarrek Nafarroa Euskal Estatutuan sartzearen aurka azaldu zirela. Gezur honen gainean indar- korrelazioa aldatu egin zuten eta Nafarroa gainontzeko euskal probintziengandik banandu zuten ondorengo atalean ikusiko dugunez.

### 3. ATALA. Nabarrismoa trantsizioko “*euskal arazoaren*” aurrean

#### 3.1. Frankismoaren azken urteak eta trantsizioaren hasiera. Erreforma ala haustura

Gerra zibilak irabazleen eta galtzaileen aldeak garbi desberdindu zituen ia 40 urtez. Oroitzapen hori trantsizio garaietara arte heldu zen, eta horrelako beste gerra bat gertatzeko beldurra jendearengan, eta oro har, memoria kolektiboan gogoan geratu zen zerbait izan zen. Beldur honen gainean eraiki zen diktaduratik demokraziarako trantsizio izeneko zubia, eta sarraskia bueltatzearen beldur honek eragina izan zuen akordioa eta elkarrizketa lehenesterako orduan errejimen frankistarekin erabat apurtu eta bestelako oinarri demokratikoak ezarri beharrean. Trantsizioa lege frankistez baliatu zen lege demokratikoetara igarotzeko, legetik legera izan zen prozesua.

Arias Navarroren Gobernuaren porrotaren ostean, Juan Carlos I.ak Adolfo Suarezren eskuetan utzi zuen ardura hori, mobilizazioek indartutako oposizio baten aurrean. Testuinguru honetan, oposizioak haustura eskatu zuen, estatu frankistarekin bukatzea eta Estatu demokratiko bezala berreraikitzea, Suarezren Gobernuaren errejimen frankistaren gehigarri edo luzapen bat baino ez zela argudiatuz. Errejimena, ez zegoen inola ere haustura hori onartzeko prest eta, logikoki, kontinuumoa baino ez zuen eskaini, edo gehien jota berak eman edo helarazitako demokrazia mugatu eta kontrolatu bat, zenbait eskubide eta askatasun demokratiko aitortuz.

Hala ere, Suarezek egoera hau kudeatzen asmatu zuen, “paktatutako erreforma” bezala ezaguna egin zen kontzeptua aplikatuz. Horretarako, Frankismoko legalitatea bera, Mugimenduaren Oinarrizko Legeak erabili zituen<sup>92</sup>. Egoera berri batera eramango zuen bidea Frankismoak utzitako herentziarekin batera egingo zen, ezin zitekeen jendearen kontzientzia eta memoria kolektiboan hain bortizki markatutako tradizio hori hain erraz ezabatu.

Nafarroa ez zen salbuespena izan. Hemen ere, hasierako eztabaiden muina

<sup>91</sup> ESPARZA ZABALEGI Jose Mari, *Mapas para una nación...*, 183. orr.

<sup>92</sup> ENERIZ OLAECHEA Francisco Javier, *La transición política en Navarra (1975-1979): La democratización de las instituciones forales y Navarra en la Constitución de 1978*; 54. orr.



haustura ala erreformaren ingurukoa izan zen, Frankismoko arrastoetatik at legitimitate berri bat eraikitzearen alde zeudenen eta urteetan zehar Frankismoak berak eraikitako argumentu legalak erabiltzearen alde zeudenen artean. Nafarroaren kasuan, aitzitik, berezko zitzaizkion erakundeen inguruan Diputazioak ordura arte bezala jarraitzeko asmoa erakutsi zuen hasiera- hasieratik. Aldaketarik txikiena ere ez onartzeko jarrera honek organo goren horren zatiketa ekarri zuen azkenean, arrazoi nagusia erakundearen demokratizazioa izanik, hau da, 1841eko Legearen aldaketa<sup>93</sup>.

Dena dela, errejimen aldaketarako prozesua abian zen estatu mailan. Hori gauzatzeko eman zen lehenengo pausoa Erreforma Politikorako Legea izan zen. Frankismotik demokraziarako zubi legala izan zen, eta aldi berean, legislazio frankistatik eginiko erreformaren baieztapenaren ikur. Are gehiago, hau izan zen Frankismoko azken Oinarrizko Legea, aurreko guztiak indargabetu zituen, Espainiako Gorte Frankistek euren buruari egindako “*hara-kiri*” bezala ere ezagutzen dena.

Erreforma Politikorako Legea 1976ko azaroan onartu zuten Espainiako Gortek eta hurrengo hilabetean deitu zuten erreferenduma. Nafarroan, estatu mailan gertatu bezala, erreformaren aldeko hautua egin zen, aldeko botoak abstentzioei eta ezezkoei gailenduz: nahiz eta abstentzioa estatu mailan baino handiagoa izan, parte hartzea %73an kokatu zen, baiezeko botoak %92 izanik eta ezezkoak ez ziren %3ra iritsi. Hala ere, emaitza hauen irakurketak ñabardura bat baino gehiago izan dezake: «Hay que tener en cuenta, de todas maneras, la importante labor “psicológica” desarrollada, que ayudó a incidir en el resultado final. (...) Una cultura apolítica acrítica respecto al régimen, secundada por una activa propaganda podían ser los pilares de una alta respuesta positiva”; “después de 40 años de decir <<sí>> al poder por temor a las consecuencias del <<no>>, será muy difícil conseguir que los votantes no se dejen llevar por la inercia, o por factores ajenos a su propia responsabilidad personal»<sup>94</sup>.

### 3.2. Nafarroako erakundeak eta aldaketaren lehen pausuak

Behin hau ezarrita, Nafarroan autonomia probintzial tradizionalak etorkizunerako hartuko zuen forma zehazteko beharra azaldu zen, erakundeen demokratizazioa bederen. Esan daiteke Nafarroak estatu mailan emandako erreforma eta hausturaren arteko eztabaida hori errepikatuko zuela demokratizazioari zegokionean. Hala eta guztiz ere, egokitzapen hau ez zen izan estatu mailan bezain erradikala, indar politiko guztien artean foraltasunaren ardatza era batera edo bestera mantentzeko asmoa baitzegoen. Hori bai, foraltasuna ardatz izanik ere, alderdi politikoek foraltasun hori bakoitzak bere erara ulertu eta defendatuko du. Demokratizazio eskaerak arazo bi ezkututzen zituen: foru-erakundeen ordezkagarritasunaren erreforma bata – hiritarrek euren ordezkari politikoak aukeratzeko ahalmena –, eta errejimen forala garai hartako egoerara egokitzeko beharra bestea, nahiz eta azken hau bakoitzak era ezberdinean ulertu. Oraindik Frankismopean egonda ere, foru sistemaren erreforma eskatzen zuten ahotsak entzun ahal izan ziren, eta hauek ez zetozen bakarrik oposizio antifrankistatik, egokitzapen hori gauzatzeko eskaerak erakundeetatik bertatik ere egin zirelako, Diputazioaren

<sup>93</sup> RAMIREZ SADABA Jose Luis (zuz.), *Democratización y Amejoramiento Foral. Una historia de la Transición en Navarra (1975-1983)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1999; 79-81. orr.

<sup>94</sup> RAMIREZ SADABA Jose Luis (zuz.), *Democratización y Amejoramiento Foral...*, 91-92. orr.

aholkularitza organotik – Foru Batzordetik – eta Iruñeako Udaletik, esaterako<sup>95</sup>.

Aipatu ditugu jada Nafarroan demokratizatzeko beharra erakusten zuten erakunde nagusiak: Diputazioa eta bere Foru Batzordea. Nafarroako Diputazio Forala zen probintziako erakunde gorena. Zazpi pertsonen osatuta zegoen – 1841eko Legeak agindutakoari jarraiki – eta 1976. urte horretan ondorengoak ziren diputatu foralak: Amadeo Marco, Julio Asiain, Julio Iturralde, Jesus Fortun, Felix Visus, Juan Manuel Arza eta Ignacio Irazoqui. Diputazioaren konposizioa bi urte lehenago eman zen, 1974an, tokiko korporazioen berritzearen bidez.

Edonola ere, 1841eko Legeak agindu bezala, zazpi kidez osatuta zegoen organo goren hau, Nafarroako bost Merindadeek aukeratuta: Merindade bakoitzak bat aukeratzen zuen eta horrez gain, biztanle gehien zituzten biek, beste bat gehiago<sup>96</sup>. 1976tik aurrera, talde hau bananduta geratu zen: alde batetik, ideia tradizionalisten aldekoak ziren lau: Amadeo Marco, Julio Asiain, Julio Iturralde eta Jesus Fortun; eta bestetik, erreformaren aldekoak edo irekiagoak ziren gainontzeko hirurak: Felix Visus, Juan Manuel Arza eta Ignacio Irazoqui. Diputazioan gehiengo ordezkatzen zuen lau talde hori bereziki mesfidati agertu zen Franco diktadorearen heriotzaren ostean irekitzen hasitako eszenatoki berri horrekin. Diputazioan osatzen zuten gehiengo hori atzera bueltarik ez zuen aldaketari eusteko erabili zuten, asmo hori denboran zehar ahalik eta gehien luzatuz.

Diputazioarekin batera, Foru Batzordea zegoen, lehenengoaren kontsultarako erakunde eta egungo Nafarroako Parlamentuaren aurrekaria. Baina garai hartan, 57 kidez osaturik zegoen, hauetariko 29 udaletxeen ordezkariek izanik eta gainontzekoak, diputatuak, diputatu foralak izandakoak, “indar bizien” – ganberak, ikastetxe ofizialak, profesionalen elkarteak – eta erakunde sindikalen – enpresari eta langileak – ordezkariek. Batzordean ez zeuden tendentzia tradizionalista edota erreformista zuten pertsonak soilik, bazegoen errejimenarekin apurketa aldarrikatzen zuen oposizioko kiderik, baita nazionalista edota ezkerrekoak zirenak ere. Foru Batzordearen betebeharren artean udal-erregimenari eta Administrazioari zegozkien Araudi, Ordenantza eta Akordio orokorrak onartzea zegoen besteak beste<sup>97</sup>.

40 urteko diktadurak are gehiago indartu zuen Diputazioaren presentzia eta indarra nafar gizartean. Jaime Ignacio del Burgok honela dio: «La Diputación foral se había convertido en un auténtico gobierno regional. El número y amplitud de las facultades forales era muy extenso. La Diputación intervenía, directa o indirectamente, en todo aquello que pudiera afectar al interés general de Navarra y a la promoción social, económica y cultural del pueblo navarro»<sup>98</sup>. Hau horrela, kexak ordezkaritzaren ingurukoak ziren beti ere, eta ez erakundeei zuzenean egindakoak. Eskatzen zena erakundeei zentzu eta ordezkaritza gehiago ematea zen: «nadie hablaba de la supresión de la Diputación tal cual existía, así como tampoco se consideraba otra posibilidad diferente a la de incrementar el papel del Consejo Foral como cámara legislativa navarra heredera de las antiguas Cortes del Reino. Las

<sup>95</sup> BARAIBAR ETXEBARRIA Alvaro, *Extraño federalismo. La vía navarra a la democracia (1973-1982)*, Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, Madril, 2004; 127-128. orr.

<sup>96</sup> GORTARI UNANUA Joaquin, *La transición política en Navarra, 1976-1979*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1995; 58 eta 89. orr.

<sup>97</sup> Ibidem, 69. orr.

<sup>98</sup> DEL BURGO Jaime Ignacio, *Navarra. Pasado, presente, futuro*, Laocoonte, Iruñea, 2008; 125. orr.

quejas incidían en la falta de representatividad»<sup>99</sup>.

Hala ere, barrutik egindako eskaera hauek eta oposizioak exijitutako aldaketak ez ziren nahikoak izan 40 urtez bere horretan mantendutako Diputazioak iritzia alda zezan. Nafarroako erakunde gorenak kudeaketarekin lotutako zereginekin jarraitu zuen, konbentzita zegoen bere onespenez gabe ez zela ezer aldatuko. Baina gauzak ez ziren horrela izan eta Foru Batzordeak ere egin zuen Frankismo bukaeran jadanik foru-erakundeen ordezkariak hedatzeko eskaerarik; eta geroago, Diputazioak partaideak eurak jarriko dira gizartearen eskaeren alde. Aldaketaren lehen zantzuak 1976an eman ziren. Urte horretako otsailean, Diputazioak Nafarroaren botere eta eskubideen integrazio maila altuenak izango lituzkeen aukeren gaineko estudio bat lantzeko eskatu zion legegarien komisio bati. Jarrera bi ezarri ziren honen inguruan: Diputazioaren gehiengoak – zazpitik lauk – ez zuen ikusten 1841eko Legeak ezarritako errejimen horren barnean konpetentzien areagotzea baino beste aukerarik; gutxiengoak, aldiz, foru-errejimenaren demokratizazioa lortzea izan zuen xede<sup>100</sup>.

Horren harira, gutxiengo hori izango da gizarteak exijitzen duen demokratizazioa eta erreforma beharra galdegingo duena hemendik aurrera Diputazioan bertan. Hau horrela, Diputazio hau osatzen zuten zazpi diputatutatik hiruk – Felix Visusek, Juan Manuel Arzak eta Ignacio Irazoquik– mozio bat aurkeztu zuten 1976ko uztailaren 21ean Espainian gertatzen ari zen aldaketa prozesu horren aurrean, Diputazioaren eta Foru Batzordearen helburu eta konposizioa testuinguru berri horretara moldatzeko<sup>101</sup>. Zehazki, Diputazioak honako hiru printzipio onartzea zen helburua: autonomia bai – 1841etik aurrera galdutako eskumenen berreskurapena –, eta horrez gain, instituzionalizazioa edo erakundetzea – Foru Batzordeari botere legegilea helaraztea, Diputazioa organo exekutibo bezala ezarri – eta ordezkagarritasuna, bai Diputazioa eta bai Foru Batzordea sufragio unibertsal bidez aukeratuz. Horrez gain, Diputazioak zuen botere kontzentrazioa salatu zuten, botere edo eskubide legegilea Foru Batzordearentzat aldarrikatuz, eta diputatu eta kontseilariak sufragio unibertsalez aukeratzea. Horrez gain, Nafarroak 1841etik galdutako eskumen guztiak berreskuratzea exijitu zuten, erabateko foru-berrezarkuntza eskatzeko aukera gordez<sup>102</sup>.

Baina gainontzeko 4 diputatuen ezezkoak mozioa atzera bota zuen. Horrela, erreforma oro arbuiatzen zuen Diputazioak ez zuen mugimendu gehiagorik egin 1977ko uda iritsi eta euskal aurreautonomia proiektuaren barruan Nafarroa aipatu arte. Honek alternatiba bat plazaratzera eraman zuen erakunde gorena, eta orduan izan zen foruen erabateko berrezarkuntza mahai gainean jarri zuten unea.

### 3.3. Nabarrismoaren eguneratzea eta bere ezaugarriak

Frankismo garaian, Nafarroako kultura ofiziala, espainiar nazionalkatolizismo ultraespainiarraren zerbitzura jarri zen eta euskal kulturarekin lotuko zuen edozein elementu edo ahalegin ekidin zen. Orokorrean, Nafarroa eta probintzia “baskongadoak” erlazionatuko zituen edozer ekidin nahi zen. 1960. hamarkadatik aurrera, egoera normaltzen hasi zen pixkanaka, baina ordurako erailda zegoen Gerra

<sup>99</sup> RAMIREZ SADABA Jose Luis (zuz.), *Democratización y Amejoramiento Foral...*, 138. orr.

<sup>100</sup> BARAIBAR ETXEBARRIA Alvaro, *Extraño federalismo. La vía navarra...*, 127-128. orr.

<sup>101</sup> GORTARI UNANUA, Joaquín, *La transición política en Navarra...*, 91. orr.

<sup>102</sup> ENERIZ OLAECHEA Francisco Javier, *La transición política en Navarra...*, 58. orr.

Zibilera arte eta Diktaduraren lehenengo urteetaraino iraun zuen “euskalduntasun espainolista” (*vasquismo españolista*)<sup>103</sup>. Diktaduraren lehenengo urteetan ere, nabarrista askok inongo arazorik gabe mantendu zuten Nafarroa euskal kultura komunitateko kide zela – Eladio Esparzak, Victor Pradera eta Rodeznoko Kondeak hala uste zuten –, baina gerraostetik aurrera horrelako planteamenduak euskal nazionalismoarekin identifikatzen hasi ziren gero eta gehiago. Azken finean, euskal nazionalismoa zen euskal kultura gehien babestu eta mantendu nahi zuena, eta azkenean, nabarrismoaren sektore batzuek bi hauen lotura sinplea baino ez zuten egin. Horrela, 70. hamarkadan euskal kultura ukatu eta honen aurka – “*giro antivasquista*” – jarri zen nabarrismoa<sup>104</sup>.

Alderdi “nazionalaren” garaipenak nabarrismo kontserbadorea boterean kokatuko du, eta aldi berean, planteamendu ofizialetik at zegoen beste edozein nabarrismo mota ezinezko bihurtu. Francoren heriotza eta trantsizio garaian, Nafarroaren identitatearen eta bere artikulazio politiko-instituzionalaren inguruko eztabaidek protagonismoa berreskuratu zuten. Hein batean, gerra aurreko planteamenduak eta argumentuak berreskuratuko dira, baina aktore berrien eskutik eta ikuspegi berri batetik. Izan ere, garai bat eta bestearen artean emandako aldaketa sozio-ekonomikoen argumentu eta ikuspuntu berrien sorrera ekarri zuten.

Nabarrismoa, esan bezala, Frankismoaren bukaeran eta demokraziarako trantsizioan jarri zen martxan berriro ere. Nabarristen lehenengo belaunaldiari – Victor Pradera, *Garcilaso*, Rafael Aizpun, ... – gerra zibilaren ondorengo belaunaldi batek jarraituko dio. Garai honetako nabarrismoaren ordezkari nagusiak Diputazioa Forala, Nafarroako UCD, *Diario de Navarra* eta *El Pensamiento Navarro* egunkariak eta UPN – geroago – izango dira. Egunkariei dagokienez, lehenengoak aldaketa eta erreformarako ideien aldeko hautua egin zuen eta bigarrenak, ostera, ordura arteko *status quo* hori mantentzearen alde egin zuen<sup>105</sup>. Hau kenduta, kontuan izan behar dugu *Diario de Navarra* eta *El Pensamiento Navarro* zirela iritzi publikoaren eragiten zuten komunikabide bakarrak. Izan ere, nabarrismoaren mezuak izan duen babesa eta garaipena ulertzeko ezinbestekoa da Nafarroan 1977ra arte zeuden bi egunkari bakarrak hauek izan zirela ezagutzea. Errepublika garaian gertatu bezala, egunkariok indar eta eragin handia izan zuten iritzi publikoan. Joaquin Gortarik hau baieztatzen du: «En ellos aparecían de vez en cuando colaboraciones personales (...) Hasta que no hicieron su aparición en la escena pública los partidos políticos, las opiniones vertidas en los órganos de expresión por estos colaboradores a título personal, fue muy importante para la conformación de la opinión de Navarra»<sup>106</sup>.

Aipatutako hauez gain eta egunkari hauen garrantzia alboratu gabe, Jaime Ignacio del Burgo izango da garai honetako nabarrismoaren sustatzaile edo eragile nagusia. Berak landutako ikuspuntu pertsonala nabarrismoaren diskurtsoa izatera iritsiko da hurrengo orrialdeetan ikusiko dugunez. Errejimen foralaren erreformarako programa bat sortzen joan zen Del Burgo 1966tik aurrera, 1841eko foruzaletasuna eta nabarrismoaren egituren barnean. Funtsean, gerra aurreko nabarrismoaren ideiak

<sup>103</sup> IRIARTE LOPEZ Iñaki, *Tramas de identidad...*, 361. orr.

<sup>104</sup> IRIARTE LOPEZ Iñaki, *Tramas de identidad...*, 22. orr.

<sup>105</sup> GORTARI UNANUA Joaquin, *La transición política en Navarra...*, 74. orr.

<sup>106</sup> *Ibidem*, 101. orr.

biltzen ditu eta integrismo erlijiosoaren eta tradizionalismoaren pisua arinduz, garai berri horretako nafar gizartearen ezaugarriekin bat eginez. Doktrina tradizionalistak ez dira jada mezu egokia izango nafar agintarientzat, industrializazioa bultzatzen ari zirelako eta, aldi berean, klase ertain hiritar gero eta hedatuagoak agertzen ari zirelako. Esan daiteke, Del Burgok nabarrismoa liberalismo kontserbadore batera gidatu zuela. 1841eko legea errejimen foralaren eta nafar izaeraren zutabe bezala aldarrikatu zuen 1966an. 1968an jadanik, erregioen sorrera ahalbidetuko zuen deszentralizazioaren aldeko jarrera azaldu zuen. Bere ustez, nahiz eta Nafarroako errejimen forala beste probintzietara zabaltzea ezinezkoa izan – singulartasun historiko-juridiko baten emaitza zen neurrian –, posible zen botere zentralarekiko autonomia eta askatasun printzipioak aplikatzea. Azken batean, Frankismoaren bukaeran errejimen zetozen aldaketetara egokitzeko beharra azpimarratu zuen, eta behin diktadorea hilda eta trantsizioa abiarazita, politikan parte hartze aktiboa izan zuen *Partido Socialdemócrata Foral de Navarra* alderdia sortuz eta Nafarroako UCD alderdiaren barruan integratuz<sup>107</sup>.

Trantsizioaren atarian, lau aukera ikusten zituen Nafarroarentzat: a) Erabateko foru- berrezarkuntza, 1841. urtea baino lehenagoko egoerara bueltatuz. Hau defendatu zuten foruzale erradikalenek eta, hasiera batean behintzat, Diputazioak; b) Nafarroak, beste hiru probintziekin batera, euskal erakunde politiko bat osatzea; d) Nafarroa espainiar batasun konstituzionalean Erkidego Autonomo bat bezala eratzea, beste guztiak bezalaxe; e) Postura foralista bat hartuz, Nafarroako errejimen forala Estatu berrian bide propioa jarraituz txertatzea, Nafarroaren berezko izaera aitortuz, eta aldi berean, euskal erakunde politikoan sartzea ekidinez<sup>108</sup>.

Del Burgorentzat aukera onena laugarrena litzateke, Hitzarturiko Legearen erabateko erreforma, foru-erakundeak demokratizatuz, Kontseilu Forala Nafarroako Gorte bilakatuz, honek kontrolatutako Diputazio Forala exekutibo edo gobernu gisa ezarriz, eta Nafarroaren autonomia areagotuz. Horrez gain, trantsizio urte hauetan zehar, Del Burgoren kezka nagusia Nafarroako identitatearen berrestea izango da euskal egitura autonomiko baten barruan integratzeko aukera erabat arbuiatuz. Bere planteamenduak UCDren programan txertatu ziren azkenean, Nafarroan 1977an sortu zena beronen alderdia eta Jesus Aizpunen *Demócrata Liberal de Navarra* izenekoaren integrazioarekin. *Diario de Navarra* ere tesi hauek defendatu zituen aipatu bezala. Jose Javier Urangak 1962an hartu zuen zuzendari kargua, *Garcilaso* ordezkatzuz. *Ollarra* ezizenarekin izan zen ezaguna eta nabarrismoaren pertsonaia garrantzitsua izatera heldu zen bere idazkien bitartez. Kontuan izan behar dugu, trantsizio garaian eta ondorengo urteetan *Diario de Navarra*ren eragina askoz ere handiagoa izan zela mendearen lehen herenean baino. Nafarroan argitaratutako egunkaria kopurua eskasagoa zen eta esan bezala, trantsizio hasiera horretan eta 1977ra arte Nafarroan existitzen ziren bi egunkarietariko bat izan zen *Diario de Navarra*. *Ollarrak*, beraz, Del Burgok pentsatutako proiektu politiko erreformista babestu eta sustatu zuen<sup>109</sup>.

Diputazioak nabarrismoa muturrera eraman zuen edozein aldaketari muzin eginez eta errejimen forala erreformatzeko proposamenen aurka azalduz hasieratik. Honetan desberdinduko dira Del Burgok ordezkaturiko duen nabarrismoa eta

<sup>107</sup> IZU BELLOSO Miguel José, *Navarra como problema...*, 276. orr.

<sup>108</sup> ENERIZ OLAECHEA Francisco Javier, *La transición política en Navarra...*, 56. orr.

<sup>109</sup> IZU BELLOSO Miguel José, *Navarra como problema...*, 277 eta 280. orr.

Diputazioarena – gainontzeko ideiak berdintsuak baitira, tartean gainontzeko euskal probintziekin batera edozein egitura politiko eraikitzearen aurkakoa –, eta honela, foralismo erreformista eta foralismo tradizionalista desberdin ditzakegu. Edozelan ere, Nafarroako Diputazio Foralak zein Nafarroako UCD alderdiak eta honen barruan Del Burgok sutsuki defendatutako nabarrismo horren ezaugarriak ia berberak izango dira. Gauza bera gertatuko da ondoren sortutako UPN alderdiarekin. Nafarroako UCD, Diputazioa, UPN eta *Diario de Navarra* izango dira trantsizio garaian nabarrismoaren adierazle eta defendatzaile nagusiak. Lehen esan bezala, trantsizioko nabarrismoak gerra aurreko elementu eta argumentu asko bereganatu zituen. Baina hauen artean ez zegoen euskaltasuna. XX. mende hasietatik, eta batez ere 1917-1918 urteetatik, nabarrismo kontserbadorea eta euskaltzalea nabarrismo liberalaren tesietara hurbildu zenean eta gero eta gehiago urrundu euskaltasunetik, Euskal Herriarekiko goraiamenak gero eta gutxiagotan azalduz prentsa kontserbadoreetako idazkietan espainiar batasunari egindako laudorioen mesedetan. Euskaltasuna apaltzen zihoan heinean areagotu zen nabarrismo kontserbadorearen espainiartasuna. Frankismoak, alde nazionalarekin gerra egin zuen nabarrismo kontserbadore hori nolabait toleratu egin zuen eta nabarrismo mota bakarra eta nafar identitatea ulertzeko era bakarra ezarri edota inposatu zuen. Honek, lehen aipatu bezala, euskaltasuna baztertzeraren eraman zuen, eta are gehiago euskal nazionalismoarekin soilik identifikatzen hasi ostean.

Horrela, 1970. hamarkadatik honako nabarrismoak berezko ezaugarriak izango ditu. Miguel Jose Izuk ondoren aipatuko ditugunak azpimarratzen ditu<sup>110</sup>. Hasteko, nabarrismoa espainiar nazionalismoaren barruan kokatzen du. Honela, Espainiaren batasun nazionala uneoro berretsi eta defendatzen du separatismoaren mesprextatuz, hortaz, nabarrismoa XXI. mendeko espainiar nazionalismoaren nafar bertsioa baino ez litzateke izango. Nazionalismo espainiarrarekin batera, “*fuerrismo cuarentaiunista*” deritzona legoke, bere izaera kontserbadoreak lagunduta. Forua, espainiar batasun horretara heltzeko Nafarroak erabilitako formula bezala ulertzen du, bere autonomia paktu bidez ziurtatuta egonik. Integrazio paktu hori itzulezina izango da nabarrismoarentzat, horregatik ez da foru-berrezarkuntzaz fio eta nahiago du Hitzarturiko Legetik abiatu, 1839 aurreko egoerara bueltatzea arriskutsua izango litzatekeelako. Hirugarren elementua euskal nazionalismoaren aurkako jarrera izango da. Miguel Jose Izuk nabarrismoa euskal nazionalismoaren aurkako fenomeno bezala definitzen du, garai berean jaiotako tendentzia bi direla baieztatuz, foruzaletasunaren benetako interpretazioa erabakitzeke norghegiagoka dinamika horretan kokatzen ditu eta antzeko sektore sozialen babesa bilatzen dutela azpimarratu. ETArek sorrera eta ondorengo bilakaera euskal nazionalismoaren aurka joateko beste argumentu bat izango da.

Baina nabarrismoa ez da bakarrik euskal nazionalismoaz babesteko eremua izango. Aldaketaren aurkako defentsa ere izango da, Nafarroako sektore kontserbadoreenekin identifikatzen baita, bere jaiotzatik gertatu bezala: «El navarrismo defenderá la unidad de España frente al nacionalismo que la debilita y la hace vulnerable a la penetración de las ideas revolucionarias. Por ello va más allá de ser una ideología referente a la cuestión foral, una ideología regionalista y se presenta como una ideología defensora del tradicionalismo frente a las ideas progresistas. Se alza frente a ellas como un <<todo>> ideológico defensor de los valores

<sup>110</sup> Ibidem..., 287-296. orr.

tradicionales que son la esencia de Navarra (religión, propiedad, familia, autoridad),

(...) El navarrismo más que una ideología positiva en cuanto afirmadora de una realidad se plantea como una ideología <<anti>> o <<contra>>, aquellas ideas que no interesa que entren en Navarra»<sup>111</sup>.

### 3.4. Trantsizioaren abiatzea Nafarroan

#### 3.4.1. Nafarroako Diputazioa eta foruen berrezarkuntza

Lehenago aipatu bezala, Diputazioko gehiengoak entzungor egin zion gutxieneko demokratiko batzuk exijitzen zituen erakunde horretako gutxiengo erreformistek aurkeztutako mozioari. Hurrengo hilabeteetan, Erreforma Politikorako Legearen erreferenduma eta 1977ko ekaineko hauteskunde orokorrak zirela medio, polemika hoztu egin zen hein batean. 1977ko hauteskundeetan, Del Burgok proposatutako programa nabarristarekin aurkeztu zen Nafarroako UCD. Kongresu eta Senaturako hauteskunde hauetan honakoak izan ziren emaitzak: Kongresurako UCDk hiru eserleku lortu zituen eta PSOEek bi; eta Senaturako UCDk hiru berriro ere eta EAJk bat<sup>112</sup>. Hala, demokratikoki aukeratutako erakundeen eta ordezkari politikoen agerpenak are ulergaitzago egin zuen hauen eta legedi frankistan babestutako haien aldi bereko existentzia. Diputazioaren tesien aldekoa zen AFN – *Alianza Foral Navarra* – kenduta, demokratizazioaren eskaera horretan indar politiko nafar guztiek egingo dute bat. Batzuentzat – nazionalistentzat eta ezkerrarentzat – etorkizuneko euskal autonomia erakunde horretara gehitzea ahalbidetuko zuen organoa lortzeko ezinbesteko pausoa zen; zentro- eskumarentzat, nafar foraltasunaren hobekuntza ziurtatuko zuen bidea izango zen, tradizio foralari jarraituko ziona.

Honela, erreforma oro arbuiatzen zuen Diputazioak ez zuen mugimendu gehiagorik egin 1977ko uda iritsi arte, euskal autonomia-aurreko proiektuaren barruan Nafarroa aipatu arte hain zuzen ere: «No parecía aventurado pensar que la declaración sobre Reintegración Foral Plena, formulada tan inesperadamente por la Diputación Foral, tuviese por una de sus causas la gestación del proceso preautonómico vasco con su pretensión de involucrar a Navarra, pretensión iniciada, sostenida y alentada por los nacionalistas vascos y seguida por algunos sectores de la izquierda»<sup>113</sup>.

Erreforma eskarien aurrean eta euskal probintzien batasuna helburu zuen egitasmo politiko horren aurrean, Diputazioaren gehiengoak askorentzat egikaritu ezin zitekeen proposamen bat luzatu zuen: foruen erabateko berrezartzea<sup>114</sup>, hau da, Nafarroako Erreinuaren erakunde tradizionalak berreskuratzea. Dakigunez, foruen berrezartzeak 1839ko legea baino aurreragoko egoerara bueltatzea – 1839 eta bere ondorio izan zen 1841eko Legea ezabatzea, beraz – suposatzen zuen, XIX. mendean eta karlistek eta fuerista sutsuenek defendatutako asmo politikoa hain

<sup>111</sup> Ibidem, 292. orr. Jatorrizko testua: FERNANDEZ VIGUERA Silvia, *Ideología de Raimundo García <<Garcilaso>> en torno al tema foral. Su evolución: 1903-1931, I Congreso de Historia de Navarra de los siglos XVIII-XIX Y XX* barruan kokatua, Príncipe de Viana, Iruñea, 1986.

<sup>112</sup> Alderdi sozialistarekin batera aurkeztu zen koalizioan.

<sup>113</sup> GORTARI UNANUA Joaquín, *La transición política en Navarra...*, 160. orr.

<sup>114</sup> LOPERENA ROTA Demetrio, *Aproximación al régimen foral de Navarra*, Instituto Vasco de Administración Pública = Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Oñati, 1984; 85. orr.

zuzen. XX. mendearen hasieran, aldiz, bere esanahia ez da hain argia izango. 1918ko Asanbladan ebatzi zenez, ez zen posible 1839 aurretiko egoerara bueltatzea, ezin zen Errejimen Zaharrera jauzi egin berriro ere; foruen berrezarkuntza errejimen foralaren hedatze bat bezala ulertzen hasi zen, eskumen ezberdinen berreskurapen zehaztugabe bat bezala. Atzera bueltatzeko ezintasun hau izan zen hain zuzen, Victor Pradera eta Eladio Esparza bezalako nabarristek etengabe erabili zuten argumentua foruen berrezarkuntza alde batera utzi eta bere ordean 1841eko Legea defendatzeko edota honen eguneratzea, testuinguruak hala eskatuz gero. Hala eta guztiz ere, 1970eko hamarkadan oraindik, berrezarkuntza forala alderdi politikoen programetan azalduko da, nahiz eta bere esanahia argi zehaztu gabe: «Se entiende que reintegración foral equivale a ampliación de la autonomía de Navarra, pero no se precisa su contenido ni sus límites; para algunos sectores del nacionalismo vasco reintegración foral equivale a independencia, para otros del navarrismo una simple actualización del régimen foral compatible incluso con la ley del 1841»<sup>115</sup>. Trantsizio garai hartan inork ez zuen foruen berrezarkuntza arbuia, baina kontzeptu honi bakoitzak irakurketa eta interpretazio pertsonala eman zion, eta gehienetan anbigua eta erabat definitu gabea.

Diputazioa, 1841eko Legea aplikatzea mugatuz bizi izan zen denbora luzez, Espainiako Gobernutik iristen ziren zentralizazio ahaleginen aurrean erresistentzia azalduz. 1977an, aldiz, foruen berrezartzea planteatzen du bere existentzia mehatxatzen duen errealitate berri horretatik ihes egin nahian. 1977ko abuztuaren 20an ezohiko bilera deitu eta orduan eman zuen ezagutzera Diputazioak foruen erabateko berrezarkuntzaren defentsa onartu zuela. Egia esan, Diputazioa zalantzan zegoen egoera horretan jarraitu ala foru-berrezarkuntza eskatu, baina bere muturreko eskaera edo posizio honekin egoerak bere horretan jarrai zezan besterik ez zuen bilatzen<sup>116</sup>.

Azkenean, berrezarkuntza hau irizpide konkretuen bidez aurkeztu zuen, eta irizpide hauen arabera, organo gorenak planteatu zuen berrezarkuntzak Nafarroa 1839. urte aurreko egoerara eramango luke, hau da, probintzia izatetik Nafarroako Erreinua berrezartzera. Tradizionalismo frankistatik tradizionalismo foralera igaro zen. Baina honek, *de facto*, Nafarroa eta Espainiaren arteko harremanak erabat aldatuko lituzke, lehenengoaren independentziara bueltatuz, eta bien arteko lotura Koroa baino ez litzateke izango berriro ere. Nahiz eta bere asmoa ez izan, Diputazioaren abiapuntu hau euskal nazionalismoaren tesietara asko hurbiltzen zen<sup>117</sup>.

Nafarroako eskumak, guztiz bestelako esanahi bat eman zion berrezarkuntza horri eta oso argi zuen zer nolako eduki teorikoa eman nahi zion. 1977 horretako urrian aurkeztutako UCDren programak Del Burgoren tesiei jarraitu zien, eta berrezarkuntza 1839 eta 1841eko legeen indargabetzearekin era argian desberdindu zuen honek: «la reintegración foral plena sólo puede realizarse modificando aspectos importantes de la Ley Paccionada (...) La “interpretación” no sirve, en absoluto, para restaurar las Cortes de Navarra (...) tampoco sirve la vía de la interpretación para recuperar el ejercicio de numerosas competencias que actualmente detenta el Estado. (...) Por “reintegración foral plena” ha de entenderse el propósito de lograr al máximo

<sup>115</sup> IZU BELLOSO Miguel José, *Navarra como problema...*, 360. orr.

<sup>116</sup> ENERIZ OLAECHEA Francisco Javier, *La transición política en Navarra...*, 57. orr.

<sup>117</sup> SANCHEZ PRIETO Juan Maria, NIEVA ZARDOYA Jose Luis, *Navarra: memoria, política e identidad*, Pamiela, Iruñea, 2004; 263-264. orr.



nivel de autonomía compatible con la unidad constitucional»<sup>118</sup>.

PSOEek bat egin zuen EAJrekin berrezarkuntza foralaren gai horretan eta auzia ikuspuntu euskaltzale eta demokratiko batetik planteatu zuen. Lau probintzien funtzionamendu normalizatua ahalbidetzeko beharrezkoa zen lauei eragiten zien 1839ko Legea ezabatzea. Behin hau ezabatuta, 1841koak ez luke inolako zentzurik. Esanguratsua da oso, Gabriel Urralburuk, Nafarroako PSOEn buruak, foruen berrezarkuntza proposamen honen aurrean hartu zuen posizioa: «pese a mostrarse crítico con la Diputación, a la que no reconoce legitimidad democrática para negociar con el Gobierno, está de acuerdo con la reintegración foral plena, que entiende como derogación de la ley de 1839, devolución de la soberanía al pueblo vasco e inicio de un proceso constituyente, que en Navarra se concreta en la creación de un Consejo Foral o Cortes de Navarra constituyentes (...) que determinen qué tipo de régimen autonómico se debe poner a refrendo del pueblo, y a la vez proponga una solución confederal con las provincias vascongadas»<sup>119</sup>. EAJko Manuel Irujok ere berrezarkuntza hau babestuko du, 1839ko Legearen derogazioa bezala ulertzen baitu eta derogazio hau eragina izan zuen lau probintzi horien adostasunarekin egin behar zen bere ustez.

Berrezartze honen inguruan mintzatu zen Iruñeako Tomas Caballero alkatea ere. Berarentzat, benetako eztabaida sortzera zihoan Euskal Autonomia Erkidego horretan Nafarroa ere sartzean zetzan: «este problema real es el que ha hecho moverse a los que no se habían movido, y ha hecho que traigan aquí el tema de la Reintegración Foral, hoy, después de muchos años en los que teniendo más poder no sólo no lo habían traído, sino que habían evitado que otros lo trajeran»<sup>120</sup>. Carlos Garaikoetxeak, aldiz, berrezarkuntza foralari zilegitasun osoa eman zion bere adierazpenean, eta era berean, erakunde tradizionalen izaera zaharkitua erraz eguneratzeko aukera zegoela esan zuen: «renunciar, por utopía, a la reintegración es aceptar como hecho consumado el expolio fundamental: la pérdida de la soberanía originaria y la unidad constitucional»; «unas Cortes Constituyentes de Navarra, elegidas democráticamente por los navarros, pondrían en lenguaje actual aquel poder político perdido»<sup>121</sup>.

Diputazioaren abokatu aholkulariek, ostera, erabaki zuten ez zela unerik egokiena berrezarkuntza foral osoa aldarrikatze, eta foruen hobekuntza esapidea nahiago zutela adierazi zuten. Horrekin batera, uste zuten hobekuntza hori gauzatzeko momentu aproposena Konstituzioa onartu ostean izango litzatekeela. Hau horrela, 1977ko abenduan Diputazioak Foru Batzordera bidali zuen auzia, Gobernu zentralari berrezarkuntza foral osoa proposatzearen alde ala aurka azal zedin. Komisio Iraunkorrek eta Udal Errejimenaren Komisioak batzartu egin ziren proposamen hori analizatzeko. Hauen aburuz, ezinezkoa zen 1839 urte aurreko egoerara bueltatzea eta hau izan zen gehiengoz onartu zen erabakia. Hala ere, gutxiengo batek foruen erabateko berrezarkuntza eskatzeko aukera defendatu zuen.

Honela itxi zen foruen berrezarkuntzaren bidea, eta foruen hobekuntzarena

<sup>118</sup> GORTARI UNANUA Joaquin, *La transición política en Navarra...* II. Tomoa, 166-172. orr.

<sup>119</sup> IZU BELLOSO Miguel José, *Navarra como problema...*, 362. orr.

<sup>120</sup> RAMIREZ SADABA Jose Luis (zuz.), *Democratización y Amejoramiento Foral...*, 91. orr.; jatorrizko testua: GORTARI Joaquin, *La transición política en Navarra...* II. Tomoa; 328. orr.

<sup>121</sup> Ibidem, jatorrizko testua: GORTARI Joaquin, *La transición política...*, II. Tomoa, 340. orr.

ireki.

### 3.4.2. *Legetik legera. UCDren apustua Espainian eta Nafarroan*

Nafarroako Diputazioak proposatutako berrezarkuntza hori euskal autonomiak eragindako erreakzioa izan bazen, Nafarroako UCDk aurkeztu zuen Programa Forala Diputazioaren foru- berrezarkuntza programaren eta euskal aurreautonomiaren aurrean egindako beste bat izan zen<sup>122</sup>. Azken ekimen honen aurrean, Nafarroako izaera politikoaren babesle bezala erreakzionatu zuen nabarrismoak, eduki tradizionalistaz betetako diskurtso horren demokratizazioari ekinez baina bere ardatzari uko egin gabe, beti ere. Foruen berrezarkuntzaren aurka agertu zen, honek Estatuaren batasuna kolokan jartzen baitzuen. Programa Foral hau 1841eko Legean oinarritu zen eta hau izango du erakundearen demokratizazioa heltzeko abiapuntu. Espainiar trantsizioaren ezaugarrietako bat ingeniari politiko izan bazen, trantsizio nafarrak filosofia horretan bertan – legetik legera – aurkitu zuen Nafarroaren prozesua euskal ekimen eta eremutik banatzeko aukerarik onena: «La reapertura del contencioso Navarra-Euskadi y el miedo (...) activó como pantalla protectora toda una argumentación histórico-jurídica que condujo a la Ley de Amejoramiento del Fuero de 1982 entendida como actualización de la Ley Paccionada de 1841»<sup>123</sup>.

Beraz, eta ikusi ahal izan dugun moduan, Diputazioak eta UCDk jarrera ezberdina erakutsi zuten trantsizioaren lehenengo une horretan. Lehenak ez zuen 40 urte luzez mantendutako egoera hori bukatzerik nahi, baina Nafarroako UCD osatzen zutenek aspaldi ikusi zuten erakunde foralak erreformatzeko beharra testuinguru politiko, ekonomiko eta sozial berrian txertatzeko. Gehien aurreratu zen pertsonetariko bat Jaime Ignacio del Burgo izan zen. Hasieratik ikusi zuen Hitzarturiko Legea erreformatzeko beharra eta zuzenean erlazioa dezakegu UCDren Programa Foralarekin. Dokumentu horretan, besteak beste, ondorengo ideiak ezarri ziren: «el derecho del antiguo Reino de mantener su identidad en la España de las autonomías regionales se corresponde con la obligación de los poderes del Estado de respetar el status de Navarra como región autónoma, sin que en consecuencia puedan imponérsele unilateralmente integraciones en otras comunidades regionales»<sup>124</sup>. Nafarroako UCD beldur zen trantsizioko testuinguru horretan, Katalunia eta Euskadirekin eskuzabal izateko asmo – eta betebeharrak, neurri batean – horrekin Estatuaren botereak Nafarroaren integrazioa bultzatuko ote zuen.

Hau horrela, argumentazio oso bat eraiki zuten integrazio hori gerta ez zedin. Nafarroako UCDrentzat, Espainiako beste erregio edo eskualdeetan ez bezala, Nafarroak ez zuen inolako errejimen aurreautonomikorik behar, indarrean zegoen errejimen foralak autonomia marko egonkor bat ziurtatzen ziolako. Diputazioak eta berak eskuan zituen botereak jatorrizkoak ziren, ez ziren Estatuak emandakoak. Azken finean, Nafarroa eta Euskadi egoera desberdinetan zeudela argi uztea zen helburua. Ideia ondorengoa zen: Nafarroa aurretik doa eta ezin du Euskadirekiko dependentsia hori onartu, ezin dira maila berean jarri eta ezin zaie trataera bera eman. Juan Maria Sanchez Prietok eta Jose Luis Nievak horrela diote: «Navarra no

<sup>122</sup> BARAIBAR ETXEBARRIA Alvaro, *Extraño federalismo...*, 127. orr.

<sup>123</sup> SANCHEZ PRIETO Juan Maria, NIEVA ZARDOYA Jose Luis, *Navarra: memoria, política...*, 320-321. orr.

<sup>124</sup> RAMIREZ SADABA Jose Luis (zuz.), *Democratización y Amejoramiento Foral...*, 180. orr.

precisaba de un régimen preautonómico, puesto que nunca había dejado de disfrutar de autonomía; lo que necesitaba era mejorarla dentro del nuevo Estado en construcción. Los vecinos vascongados no se encontraban en la misma situación de partida, y no tenía sentido que fuesen ellos quienes condicionaran los pasos navarros»<sup>125</sup>.

Lehen aipatu bezala, Diputazioak mahai gainean jarritako berrezarkuntza foralaren kontra azaldu zen Nafarroako UCD. Baina, kontzeptu honekin beti gertatu bezala, horrek ez zuen esan nahi berrezarkuntzaren aurka zegoenik, honen inguruko interpretazio pertsonala egin baitzuen. Del Burgorentzat, foruen berrezarkuntza osoa botere zentralaren eta Nafarroako Diputazioaren arteko pakto bitartez adostu beharra zegoen, eta horrek ez luke inola ere Hitzarturiko Legearen indargabetzea suposatuko, lege aldagaitz horretan oinarrituko beharko zen nahi eta nahi ez, honek bermatzen zuelako Nafarroaren egoera juridiko-politikoa. Labur esanda, foruen berrezarkuntza oso hori batasun konstituzionalaren aurka ez doazen eskumenen berreskuratzea litzateke, negoziazio eta pakto bitartez.

Bakoitzak era batera ulertu arren, bazegoen biak elkarlotzen zituen elementurik ere: bai Diputazioak eta bai Nafarroako UCDk ezin onar zezaketen Nafarroak egitura politiko komun bat osatzea gainontzeko euskal probintziekin batera. Helburu hori era batera ala bestera lurrera botatzea izango da euren xedea eta horrek markatuko ditu hurrengo hilabete eta urteetako mugimendu eta gertakariak.

### 3.4.3. Nafar-euskal auzia

Jakina denez, trantsizio garaiaren hasieran, euskal nazionalistak eta ezkerreko indarrak Nafarroa eta gainontzeko euskal probintzien artean autonomia estatutu bakar bat eraikitzearen aldekoak ziren: «Comunistas y socialistas se unían a los nacionalistas en la afirmación de que había sobradas razones étnicas, lingüísticas, históricas y culturales para afirmar que Navarra era parte de Euzkadi y para integrarla, por tanto, en la futura Comunidad Autónoma Vasca»<sup>126</sup>, eta honen aurka zegoen, aitzitik, nafar eskuma.

1977ko urtarrilean, lau euskal probintzientzat Autonomia Elkargo bakar bat sortzeko nahi horren harira, Etxarri-Aranatzeko udaletxeak lau probintzietako udaletxeei egin zien dei hilabete horretako 16an ospatuko zen bilkura baterako. Bertan amnistia osoaren, euskararen koofizialtasunaren eta foru-berrezarkuntzaren aldeko manifestu bat onartzeko asmoa zegoen. Deialdi honek, aurreko urtean Bergarako udaletxeak egindakoa errepikatu nahi izan zuen. Espainiako Gobernuak berehala debekatu zuen deialdi hau eta Rodolfo Martín Villa Barne Ministroa, Nafarroako alkateekin bildu zen. Etxarriko deialdia debekatu izana justifikatu zuen, ordena publikoaren aurkakoa izan zitekeela argudiatuz. Azkenean deialdi onartu egin zuen baina neurri polizial sendoak ezarriz, eta bertako akordiora 173 udaletxe atxiki ziren, horietariko 67 nafar udaletxeak izanik.

Bai Bergaran aurreko urtean antolatutako bilkurak zein Etxarri-Aranatzeko

<sup>125</sup> SANCHEZ PRIETO Juan Maria, NIEVA ZARDOYA Jose Luis, *Navarra: memoria, política...*, 320. orr.

<sup>126</sup> ANDRES-GALLEGO Jose, *Historia de Navarra V. El siglo XX*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1993; 113. orr.

honek, II. Errepublikaren hasieran gertatutako alkateen mugimendua errepikatzea izan zuten xede. Baina oraingo honetan ez du arrakastarik izango, gertaera politikoen gidaritza eta protagonismoa alderdi politikoena izan baitzen. Hala ere, Etxarri-Aranatzeko batzarreko akordioaz gain, bestelako gertaerarik ere azpimarra daiteke: ikurrina. Bilkura honetan, Etxarriko udaletxean ikurrina jarri zuten oraindik Gobernuak hau legeztatu aurretik. Une horretatik aurrera, udaletxe askok ofizialki ezartzea erabaki zuten espainiar banderaren ondoan. Aipatu beharra dago ikurrina jarri zuten udaletxe asko ez zirela nazionalisten gehiengoak zituztenak, edota Nafarroa gainontzeko probintziekin batzearen alde zeudenen aldekoak. Iruñean, esaterako, Tomas Caballero alkatearena – urte batzuk geroago UPNn sartu zena – izan zen iniziatiba, eta hau baieztapen demokratiko bezala eta askatasunen aldeko borrokaren aldeko neurri bezala aldarrikatu zuen. Gogoratu behar da Frankismo garaian, ikurrina errejimen diktatorial horren aurkako erresistentzia ikur bihurtu zela, hau da, Frankismoaren aurkako oposizioaren eta demokrazia eta eskubideen aldeko sinbolo, eta ez bakarrik euskal nazionalistentzat.

Nafarroaren euskal identitatea ekitaldi publiko batean agerian jarri zen eta honek ekarri zuen ondorengo polemika hain zuzen. Ikurrina Nafarroan hedatzen hasi zenean, Diputazioa Nafarroako banderaz gogoratu zen eta honen erabileraren aldeko kanpaina bati ekin zion, nahiz eta une horretara arte nafar bandera Diputazioaren Jauregian baino ez zen egon, udaletxe gehienetan espainiarra eta tokian tokikoa bakarrik zeudelako. Horrela, ikurrinaren hedatzeak nafar banderaren erabileraren hedatzea ekarri zuen berarekin batera. Banderen gerra ere deitu izan zaio. Honen inguruan EAJko Carlos Claveriaren hitzak aipatzekoak dira: «Hace dos años yo solicité en este mismo Consejo que se izara la bandera navarra en todos los centros escolares y edificios públicos dependientes de esta Corporación, pero no se tuvo en cuenta hasta que ondeó la ikurriña»; “Y así, enfrentamiento por enfrentamiento, hemos llegado a la situación actual: Navarra sí, Euzkadi no. Tremendo error»<sup>127</sup>.

Handik hilabete gutxira etorri ziren lehenago aipatu ditugun 1977ko hauteskundeak. Eta hauen ostean, Euskal Parlamentarien Asanblada eratu zen – EAJ, PSOE, PCE, ESEI, ANV eta DCV alderdiek sinatu zuten Konpromiso Autonomikoa izeneko akordioa betez – lau euskal probintzietatik osatutako euskal autonomia-aurreko errejimena bultzatzeko asmoz, gerora autonomia estatutu bihurtuko zena. Asanblada hori eratu zutenek Gobernuarekin mintzaide izateko ardura hartu zuten, lau euskal probintziak batuko zituen autonomia estatutu bat bultzatzearekin batera. Ordezkaritza politikoa haurtzeko gain, lau probintzietako parlamentariak ere batuko ziren ekimen honetara, Nafarroatik PSOE eta EAJko parlamentariak integratuz; UCDkoak – Nafarroan 9tik 6 –, honi kontrajarrita, hasieratik erakutsi zuten ekimen honetan parte ez hartzeko jarrera eta nafar parlamentarien asanblada baten sorrera exijitu zuten. Honekin, euskal ekimenaren logika apurtzea lortuko litzateke, Nafarroako logika horretatik at geratuz eta Asanblada berri hau garantia bat izango litzateke Nafarroa Euskal Autonomia Erkidego horretara sartzeko prozesua martxan jarritz gero<sup>128</sup>.

PSOE eta EAJ, aipatu bezala, ados zeuden, baina Nafarroa prozesu horretara bateratzeko bidean desberdintasunak zituzten: sozialistentzat, behin erakunde foralen

<sup>127</sup> BARAIBAR ETXEBARRIA Alvaro, *Extraño federalismo...*, 157 eta 160. orr.

<sup>128</sup> SANCHEZ PRIETO Juan Maria, NIEVA ZARDOYA Jose Luis, *Navarra: memoria, política...*, 269. orr.

demokratizazioa emanda, nafarrek erabakiko zuten euskal komunitate politiko horri atxiki ala ez; EAJrentzat, berriz, Nafarroaren presentzia ezinbesteko baldintza zen Eusko Kontseilu Nagusia – *Consejo General Vasco* – eratzeko. Azken honen ustez, ezin zen denbora galtzen ibili eta Nafarroak ez zuen zertan beldurrik izan, euren ustez posible baitzen «conciliar el máximo respeto a las instituciones y a la personalidad política de Navarra y de cada territorio histórico vasco, en una organización confederativa que no suponga merma alguna de sus respectivas facultades privativas»<sup>129</sup>.

1977ko udan aipatu Asanblada hau lege-dekretu baten inguruan hasi zen lanean, errejimen aurreautonomiko bat ezartzeko asmotan. Asanblada kontrolatzen zuten indar nagusien artean ezberdintasunak zeuden aipatu bezala – EAJ eta PSOeren artean –, baina azkenean Gobernuarekin negoziatzeko proiektu bakarra adostera iritsi ziren, Asanbladan EEren abstentzioa kenduta denek onartuz. Proiektu honetan euskal nazionalistek defenditutako oinarriak ageri ziren: euskal herriak foruen abolizioarekin galdu zuen subiranotasunaren berreskuratzea eta bere eskubide historikoen aitortza aipatzen ziren; eta horrez gain, lau probintziak batuko zituen autonomia-aurreko errejimen bat planteatu zen, beti ere indarrean zeuden foru-errejimenak errespetatuz. Proiektu honen arabera, probintzia bakoitzeko hamar ordezkari osatutako Kontseilu Konfederal bat ezarriko litzateke; alde batetik, erakunde legegile bezala Batzar Nagusiak eta Nafarroako Foru Batzordea leudeke, eta bestetik, lau Diputazioak erakunde betearazle gisa<sup>130</sup>.

Nabarrismoaren sektoreetatik erantzuna azkar iritsi zen. Proiektu honi dagokionez, onartezina zela kontsideratzen zuten, Nafarroa integratzeko erabakia parlamentarien esku uzten zelako eta ez Diputazioaren gain, eta azken honi zegokion Nafarroaren subiranotasun foralaren ordezkarietza. Gainera, etorkizuneko Euskal Kontseilu Nagusiari, Diputazioari baino ez zegozkion eskumenak egotzi zizkieten, 1841eko Legean adierazitakoaren aurka; eta, azkenik, Nafarroaren errejimen politikoa aldatzeko paktu bat beharrezkoa zela adierazi zuten. Diputazioaren aldetik, nota ofizial bat publikatu zuen azaroaren 3an, Nafarroako erakunde gorena zela aldarrikatuz, eta foruak babesteko zuen betebeharra azpimarratuz<sup>131</sup>. Euskal autonomia-aurreko proiektua aipatu ez arren, idazki horretan Gobernu edota beste edozein erakunderi – hauteskundeetan aukeratutako parlamentariak barne – Nafarroako *statusa* aldatzeko ahalmena ukatu zien. Egun horretan bertan, Amadero Marco diputatua Manuel Clavero Erregioetarako Ministroarekin batzartu zen eta Nafarroa aurreautonomia proiektu horretan azaltzearen aurkako jarrera argi utzi zion.

Amadeo eta Claveroren arteko elkarrizketa ospatu eta gutxira, 1977ko azaroaren 11n, ministroa akordio batera heldu zen Euskal Parlamentariaren Asanbladarekin, eta honetan Nafarroarekiko erreferentzia onartu zen Euskal Kontseilu Orokorren osaketan. Horrela, Kontseilu honetan parte hartzeko erabakitze eskubidea aitortu zitzaion probintzia bakoitzari: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoari Batzar Nagusien bidez, eta Nafarroari, erabaki hau hartzea zegokion organo foralaren bidez

<sup>129</sup> TAMAYO SALABERRIA Virginia, *La autonomía vasca contemporánea...*, 281. orr.

<sup>130</sup> Nafarroako Foru Batzordeak oraindik frankismo garaiko egiturak mantentzen zituenez, adostutakoaren arabera, oraindik demokratizatu gabeko erakunde hau 1977ko ekaineko hauteskundeetan emaitzen arabera osatuko litzateke behin-behineko neurri bezala; IZU BELLOSO Miguel José, *Navarra como problema...*, 367. orr.

<sup>131</sup> GORTARI UNANUA Joaquin, *La transición política en Navarra...*, 170. orr.

– *organo foral competente* –. Inkorporazio prozesua berdina zen denentzat, baina behin-behineko egoera honetan, lurralde bakoitzeko parlamentariak hartuko zuten erabakia, gehiengoz. Alvaro Baraibar Etxeberriak Nafarroaren gaiak izan zuen garrantzia nabarmentzen du. Clavero Ministroak, inkesta bat eskatu zuen nafar lurraldeko errealitate soziokulturala ezagutzeko inkorporazio honen inguruan. Emaitzak ondorengoak izan ziren: %60a aurka eta %40a alde, ezberdintasun handiekin zonaldeen arabera. Claverorentzat negoziaketetan erabilitako formulazioak Nafarroaren inkorporazioa ezeztatzen zuen hasiera batean – eta hala zen – UCDko parlamentariak horren aurkakoak baitziren; eta bigarren aldi batean, erabakia zegokion organo foralaren esku uzten zuen<sup>132</sup>.

Honek ez zituen, ordea, Nafarroako UCD eta Diputazioa asetu eta urduritzen hasi ziren. Ez zen lehenengoak bere Programa Foralean zeraman erreferenduma kontuan hartzen, ez eta bigarrenaren esku-hartzea planteatzen. Azaroaren 11 horretan bertan, Diputazioak telegrama bana bidali zien Gobernuko presidenteari eta Clavero ministroari Nafarroaren izena lege-dekretuan azal ez zedin exijituz. Hurrengo egunean, UCDko parlamentari nafarrak bi hauekin batzartu ziren eta Nafarroaren erakunde gorenaren aldeko argumentuak erabiliz, 1841eko Legeari eragin ziezaiokeen edozein erabaki Nafarroako Diputazioarekin negoziatu beharra zegoela gogoratu zuten. Bi egun beranduago, Diputazioa izan zen Madrilen aurkeztu zena. Ministroak argi utzi zien diputatuei Gobernuaren planteamenduak eta erabakiak nafar errejimen forala errespetatuko zuela, eta lege-hauste edo kontraforuen mehatxuek ez zuten eraginik izan Claverorengan. Irizpide juridikoak bildu zituen gai honen inguruan, eta hauek ziotenaren arabera ez zegoen lege-hausterik Nafarroaren izena euskal aurreautonomia proiektuan aipatzean, Gobernuak izen hau edonoiz erabil zezakeelako, beti ere araudi bat inposatzeko xedearekin egiten ez bazuen, eta kasu honetan ez zen halakorik gertatzen Nafarroarengan zegoelako erabakitze eskubidea<sup>133</sup>.

Elkarrizketa horren ondoren, Diputazioak informe bat eskatu zien bere aholkulariei, eta hauek Gobernuarekin negoziazio baten aldeko azaldu ziren. Nafarroaren integraziorako baldintzen artean, erreferendumean gehiengo kalifikatua (%66a) ezartzeko asmoa agertu zuten eta prozesu hau itzulezina izango ez balitz, errepikatzekotan ahalik eta gehien atzeratzea. Beste alde batetik, Diputazioa zokoratuta sentitzen zen prozesu guzti honetan eta abenduaren 3an manifestazioa deitu zuen, euskal aurreautonomiaren aurka<sup>134</sup>.

Bien bitartean, UCDko nafar parlamentariak Madrilen egindako gestioek eta presioak emaitzak eman zituzten, Nafarroako Parlamentarien Batzordea sortuz azaroaren 25ean. Batzorde honen zeregin nagusia euskal autonomia aurreko lege-dekretuan esku-hartzea izan zen. Ekimen hau Nafarroako UCDren programan zegoen, erakundeen demokratizazioa eta Euskadirekin batzeko ustezko aukera hori kudeatzeko estrategian kokatuta. Honen aurrean, Euskal Parlamentarien Asanbladaren erreakzioa berehalakoa izan zen, azaroaren 11n adostutako testura bueltatuz. Baina Gobernu espainiarrean posizio aldaketa nabaria zen dagoeneko, eta Del Burgo konbentzituta zegoen ez zuela Asanbladak adostutako autonomia- aurreko proposamena onartuko. Del Burgoren asmoa nafar herriaren kontsulta gehitzea zen,

<sup>132</sup> BARAIBAR ETXEBARRIA Alvaro, *Extraño federalismo...*, 146. orr.

<sup>133</sup> Ibidem, 147. orr.

<sup>134</sup> IZU BELLOSO Miguel José, *Navarra como problema...*, 369. orr.

behin zegokion organo foralak integrazioaren aldeko hautua eginda. Clavero ministroak, aldiz, ez zuen Suarezzen baimenik behin-behineko izaera zuen autonomia aurreko errejimen bati erreferendum bat gehitzeko. Azkenean, akordioa geldiaraztea lortu zuten nabarristek eta Suarezek, Nafarroako UCDeekin batera egingo zen negoziaketa berri batera gehitzeko proposatu zion Euskal Parlamentarien Asanbladari. Euskal aurreautonomia Nafarroako UCDeekin berriro negoziatzeko egindako proposamen honek protagonismoa eman zion eztabaida honetan Nafarroako Parlamentarien Batzordeari eta nabarristen tesien erabateko aitortpena suposatu zuten<sup>135</sup>.

Abenduan zehar eman ziren euskal eta nafar asanbladen eta Gobernuaren arteko negoziaketak. Programa Foralean ageri zen erreferendumaren ideia hau izan zen eztabaida- puntu nagusia, eztabaiden ondoren, abenduaren 30ean akordio batera iritsi ziren. Akordio horrek zioenez Nafarroa Euskal Kontseilu Nagusira batzea ala ez erabakiko zuen organoa Gobernua eta Diputazioak adostu behar zuten, eta organo horrek integrazioaren aldeko hautua egitekotan, nafarrek erreferendum bidez erabakiko zuten. Era berean, UCD, PSOE eta EAJk proiektu konstituziogilean integrazio hori arautuko zuen xedapen iragankor bat defendatzeko konpromisoa hartu zuten.

Alde guztien akordio honen emaitza 1978. urteko urtarrilaren 4ko lege-dekretu bi izan ziren: bata euskal aurreautonomia errejimenaz ezarri, eta bestea, Nafarroa errejimen honetara batzeko prozedura arautuz. Lege-dekretu hauek Nafarroako UCDeen garaipena suposatu zuten, azken batean Nafarroa Euskadira batzeko bide ezberdin bat aitortu zelako, tratu ezberdindu bat lortuz, existitzen zen benetako desadostasun baten isla. Horrez gain, UCDek euskal aurreautonomiari emandako baietak, barnean oposizio argia zeraman eta hori laster jarri zen agerian. Eztabaida konstituzionala Nafarroa eta gainontzeko probintzien arteko ezberdintasunak areagotzea bilatzen zuen estrategia hori indartzeko aukera egokia izango zela pentsatu zuten Nafarroako UCDek. Lege-dekretuak Estatuko Aldizkari Ofizialean – BOE – agertu baino lehenago azaldu zen eztabaida. Oraingoan, integrazioaren erabakia zegokion organo foralean eta erreferendumean Nafarroaren integrazioa onartzeko beharrezko ziren gehiengo mota ezberdinak – sinplea edo kalifikatua – izan ziren eztabaidaren muina. Lege-dekretuetan puntu honetan zegoen definizio ezak interpretazio desberdinak sorrarazi zituen. EAJ eta PSOErentzat aukera bakarra zegoen: botoen gehiengo soilak. UCDek neurri batean iruzur egin ziela sentitu zuten, gehiengo kalifikatua exijituz. Nafarroako UCD integrazioaren bidea ahalik eta gehien oztopatzen saiatuko zela argi zegoen beste behin ere<sup>136</sup>.

#### **3.4.4. Konstituzioaren negoziaketak**

Prozesu konstituzionala 1977ko uztailaren 25ean hasi zen Askatasun ~~Publikoen eta Gai Konstituzionalen~~ Batzordearen sorrerarekin. Jakina denez, Batzorde hori UCD, PSOE, PCE, AP eta CIUko ordezkariak osatu zuten. Konstituzioak bere bidea egin behar izan zuen Ponentziatik hasita, Kongresutik eta azkenean Senatutik igarota. Hasiera batean, inork ez zuen uste probintzia foralen eskubide historikoen inguruko xedapen zehatzik beharko zenik –Nafarroaren

<sup>135</sup> SANCHEZ PRIETO Juan Maria, NIEVA ZARDOYA Jose Luis, *Navarra: memoria, política...*, 271.

orr.

<sup>136</sup> BARAIBAR ETXEBARRIA Alvaro, *Extraño federalismo...*, 163. orr.

integrazio xedapena ez zen 1977. urte bukaerara arte proposatu ikusi dugunez – Konstituzioan. Izan ere, XIX. mendeko konstituzioetan ez zen gai hau aipatu, nahiz eta gero lege konstituzionalen bidez konpondu. Errepublika garaian, berriz, probintzia hauen egoera egokitzeko 1931ko Konstituzioak ezarritako autonomia estatutuen proposamenak nahikoak zirela uste izan zen.

Nafar auziak, beraz, Konstituzioaren bide bera jarraitu zuen, bere identitatearen inguruko eztabaida prozesu konstituzionalean txertatuz. Borroka hori hiru xedapenetan zentratu zen: Lehen Xedapen Gehigarrian – *Disposición Adicional Primera* –, Laugarren Xedapen Iragankorrean – *Disposición Transitoria Cuarta* – eta Indargabetzeko Xedapenean – *Disposición Derogatoria* –. Xedapen hauek, euskaldunak – Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian bizi diren biztanleei erreferentzia eginez – eta nafarrak gainontzekoetatik desberdintzeko batzuen nahiari erantzun zioten batez ere; baina aldi berean eta hein handi batean, baita euskaldunak eta nafarrak euren artean desberdintzeko nahiari ere. Eztabaida konstituzionala, hortaz, identitatearen inguruko polemiken eszenatoki bihurtu zen. Horren froga da Estatuko alderdi nagusiek lehenagotik osatutako Ponentzia Parlamentarioaren aurreproiektuan ez azaltzea ondoren hiru xedapen horietan bildu ziren edukiak<sup>137</sup>.

1978ko urte horretan EAJ izan zen eskubide historikoen eta berrezarkuntza foralaren gaia mahai gainean jarri zuena eztabaida konstituzionalean. EAJk berak aitortu bezala, foraltasuna eta estatutismoa bat egiteko beharra ikusten zuen, federalismoaren ideia izanik honetarako aukera ematen zuena. Federalismoak paktu bikoitza egikaritzea ahalbidetu zezakeen: alde batetik, eraikitzeaz zegoen Euskal Autonomia Erkidego hori eta Espainiaren artean, eta bestetik, lau euskal probintzien artean. Hau izan zen EAJren ideia, foruzaletasuna eta estatutismoaren uztarketa, Nafarroak izan zezakeen mesfidantza arriskutsua izan zitekeela kontuan izanda. Euskal Herriak – gazteleraz “*País Vasco*” bezala itzulita – Konstituzioaren aurretik zuen jatorrizko subiranotasunaren aitortza eskatzen zen; eta behin hau argi izanda, alderdi nazionalistak Estatuko gainontzeko herriekin elkartasun eta errespetu harremana izateko nahia adierazi zuen, negoziazioan edo paktuan oinarrituta<sup>138</sup>.

Emendakin hauek gainontzeko aktore politikoen erreakzioa ekarri zuen. EAJren proposamena ez zen onartu, subiranotasuna espainiar herriarena zela ezarri baitzen, espainiar herriarena bere osotasunean, hots, subiranotasun nazionala zen baliozko bakarra. Horren ondorioz, lurralde foralaren eskubide historikoen aitortzaren gaineko emendakin bat adostu, idatzi eta onartu zen. Formula bere horretan heldu zen Konstituzioaren idazketara Lehen Xedapen Gehigarri bezala:

La Constitución ampara y respeta los derechos históricos de los territorios forales. La actualización general de dicho régimen foral se llevará a cabo, en su caso, en el marco de la Constitución y de los estatutos de autonomía<sup>139</sup>.

Nafarroako UCDk ez zuen hasiera batean inolako erreakziorik izan, euren ustez, konpontzen saiatzen ari ziren arazoa euskal arazoa zelako, nafarrekin zerikusirik ez zuena beraz. Horregatik ez zitzaion kostatu bere babesa ematea testu

<sup>137</sup> GORTARI UNANUA Joaquin, *La transición política en Navarra...*, 429. orr.

<sup>138</sup> IZU BELLOSO Miguel José, *Navarra como problema...*, 374. orr.

<sup>139</sup> [http://www.lamoncloa.gob.es/Espana/LeyFundamental/disposiciones\\_adicionales.htm](http://www.lamoncloa.gob.es/Espana/LeyFundamental/disposiciones_adicionales.htm); [2013ko abenduaren 9an].



horri. Ondoren, Nafarroako UCDren helburua xedapen honen bigarren paragrafoa Nafarroari ez aplikatzea izango da. Bere ustez, Nafarroak ez zuen bere errejimen forala eguneratu behar ez zirelako foruak ezabatu beste hiru probintzietan gertatu bezala. Hitzarturiko Legeak autonomia forala gorde zuen hein handi batean eta, hortaz, paktu berri bat baino ez litzateke beharko erakundeak demokratizatu eta batasun konstituzionalaren aurka ez zihoazen eskumenak berreskuratzeko. Hau horrela, autonomia izanda ez zen beharrezko Estatutu bat<sup>140</sup>.

Ildo beretik joan ziren Diputazioaren ekimenak. Emendakin hori onartu eta denbora gutxira, Diputazioa Martin Villarekin bildu zen bere desadostasuna agertuz. Nafarroako errejimen paktatua gainontzeko hiru probintzien errejimenetik era argian banantzea eskatzen zuen Diputazioak. Horrez gain, aholkulari eta parlamentariekin batzartzea erabaki zuen konstituzio proiektua aztertzeko helburuarekin. UCD eta PSOEko parlamentarien arabera, Xedapen Gehigarri horren lehen paragrafoa – eskubide historikoen aitortza – baino ezin zitzaiokeen aplikatu Nafarroari, ez ordea bigarrena, bere foruak ez zirelako ezabatu 1841eko Legeari esker, hiru probintzien eta azken honen egoera ezberdinduz. Honek UCDrentzat ez zuen bakarrik egoera ezberdina suposatzen, baita jarraitu beharreko bide ezberdin bat ere. Horrela, bigarren paragrafoa ezabatzeko eskatu zuen Diputazioak, edo bestela berak proposatutako beste batengatik aldatzea. Xedapenaren arabera, eskubide historikoen muga Konstituzioaren markoa izango litzateke, eta EAJ ez zegoen muga hau onartzeko prest. Baina ez bata ez besteak ez zuten euren asmoa lortu xedapena bere horretan igaro baitzen Senatura eta honetan ere ez zuen inolako aldaketarik izan, hasierako formula mantenduz.

Hain zuzen ere, xedapen honen inguruan Senatuan eman ziren eztabaidetan hasi zen EAJren eta PSOEren arteko hurbiltasun eta lankidetzara jarrera hori okertzen. Sozialistek aspektu oso positiboak ikusten zituzten Konstituzioan, eskubide hauen eztabaidak gorabehera. Horrez gain, EAJren euskal herriaren ordezkari bakar bezala agertzeko asmoa kritikatu zuten. Senatuko osoko bilkuran gero eta argiago geratu ziren batzuen eta besteen arteko desberdintasunak, UCD-PSOEren arteko elkar-ulertzea indartuz. Azkenean, osoko bilkurak ere testua bere horretan mantendu zuen PSOE UCDrekin batuz bozketan eta EAJ-PSOEren arteko paktu autonomikoaren haustea irudikatuz. Estatu mailako politikan sozialistek erakutsi zuten konpromisoa handiagoa izan zen beste aspektu batzuk baino eta hau erabakiorra izango da, ondoren ikusiko dugun moduan, aurrerago Nafarroa-Euskadi aferaren aurrean izan zuen jarrera aldaketa ulertzeko<sup>141</sup>.

Emendakin honen negoziaketa prozesuarekin batera eman zen euskal aurreautonomian airean geratu zen Nafarroaren integrazioaren gaineko xedapenaren negoziaketa. Abenduaren 30ean adostutako konpromisoa betetze aldera – proiektu konstituziogilean Nafarroaren integrazioa arautuko zuen xedapen iragankor bat defendatzea –, 1978ko urtarrilean Nafarroa euskal autonomiara integratzeko emendakin hori negoziatzen hasi ziren UCD, PSOE eta EAJ. 1978ko urtarrilean onartutako dekretuek atea irekita utzi zuten Nafarroaren integratzearako, baina hori gauzatzeko Konstituzioan neurri hau bermatuko zuen xedapen gehigarri bat onartu beharra zegoen. Baina 1977ko abenduaren 30eko akordio horiek berretsi beharrean,

<sup>140</sup> SANCHEZ PRIETO Juan Maria, NIEVA ZARDOYA Jose Luis, *Navarra: memoria, política...*, 282.

orr.

<sup>141</sup> IZU BELLOSO Miguel José, *Navarra como problema...*, 375. orr.

Nafarroako UCDk proposamen bat aurkeztu zuen, Nafarroa Euskadin integartzeko prozesu horretan elementu berriak gehituz. Integrazioa abian jartzeko ekimena, erabaki hori zegokion erakundeak horretako partaideen bi herenak onartu beharko luke, ondoren erreferendum bidez berresteko. Baina berritasun nagusia Nafarroa entitate desberdindu bezala definitzeko bide berezi bat lortzeko ahalegina izan zen, eta honekin batera errejimen nafarra Konstituzioan txertatzea lortzea, Euskaditik kanpo. Emendakin honetan, Nafarroako UCDk Diputazioak defendatukoarekin adostu zuten elementuak bildu zituen. Honen arabera, 1841eko Legeari esker, Nafarroak bazuen jada Konstituzioak beste batzuei laster aitortuko ziena baino lehenagokoa zen autonomia errejimen bat. Hortaz, ezberdindutako entitate autonomo horren existentzia eztabaida ez zena zen eta Konstituzioaren aurretikoa<sup>142</sup>.

Nafarroako UCDren jarrera ikusita, oso zaila zen emendakinaren inguruan akordio batera iristea. Egoera eta zailtasunaz jabetuta, Suarezek negoziaketa mailaz igo zuen, alderdien zuzendaritza-batzordera hain zuzen. UCDtik del Burgo, Herrero de Miñon eta Abril Martorell izan ziren negoziaketetan; PSOEtik Benegas, Mugica eta Urralburu; eta PNVtik Ajuriaguerra, Aguirre eta Garaikoetxea. Urtarrilaren 25ean, 778. emendakina adostu zuten, hots, gerora Konstituzioko Laugarren Xedapen Iragankorra izango zena adostera iritsi ziren: Nafarroaren integrazioa abiarazteko ahalmena, oraindik argitu gabe zegoen erakundeak hartuko zuen bere gain beratu osatzen duten kideen gehiengoaz, eta ekimena nafar herritarrek berrestu beharko zuten emandako botoen gehiengoarekin erreferendum bidez; ekimena ez onartzekotan ezingo zatekeen legealdi berean errepikatu, eta edozein kasutan, ez bost urte baino lehenagoko tartean. Alabaina, ez ziren UCDko nafar parlamentarien espektatiba guztiak bete, eta honek eskualdeko batzordea akordioa baztertzera eramanean zuten. Euren jarrera, integrazioarako eman beharreko pausoak Gobernu eta Diputazioaren artean adostu behar zirela esanez justifikatu zuten, besteak beste. Galdeketa egiteko bost urteko epearen inguruan, onartezina iruditu zitzaizkien Nafarroaren identitatea behin-behineko egoera batean mantentzea zela uste zutelako. Gauzak horrela, Nafarroako UCDk emendakin bat aurkezteko eskatu zion bere parlamentariei, eta hala egin zuten Astrain Lasak urtarrilaren 30ean, 778 bis emendakina aurkeztean. Emendakin honek ez zuen bakarrik Gobernu eta Diputazioaren arteko adostasun behar hori nabarmentzea bilatzen, baizik eta adostasun horren iragankortasuna azaleratzea, hau da, behin Nafarroak bere egitura autonomoa eraikita, beste erkidego bati batzeko prozedura guzti hau indarrrik gabe uztea<sup>143</sup>.

Hala ere, azkenean ez zen aipatu emendakin hau aurkeztu eta xedapena aho batez onartu zen. Ez zuten amore eman, ordea, UCDko nafar parlamentariak, Senatuan azken ahalegin bat eginez. 1978ko udan, lan-bilerak antolatu ziren Diputazioa, Foru Batzordea eta nafar parlamentarien artean Konstituzioak Nafarroarengan izan zitzaizkeen ondorioak ikertzeko asmoz. Abuztuaren lehenengo eguneko bileran Laugarren Xedapena izan zuten hizpide, eta hiru proposamen luzatu ziren: bata EAJk eta PSOEk bultzatuta, bestea UCDk proposatutakoa eta azkena foru-kontseilariena. Irujok eta Urralburuk ez zuten Kongresuan onartutakoa aldatzerik nahi; beste biek, berriz, elementu berriak sartu nahi zituzten. UCDk, aurretik aurkeztutakoez gain, elementu berriak sartu zituen. Gehiengoei zegokienez, integrazioaren ekimena zegokion organoan gehiengo soila izatea onartzen zuten, baina erreferendumean hautesle-eroldaren gehiengoa exijitzen zuten,

<sup>142</sup> RAMIREZ SADABA Jose Luis (zuz.), *Democratización y Amejoramiento Foral...*, 218. orr.

<sup>143</sup> IZU BELLOSO Miguel José, *Navarra como problema...*, 371-372. orr.

eta ez botoen gehiengoa. Hautesle-errola honetan agertzen ziren pertsonen aparte, kanpoan bizi ziren Nafarroan jaiotakoek ere boto eskubidea izango zuten. Horrez gain, integratzeko prozesuaz gain, aurreko egoerara bueltatzeko mekanismoa eskatzen zen eta indarkeriak iraun bitartean erreferenduma ezin antola zitekeela argudiatu zuten. Bukatzeko, eta Nafarroak integrazioa onartuz gero, Estatutu berri bat prestatu beharko litzateke Euskal Kontseilu Nagusiaren eta Diputazio foralaren artean, eta gero lurralde bakoitzak onartu beharko luke galdeketa bidez beste behin. Hala ere, UCDk barneko desberdintasunak nabaritzen hasi ziren. Batzuk, Laugarren Xedapenean alde onak ikusten zituzten, baina beste batzuk ez zuten hau onartzen, Nafarroa Euskadirekin batzeko aukeraren aurka zeuden erabat, Jesus Aizpun izanik jarrera zurrun horren adibiderik nabarmenena<sup>144</sup>.

Hiru proposamen horiez gain, beste kontseilari-foral batzuen izenean Rafael Gurreak aurkeztutako laugarren proposamen bat azaldu zen. UCDren emendakinetik landua, hautesle-errolaren gaineko gehiengoa eta Nafarroatik kanpo bizi zirenen boto eskubidea ezabatu zituzten eta hauxe izan zen babes handiena jaso zuena. UCDk, aldiz, bi emendakin aurkeztu zituen azkenean, baina azkeneko orduan, gutxieneko emendakin bat sartzen saiatu zen aurreko biak alboratuz Senatuko Batzorde Konstituziogilean. Azken mugimendu honek ez zuen inor konbentzitu eta Laugarren Xedapen Gehigarria bere horretan onartu zen. Honako hau zioen:

En el caso de Navarra, y a efectos de su incorporación al Consejo General Vasco o al régimen autonómico vasco que le sustituya, en lugar de lo que establece el artículo 143 de la Constitución, la iniciativa corresponde al Órgano Foral competente, el cual adoptará su decisión por mayoría de los miembros que lo componen. Para la validez de dicha iniciativa será preciso, además, que la decisión del Órgano Foral competente sea ratificada por referéndum expresamente convocado al efecto, y aprobado por mayoría de los votos válidos emitidos.

Si la iniciativa no prosperase, solamente se podrá reproducir la misma en distinto período del mandato del Órgano Foral competente, y, en todo caso, cuando haya transcurrido el plazo mínimo que establece el artículo 143<sup>145</sup>.

Nafarroako UCDk ez zuen bere alderdiaren babesa jaso honetan, bere ekarpen guztiak albo batera utziz. Hala ere, honek ez zuen inola ere porrot bat suposatu. Azken finean, Laugarren Xedapenak Nafarroako UCDk hasieratik mantendutako ekimena suposatzen zuelako, bere unean Gobernuaren iritzia aldatzea lortuz eta euskal aurreautonomiaren inguruko prozesu guztia bere tesietara hurbilduz<sup>146</sup>.

Indargabetzeko Xedapena – *Disposición Derogatoria* – izan zen azken borroka eremua. Hasiera batean, xedapen hau Frankismoko Oinarrizko Legeak eta Erreforma Politikorako Legea ezabatzeko asmoz eta Konstituzioaren aurka zihoan beste edozein xedapen ezeztatzeko asmoz jaio zen Batzorde Konstituzionalean. Hau izango zen legetik legerako trantsizio honen azkeneko pausua. Hasierako xedapen honi bigarren zati bat gehitzeko proposamena ondoren etorri zen. Bertan 1839 eta 1876ko legeen derogazioa eskatzea zen asmoa. Miguel Herrero de Miñon UCDko kidea izan zen emendakin honen eskaria egin zuena – EAJko kideak ez zeuden

<sup>144</sup> RAMIREZ SADABA Jose Luis (zuz.), *Democratización y Amejoramiento Foral...*, 222. orr.

<sup>145</sup> [http://www.lamoncloa.gob.es/Espana/LeyFundamental/disposiciones\\_transitorias.htm](http://www.lamoncloa.gob.es/Espana/LeyFundamental/disposiciones_transitorias.htm); [2013ko abenduaren 9an].

<sup>146</sup> SANCHEZ PRIETO Juan Maria, NIEVA ZARDOYA Jose Luis, *Navarra: memoria, política...*, 281. orr.

momentu hartan, UCDk Xedapen Gehigarriaren eztabaidan izan zuten jarrera zela eta bileratik alde egin baitzuten – baina Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiaren kasurako soilik:

En tanto en cuanto pudiera conservar alguna vigencia, se considera definitivamente derogada la Ley de 25 de octubre de 1839 en lo que pudiera afectar a las provincias de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya. En los mismos términos se considera definitivamente derogada la Ley de 21 de julio de 1876<sup>147</sup>.

Hasiera batean 1839ko lege honen derogazioa Nafarroan ere aplikatzea planteatu zen, baina emendakin honekin xedapenetik kanpo geratuko zen. Herrero de Miñonek aurkeztutako emendakinak, ostera, Nafarroako UCDren planteamenduei egin zien mesede, 1841eko Legearen oinarri juridikoa zegoen bezala mantenduz eta honen baliagarritasun eta legitimotasun osoa mantenduz. Guzti hau airean gera zitekeen Nafarroa xedapen horretan agertuz gero. Del Burgok defenditu bezala, Nafarroako UCDk ez luke inola ere onartuko 1839ko legearen derogazioa, horrek 1841eko Legeak ezarritako errejimena erreformatzeko zuten asmoa behera botako zuelako guztiz. Espainiar trantsizioaren eskemari jarraitu nahi izanez gero – legetik legera – eta Foruaren Hobekuntzara heltzeko, ezinbestekoa zen 1841eko Hitzarturiko Legea mantentzea, eta era berean, 1839koa azken batean, honek ziurtatzen zuelako bestearen oinarri juridikoa. Foralismo erreformistak 1839ko legea behar zuen ezinbestean bere asmoak betetzeko, eta horrek foralismo tradizionalistatik eta euskal nazionalismotik bereizteko balio bazuen, askoz ere hobe<sup>148</sup>. Beste behin, Nafarroako UCDk bere alderdiari egindako presioek eragina eta ondorioak izan zituen, Herrero de Miñonen emendakina Kongresuko osoko bilkuran onartu baitzen.

Azkenean, Senatuan ere aldaketarik gabe onartu zen xedapena. Nafarroa Indargabetzeko Xedapenetik kanpo geratu zen beste hiru probintzietan 1839 eta 1876ko legeak indargabetu ziren bitartean. Beraz, euskal nazionalistentzat 1839ko Legea foruen abolizioen legea izan zen bitartean, nabarristentzat foruak mantentzeko funtsezko elementua suposatu zuen<sup>149</sup>. Nafarroarekiko isiltasun hau foralismo erreformistarentzako beste garaipen bat izan zen. 1839ko legea mantenduz, Nafarroak bere autonomiarako bide propioa egiteko aitzakia zuen orain, eta batez ere, gainontzeko euskal probintzietatik era argian desberdindutako bide bat<sup>150</sup>.

### 3.5. Nabarrismoaren garaipenerantz: LORAFNA

Konstituzioa onartuta, foru-erakundeen demokratizazioari heldu beharra lehentasun bihurtu zen. Diputazioa eta Gobernuaren arteko elkarriketak, hauteskunde lokalen gaineko eta Nafarroako erakunde foralen ordenazioaren inguruko 1979ko urtarrilaren 26ko 1979/12 Lege- Dekretuan islatu ziren. Dekretu honek 1841eko Legearen mitifikazioa berretsi zuen. Hau, Hitzarturiko Lege horren egokitze edo eguneratze bezala sortu zen, eta zentzu horretan, 1841eko Lege horrek indarrean jarraituko luke, egoera berriei egokituta. Dekretuari ere “*paccionado*” esapidea gehitu izana esanguratsua da oso, tradizio paktista horri keinu eginez eta paktuaren ideia orainaldira ekarriz. Hala ere, funtsean, nafar egoeraren demokratizazioa

<sup>147</sup> <http://www.congreso.es/consti/constitucion/indice/titulos/articulos.jsp?ini=1&tipo=5>; [2013ko abenduaren 9an].

<sup>148</sup> RAMIREZ SADABA Jose Luis (zuz.), *Democratización y Amejoramiento Foral...*, 245 eta 247 orr.

<sup>149</sup> LOPERENA ROTA Demetrio, *Aproximación al régimen foral...*, 90. orr.

<sup>150</sup> SANCHEZ PRIETO Juan Maria, NIEVA ZARDOYA Jose Luis, *Navarra: memoria, política...*, 288. orr.

negoziaezina zen, hortaz, paktuari erreferentzia eginez burutu zen formalizazio juridiko horrek ez zuen inolako garrantzirik. Dekretu honek argitu zuen Euskadin integratzeko ekimena baimen zezakeen organo forala Parlamentu Forala izango zela, eta ez Diputazioa. Gertaerak Nafarroako UCDk bere Programa Foralean aurkeztutakoaren arabera ari ziren gertatzen: 1979ko Dekretu honek, estatu mailan Erreforma Politikorako Legeak bete zuen papera beteko zuen.

Akordio honetara iristeko arrazoi ezberdinak izan arren, paktu bezala funtzionatu eta azaldu zuten, eta honek Nafarroaren jatorrizko autonomiaren tesia indartu zuen; eta planteamendu honek Foruaren Hobekuntzara eramango zuen paktu berri bat eskatzen zuen, ezinbestean. Nafarroak berezko prozesu konstituziogilea izan zuen, berau desberdindutako komunitate politiko izatera eramango zuena<sup>151</sup>.

Floren Aoizek oso argi hitz egiten du “paktu” honen inguruan:

Ante la obstinación de Amadeo Marco y los suyos, fue necesario que interviniera el propio Gobierno español y aclarara a la Diputación que su papel se limitaba a la democratización de las instituciones forales, lo que no deja de ser una aberración, ya que implicaba otorgar a una institución franquista una representatividad que la calle le negaba a gritos”; “Las conversaciones con el Gobierno (...) dan lugar a un acuerdo que se firma en Madrid el 26 de enero de 1979, entre Amadeo Marco y Adolfo Suárez, en un patético intento de escenificar el mito pactista. Así, de nuevo al margen del pueblo, una limitada cuadrilla de políticos en su mayoría ajenos a la lucha antifranquista, los caciques franquistas y el Estado imponen una nueva institucionalización de la Navarra sola<sup>152</sup>.

Lege-Dekretu horrek ezarritakoarekin, 1979ko hauteskondeek emaitza esanguratsuak ekarri zituzten. Nafarroako lehen parlamentua oso zatitua jaio zen: UCDk 20 eserleku izan zituen, PSOEk 15, UPNk 13, HBk 9, Merindateetako Hautes Elkarteak – euskal nazionalismotik hurbil kokatuak eta ondoren Amaiur izeneko talde parlamentarioan batuko zirenak – 7, euskal nazionalistek – EAJ, PTE, EE eta ESEI – 3, eta azkenik, Euskal Herriko Karlista Alderdiak (EKA), “*Unión Navarra de Izquierdas*” (UNAI), eta “*Agrupación Electoral Independientes Forales Navarros*” (IFN) alderdiek, bana. Hori parlamentuari dagokionez. Diputazioaren osaketan honakoa izan zen emaitza: UCDk 4 diputatu lortu zituen, PSOEk 1, HBk beste 1 eta azkena Orhi-Mendi izeneko hautes elkarteak. Floren Aoizek dioen moduan, Iruñeako diputatua lortzeko zorian egon zen HB, UCDren kaltetan, eta hau gertatu izan balitz, UCDk Diputazioaren kontrola galduko zukeen, egoera politikoa guztiz aldatuz<sup>153</sup>.

Edonola ere, UCD izan zen garaile azkenean, baina Diputazioaren konposizioak bere funtzionamendua asko zaildu zuen, Diputazioa sistema parlamentarioaren arauen arabera osatzeko eskaerak berretsiz beste behin ere. Lehen aipatu bezala, parlamentuak ez zuen inolako gaitasunik Diputazioa kontrolatzeko, baina azken honen osaketak islatzen zuen banaketak sortutako ahuleziak, bi erakundeen arteko nolabaiteko parekotasuna izango du emaitza bezala. 1979n sortutako foru-erakundeen zeregina errejimen foralaren erreforma izan zen, 1841eko Legeak ezarritakoarekin bat eginez, errealitate sozial, ekonomiko eta politiko berrira egokitzeko<sup>154</sup>.

<sup>151</sup> RAMIREZ SADABA Jose Luis (zuz.), *Democratización y Amejoramiento Foral...*, 250-251. orr.

<sup>152</sup> AOIZ Floren, *El jarrón roto: la transición en Navarra...*, 303. orr.

<sup>153</sup> Ibidem, 310. orr.

<sup>154</sup> IZU BELLOSO Miguel José, *Navarra como problema...*, 360. orr.

Garai berri hau 1979ko ekainaren 8an hasi zen. Egun horretan, Diputazioak Foru Hobekuntzaren inguruko negoziaketan inguruko elkarrizketen hasiera iragarri zuen Estatuarekin, eta 1982ko abuztuaren 16ra arte luzatu ziren hauek, orduan argitaratu baitzen EAOn – BOE gazteleraz – LORAFNA famatua (*Ley Orgánica de Amejoramiento del Fuero de Navarra*). Nafarroa komunitate ezberdindu bezala konfiguratzeko ezinbesteko izan ziren hiru elementuk erraztu zuten: 1) eszenatoki politikoan UCDren banaketatik alderdi politiko berri baten – UPN – agerpen indartsua; 2) PSOEren aldaketa nabarrismo kontserbadorearen tesietara; eta 3) Nafarroako UCDren pisua nafar erakundeetan, nahiz eta banaketa handia sufritu<sup>155</sup>.

Aipatzekoa da urte horretan bertan, Laugarren Xedapen Iragankorra aplikatzeko saiakera bat egon zela<sup>156</sup>. 1979ko irailean integrazio erreferenduma deitzeko asmoa iragarri zuen EEK. Parlamentutik kanpo zeuden alderdiek bere babesa adierazi zuten – PTE, PCE eta ESEI –, baina Nafarroako Parlamentuko Errejimen Foralaren Batzordeak EEren mozioa atzera bota zuen, aurkako 7 botorekin (UCD eta UPN), aldeko 4rekin (HB, EAJ eta Amaiur) eta 4 abstentziorekin (PSOE, eta Zuziarena alderdi karlistatik).

### 3.5.1. UPNren agerpena

1979ko hauteskunde horietan, nabarrismoaren eremuan UCDk beste alderdi batekin lehiatu behar izan zuen: *Unión del Pueblo Navarro* alderdiarekin. Fundatzaileen esanetan, UCDrekiko desberdintasun programatikoak eskasak ziren, baina UPN ez zenez estatu mailako alderdi bat, ez zuen izango beste alderdi horrek izan zitzakeen Nafarroatik kanpoko presio edo erantzukizunak.

UPNren jaiotza Konstituzioan Laugarren Xedapen Iragankor hori gehitzearen ondorio izan zen. Ikusi dugun moduan, Espainiar Konstituzioak eskubide foralak onartu arren eta Nafarroak bere etorkizuna erabakitzeko mekanismo ezberdinak izan arren, xedapen honen existentziak eskumako sektore bat Nafarroaren izaera ezberdindu hori defendatzeko asmoz mobilizatzea ahalbidetu zuen. UPNren sorrera Jesus Aizpunen eskutik etorri zen, 1977an Nafarroako UCDren hautesle-zerrendaburua izan zena<sup>157</sup>. Kongresuan, 1978ko urrian konstituzio- proiektuaren behin betiko testua bozkatzean, Aizpunek boto diziplina apurtu zuen eta abstenitu egin zen; ondoren, bere talde parlamentarioa eta alderdia utzi zituen. Konstituzioaren erreferendumaren aurretik, 1978ko abenduaren 6an “*Acta de afirmación foral navarra*” izeneko dokumentua sinatu zuen, ideologia ezberdinetako pertsonekin batera – eskuma tradizionalistatik hasita, ezker abertzaleraino – Konstituzioa ikuspuntu foraletik onartezina zela aldarrikatuz, besteak beste<sup>158</sup>. Hurrengo hauteskunde hurbiltasunak – hurrengo urtean ospatuko ziren – alderdi berriaren sorrera bizkortu zuen eta UPN 1979ko urtarrilaren 3an sortu zen.

Aipatu behar da, nabarrismoaren barruan koka ditzakegun alderdi politikoen

<sup>155</sup> RAMIREZ SADABA Jose Luis (zuz.), *Democratización y Amejoramiento Foral...*, 252. orr.

<sup>156</sup> ALLI ARANGUREN Juan Cruz eta GORTARI UNANUA Joaquin, *La transición política en Navarra 1979-1982*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2011; 363-364. orr.

<sup>157</sup> BARBERÀ Oscar, Los orígenes de la Unión del Pueblo Navarro (1979-1991), *Papers 92, Revista de Sociología*, 2009; 151-152. orr.

<sup>158</sup> GORTARI UNANUA Joaquin, *La transición política en Navarra...*, 568. orr.

arteko banaketa eta berrelkartzeen atzean ez zela desberdintasun ideologiko sakonik egon Nafarroarekiko<sup>159</sup>; borroka pertsonalak eta espainiar politikaren joan etorriak izan ziren aldaketa hauen atzean ezkutaturako arrazoiak. Izan ere, alderdi guzti horiek defendatu zuten Del Burgok proposaturako ikuspegia trantsizio urte horietan. Aizpuni dagokionez, Konstituzioaren aurka izandako hasierako jarrera hori azkar zuzendu zuen Nafarroa EAEn sartzeko arriskua urruntzen joan zen neurrian. Azkenean, UPNk Konstituzioa onartu zuen 1982ko Foru Hobekuntzaren lanketa prozesuaren testuinguruan<sup>160</sup>.

### 3.5.2. PSOEn aldaketa Nafarroan

PSOEk, erbestean Euskal Gobernuarekin lan egindakoak, Nafarroa eta gainontzeko euskal lurraldeak Estatutu bakar batean biltzea defendatzen hasi zuen trantsizioa. Jarrera hau argi geratu zen Konpromiso Autonomikoa sinatu, eta ondoren, Frente Autonomikoa eratu zuenean EAJrekin batera. Baina jarrera hau aldatzen joan zen, eta EAJrekin apurtzera eramango zuten lehenengo zantzuak 1978aren hasieran azaldu ziren, boterera iristeko benetako aukerak zituztela ikusita agian. Nafarroaren kasu zehatzean, aldaketa hau indartu egin zuen alderdira FNI – *Frente Navarro Independiente* – alderdiko jendea sartzek, Victor Manuel Arbeloa izanik ezagunetarikoa, hauek Nafarroa Euskadin sartzearen aurka zeudelako erabat. Gabriel Urralburuk, Victor Manuel Arbeloaren laguntzaz, tesi nabarristak indartu zituen alderdi barruan. Horren erakusle da ETaren indarkeriak iraun bitartean integrazio erreferenduma ez deitzeko erabakia. 1979ko hauteskundeak baino lehenago are gehiago zehaztu zen bere jarrera hori: ez zuten erreferenduma ahalbidetuko hurrengo lau urtetan behintzat<sup>161</sup>. Baina erreferenduma ospatzeko ala arbuiatzeko erabaki honen atzean bazegoen beste faktorerik ere. Izan ere, alderdi sozialistak izugarritzko aldaketa jasan zuen trantsizioko lehen urte hauetan. Ondorengo lerroetan, aldaketa hau labur azalduko dugu, euskal nazionalistekin konpartitutako helburuetatik nabarrismoaren tesiak bereganatzera igaro zelako.

1974an Suresneseko Kongresua ospatu zuen PSOEk klandestinitatean, eta bertan Espainia osatzen zuten nazionalitateen autodeterminazioa aitortu eta aldarrikatu zuen. Hiru urte beranduago, 1977ko martxoan Euskadiko Alderdi Sozialista (PSE) sortu zen, Euskal-Nafar Federazio Sozialista izan zenaren ondorengoa; maiatzean, hurrengo adierazpenak egin zituen Gabriel Urralburuk nafar sozialisten zuzendariak *Punto y Hora* astekarian:

*precisamente nosotros, los socialistas, debemos luchar por vincular, no a nivel de identidad, porque ese vínculo existe, sino a nivel institucional a Navarra con el País Vasco (...) El partido, desde finales de la República, había creado ya el Comité Socialista de Euskadi, en el que Navarra estaba desde un principio. Entonces, para nosotros, la discusión sobre la pertenencia de Navarra al País Vasco no ha existido (...) Propugnamos que es necesario recuperar la identidad del pueblo navarro, y al ser éste cuna y raíz del pueblo vasco, hay que recuperar también esa pertenencia de Navarra al País Vasco*<sup>162</sup>.

1978an oraindik, Urralburuk jarrera hori mantendu zuen espainiar Kongresuan: “*Los socialistas defendimos entonces, y lo mantenemos ahora, la*

<sup>159</sup> UCD, UPN, AFN eta APNren kasuan, adibidez.

<sup>160</sup> IZU BELLOSO, *Navarra como problema...*, 285. orr.

<sup>161</sup> RAMIREZ SADABA Jose Luis (zuz.), *Democratización y Amejoramiento Foral...*, 252-253. orr.

<sup>162</sup> ESPARZA ZABALEGI Jose Mari, *Mapas para una nación...*, 212. orr.

*participación de Navarra en las instituciones comunes con Álava, Guipúzcoa y Vizcaya*”<sup>163</sup>. Urte honetan, PSEk lau probintzietarako Autonomia Estatutu Proiektu bat prestatu zuen dagoeneko. 1979ko uztailaren 1ean, Tuteran onartutako estatutuetan ere bere horretan jarraitu zuen alderdi sozialistak.

Aldaketa 1981eko apirilaren 4an ospatu zen Batzar Erregionalean ikus daiteke. Nabaria da zerbait aldatu egin dela eta Tejerok emandako estatu kolpe saiakera oso presente dago bilera horretan. Nafarroako Autonomiari buruzko ebazpena onartu zen bertan, ordura arte mantendutako jarrera irauliz. Jose Mari Esparzaren hitzetan, ebazpen honek historia desitxuratu zuen eta gezurra zioen 1930ko hamarkadan ezkerreko alderdiak Nafarroa Euskal Estatutuan sartzearen aurka azaldu zirela baieztatzean; eta 1936an Nafarroako ezkerreko alderdi guztiak Euskal-Nafar Estatutua berreskuratzeko borondatea azaldu zutela ezkutatu zuten. Azken jarrera hori, hoztu beharrean, Frankismoan zehar mantendu zen erbestean eta klandestinitatean, eta Frankismoaren aurkako ezkerreko oposizioa lau lurraldeetako egitura komunetan egon zen egituratuta:

*en general la izquierda, el PNV y aún una parte del carlismo (...) estaba a favor del Estatuto vasco como lo venía estando desde los años 30. Y la derecha navarrista seguía en contra como lo estuvo siempre. No había más que un cambio fundamental: el que se estaba gestando en la dirección del PSOE navarro y cuya mejor prueba era la manipulación de su propia historia en aquella decisiva Resolución de 1981*<sup>164</sup>.

Azkenik, ebazpen honek euskal nazionalismoak eta eskuma nabarristak aldarrikatutako posizioen erdibideko alternatiba bat mahai gaineratu zuen: batzorde egonkor eta pleno batez osatutako egongo litzatekeen Euskal-Nafar Kontseilu bat – *Consejo Vasco-Navarro* – sortzea proposatu zuen, hots, hitzarmenetara mugatutako harremana proposatu zuen Euskal eta Nafar Erkidegoek komunean izan zitzaketen interesak eta proiektuak aurrera eramateko<sup>165</sup>. Behin bide hau hartuta, hurrengo urtean PSEtik banandutako PSN alderdia sortu zuten, eta denbora aurrera joan ahala, honek UPNren tesi nabarristak bereganatu zituen, euskal nazionalismoarekin komunean izandako helburu eta printzipioak ahaztuz.

Garai hartan sozialistek egindako adierazpenak ikusita, integrazioaren aurrean izandako jarrera aldaketa ez zen gauza berria. Euren esanetan, trantsizio garai hasieran erakutsitako nahi hori ez zen horren argia izan, eta azkenean alderdi sozialista, betidanik mantendu izan duen posiziora bueltatu zen. Ondorengoak dira Gabriel Urralbururen hitzak: «*La postura no era tan claramente pro-integración. Sí, tal vez, con la boca pequeña, pero no oficialmente*»; indarkeriaren aitzakia ere erabiltzen du Victor Manuel Arbeloak: «*La postura integracionista del año 1977 estuvo en función de ayudar a los compañeros de Euskadi ante la barbarie nacionalista*», «*la tradición socialista es la no integración*». Azken ideia hau azpimarratu egin zuen Boulandier agintari sozialistak: «*¿Qué hicieron los socialistas en el 34, 35 y 36? Dijeron <<no>>. En el 77 cambiamos de idea y fuimos con el PNV, pero rectificamos en el 79. Hemos vuelto al planteamiento del 36, no al de la integración*». Lanean zehar ikusi dugunez, Boulandierren baieztapen hau ez da egia. Floren Aoizek horixe bera dio:

<sup>163</sup> Ibidem, orrialde berean.

<sup>164</sup> Ibidem, 214. orr.

<sup>165</sup> RAMIREZ SADABA Jose Luis (zuz.), *Democratización y Amejoramiento Foral...*, 262. orr.



No es cierto que el PSOE estuviera en contra del Estatuto para los cuatro territorios en los años 1934,1935 y 1936. Algunos, posiblemente la mayoría, se posicionaron contra el texto de Lizarra, y muchos menos contra el de las Gestoras. Pero el partido y la UGT en 1936 no sólo habían reconocido el favor hecho a la derecha por la no aprobación del estatuto común, sino que demandaban la aplicación inmediata de la integración. Y, (...) esa fue la posición absolutamente mayoritaria en el exilio<sup>166</sup>.

Nafarroako sozialisten jarrera aldaketaren zergatiak azaltzea ez da erraza, baina argi dago euren historiaren berrinterpretazio bat egin zutela eta erbestean urte luzeetan mantendutako jarrera erabat aldatu zutela. Hala ere, batzuk saiatu dira jarrera aldaketa honen arrazoiak argitzen, edo behintzat hipotesiak luzatzen. Jose Mari Esparzaren ustez, Nafarroako alderdi sozialistak izan zuen iritzi aldaketa horren eragilea Tejerok 1981eko otsailaren 23an emandako estatu golpe saiakera izan zen. Bere hitzetan:

Consumada la separación, en 1982 se creó el Partido Socialista de Navarra, por razones de Estado que algunos historiadores han comenzado a señalar, muy probablemente derivadas del Tejerazo. El socialismo navarro se engañó primero a sí mismo con la Resolución de 1981 y luego a toda la sociedad navarra (...) Nada iba a frenar ya a los que en el camino hacia el poder iban dejando atrás los principios: de olvidar lo del Consejo Vasco-Navarro a acabar afirmando que <<Navarra nada tiene que ver con Euskal Herria>> sólo fue cuestión de tiempo. Como fue cuestión de tiempo el proceso de derechización, hasta llegar a lo que nunca se hubieran imaginado los socialistas históricos: el apoyo y sostén del Partido Socialista de Navarra al Gobierno derechista de UPN<sup>167</sup>.

Floren Aoizek antzeko hipotesi bat planteatzen du. Berarentzat, Nafarroan sozialistek izan zuten jarrera aldaketa oso lotua dago Estatu mailan boterera iristeko aukerekin eta Tejeroren Estatu kolpearekin. Bere lanean Arzalluzekin izandako elkarrizketa batetik lortutako informazioa azaltzen du: «Según cuenta Arzalluz, el socialista Agiriano le dijo que en unos primeros momentos los dirigentes socialistas vascos pretendieron crear un ente con los cuatro territorios y La Rioja, pero cuando fueron a Madrid con estos planteamientos, se “cayeron” Logroño y Nafarroa». Horrez gain, Goio Monrealen hitzak aurkezten ditu ildo honi jarraiki: «Navarra constituía un obstaculo para la carrera del PSOE hacia el poder»; aldi berean, Marin Villaren esaldi bat ere aurkezten digu: «Martín Villa ha afirmado que los socialistas cometían un error defendiendo la unidad territorial y demostraban <<caecer de sentido del Estado>>»<sup>168</sup>.

Aoizen ustez, 1976tik aurrera erreformarekiko konpromisoa areagotu egin zuen alderdi sozialistak, estrategia horrekin bat egiten ez zuten aliantza guztiak albo batera utziz: «Quedó claro que Navarra era la clave para una de las batallas más importantes entre reforma y ruptura, (...) entre la estrategia de construcción nacional vasca y la de consolidación del Estado español»; «el PSOE comprendió que si quería ser una alternativa de poder debía modificar su estrategia y sumarse a las posiciones de Estado representadas en Navarra por UCD y más tarde también por UPN». Horrez gain, ondorengoa gaineratzen du: «Personajes como Urralburu y Arbeloa, líderes mediocres y sin una ideología clara, ausentes del antifranquismo combativo, fueron quienes limpiaron el partido y UGT de los elementos troskistas y, en general, de todos aquellos que no se sometían a sus directrices»<sup>169</sup>.

<sup>166</sup> AOIZ Floren, *El jarrón roto: la transición en Navarra...*, 330. orr.

<sup>167</sup> ESPARZA ZABALEGI Jose Mari, *Mapas para una nación...*, 216-217. orr.

<sup>168</sup> AOIZ Floren, *El jarrón roto: la transición en Navarra...*, 325. orr.

<sup>169</sup> Ibidem, 326. orr.

1981eko Batzar Erregionalean gertatutakoa ere aipatzen du. Dakigunez, bertan ordura arte mantendutako posizioa erabat aldatzea proposatu eta onartu zen. Egon zen, ordea, hau salatu zuen militanterik: «Hubo quien puso pegás, como el de Ribaforada <<Antes decíamos A. Después B. Ahora ni A ni B. Nos van a llamar chaqueteros>>. También Tajadura, que afirmó que los trabajadores, los jóvenes y los centros culturales se sentían <<cada vez más parte de Euskalherria>>»<sup>170</sup>. Bukatzeko, jarrera aldaketa hau norabide oso konkretu batean egin zela dio Floren Aoizek: «No fue un proceso democrático, ni fue impuesto por la presión de la militancia de la Ribera, como interesadamente se ha dicho. Los cambios fueron fluyendo de la dirección hacia las bases, y tomaron cuerpo en la reunión de 1981 en base a una propuesta que venía del núcleo duro, con el aval del máximo dirigente del partido a nivel estatal»<sup>171</sup>.

### 3.5.3. Nabarrismoaren garaipena: LORAFNA

Esan bezala, 1979ko ekainaren 8an hasi ziren Diputazioa eta Gobernuaren arteko elkarrizketak foru hobekuntzari begira, baina negoziaketaren ardua eramango zuten komisioen izendapena ez zen eman 1980ko abendura arte, bien bitartean Parlamentu Foralean hobekuntza honetarako oinarrien eztabaida eman zelako.

Nafarroako Parlamentuan ordurako hasiak ziren bereizten bi alde: negoziaketa prozesua bultzatu nahi zuen gehiengo bat – UCD, PSOE, UPN, EAJ, Alderdi Karlista eta IFNko Ezponda – eta errotik negoziaketaren aurka zeudenak: HB, Amaiur eta UNAI. Baina egon zen banaketa garrantzitsuagorik ere, negoziaketak gora behera, euren helburu politikoak adostu eta proiektu honetan gauzatu zituztenak, UCD, UPN eta nabarrismoaren tesietatik gero eta gehiago hurbilago zegoen PSOE. Alderdi Karlistak – eta neurri txikiago batean EAJk ere bai – UCDk, UPNk eta PSOEK sortutako bloke honek proposatutakoarekin bat egingo dute, baina ez hain nabarmen.

Abenduaren 29an Diputazioak negoziaketarako oinarri batzuk onartu zituen eta 1980ko maiatzetik aurrera hauek eztabaidatu ziren komisioetan. Berrezarkuntza forala 1839 eta 1841eko legeek ezarritako errejimenaren jarraipen hutsa bezala ulertu beharrean, subiranotasunaren berreskurapenarekin lotzen zuten HB, Amaiur, EAJ eta UNAI alderdiek aurkeztutako osoko zuzenketak baztertu egin ziren, eta emendakin partzialen eztabaidan, UCD, PSOE, UPN eta Alderdi Karlistak osatutako blokeak oinarri hauei irakurketa berri bat eman zieten eta elementu berriak gehitu emendakinen transakzio bidez. Erakunde foralen gaia eztabaidatzean, egoera hau errepikatu egin zen: osoko zuzenketak baztertu edo erretiratu egin ziren eta aipatu bloke hori – zenbaitetan EAJ ere barne – emendakinen transakzio bidez testu adostu batera iritsi zen. Horrez gain, Konstituzioak Nafarroa Euskadin integratzeko aukera ematen zuen araua gorde zuen heinean, honetatik berriro banatzeko aukera arautu zen UCD eta UPNren botoekin eta gainontzeko guztien oposizioarekin<sup>172</sup>.

Estatuarekin negoziatzeko ordezkariak aukeratzeko ere arazoak egon ziren. Oso zaila zen lan hau Diputazioaren gain jartzea, berau osatzen zuten diputatuen

<sup>170</sup> Ibidem, 329. orr.

<sup>171</sup> Ibidem, 332. orr.

<sup>172</sup> IZU BELLOSO Miguel José, *Navarra como problema...*, 385-386. orr.

artean – HB eta Amaiurren diputatuak – ez baitzituzten negoziaketarako oinarriak onetsi eta Del Burgoren kasua ere ez zen egokiena, FASA auzia zela medio Diputazioaren presidentzia utzi egin behar izan zuelako. Hau horrela, Diputazioak – 4 boto alde eta 3 kontra – alderdi politikoen hiru ordezkariak – UCD, PSOE eta UPN –, eta lau diputatu foralez – UCDko hiru eta PSOeko bat – osatutako negoziaketarako komisioko bat izendatu zuen. Negoziketara prozesua 1981ko urtarrila eta 1982ko otsaila bitartean eman zen. Epearen luzatze hau kanpo eragileen ondorio izan zen: UCDren krisia, Suarezren dimisioak ekarri zuen Gobernu aldaketa, 1981eko otsailaren 23ko estatu kolpea ... Akordioa 1982ko martxoaren 8an sinatu zen, ekitaldi formal baten bidez. Parlamentu Forala martxoaren 15ean bildu zen eta UCD, PSOE, UPN eta Alderdi Karlistaren botoekin onartu zen testua; kontra bozkatu zuten EAJ eta EEK, eta HBk eta Amaiurrek Parlamentutik alde egin zuten.

Behin Parlamentuan onartuta, aurreproiektua Gorteetatik igaro zen eta 1982ko uztailaren 26an onartu zen azkenean, abuztuaren 10eko Lege Organiko bezala. Hobekuntza Foralaren onarpena eta Nafarroa EAetik banandutako eta bereizitako komunitate bezala egituratu izana, tesi nabarristen garaipena izan zen, eta batez ere UCDk bere egin zuen Del Burgok diseinutariko proiektuaren erabateko aplikazioa: «Pese a las reticencias de UCD de Navarra ante las disposiciones introducidas en la Constitución de 1978, pese a su escisión y a la creación de UPN por Aizpún, (...) el resultado final de la negociación del Amejoramiento respondía plenamente a las expectativas y exigencias de UCD y UPN»<sup>173</sup>. Garaipen honetatik haratago, badago oraindik Laugarren Xedapen Gehigarriarekiko mesfidantza mantenduko duen nabarrismoaren sektore gogor bat, eta xedapen honen ezabapena bilatzen jarraituko du Nafarroa EAEn integratzeko aukera hori betirako desagertu dadin.

LORAFNAK ez zuen erreferendumik behar izan indarrean sartzeko. Hau justifikatzeko nabarrismoak behin eta berriz erabili zuen aitzakia – eta oraindik darabilena – Nafarroaren errejimena Konstituzioaren aurrekoa zela argudiatzea izan zen. Errejimen hau, behin baino gehiagotan gogoratu dugun moduan, 1841eko Lege-paktutik zetorren eta hau 1970. hamarkadara arte “mantendu” zen, Espainiako Konstituzio ezberdinak gorabehera eta Estatuaren antolamendu politikoak eraginik izan gabe: monarkia, errepublika zein diktadura. Horrela mintzo da Joaquin Gortari: «Los conflictos no han faltado, pero el hecho evidente y definitivo es que la Ley de 1841 ha constituido el baluarte del que Navarra se ha valido para vivir y progresar constantemente en su histórico régimen de autonomía. Y el Estado español, a través de los distintos regímenes políticos que se han sucedido desde 1841, así ha corroborado con su obligado respeto»<sup>174</sup>. Hori da nabarrismoak beti emango duen argudioa erreferenduma beharrezkoa izan ez zela azpimarratzeko. Nafarroak ez zuen inolako erreferendumik behar bere errejimena egokitzeko baina bai gainontzeko euskal probintziekin egitura politiko bat osatzeko, eta kasu honetan, gehiengo kalifikatuak exijitzera ere heldu ziren ikusi dugun moduan.

Nabarrismoak orokorrean, eta Del Burgok zehazki, hainbat alditan errepikatu zuten nafarren esku zegoela euren etorkizuna erabakitzea. Ez zuten, ordea, hau alde batera uzteko eta UCD, UPN eta PSOeko agintariek Nafarroarentzat errejimena politiko konkretu bat eratzeko arazorik izan:

<sup>173</sup> Ibidem, 393-394. orr.

<sup>174</sup> GORTARI UNANUA Joaquin, *La transición política en Navarra...*, 56-57. orr.

El pueblo navarro tantas veces mentado como sujeto y beneficiario del pacto y de la concepción pactista del mismo fue el gran relegado. Pasaban así a la categoría del recuerdo sarcástico las declaraciones de ilustres foralistas, que como el mismo Jaime Ignacio Del Burgo, celoso de que ese pueblo siempre fuese consultado, afirmaba: <<Para Acción Social Democrática Foral tan sólo el pueblo navarro tiene derecho a decidir si acepta o no la existencia de un poder político supranavarro intermedio entre Navarra y el Estado Español>>; (...) La preconstitucionalidad de la foralidad navarra fue la gran coartada para hurtar ese test democrático al presumido propietario del Fuero, al pueblo navarro<sup>175</sup>.

Laburbilduz, trantsizioak izandako bilakaerak nabarrismoaren tesien eta ideien garaipena argi utzi zuen. 1841eko Lege-paktutik Foru Hobekuntzak suposatu zuen “paktu berrira”, demokraziarako nafar bidea osatu zuen, gainontzeko euskal probintziek jarraitutakotik desberdindua. Nafarroako UCDe-tik Del Burgok bultzatutako filosofia hau UPNk bereganatu zuen ondoren eta eztabaida eta nafar auzia era original batean planteatu eta bideratu zuen, alderdi nagusiek onartutako doktrina ofizial bihurtu arte, baita nafar sozialismoak ere, bere hasierako euskal-nafar batasun adierazpenetatik aldenduz. Konstituzioan jasotako tesi “*cuarentaiunista*” horiek, aitorten handiagoa izan zuten Foru Hobekuntzaren Legearen hitzaurrean, Nafarroaren interpretazio historiko konkretu bat pribilegiatuz<sup>176</sup>.

### Ondorioak eta hausnarketa

Ikusi dugunez, nabarrismoa ez da gaur egungo joera politiko soil bat. Ez da egungo fenomeno bat eta are gutxiago historian zehar politikoki ondo definitutako eta mugatutako esparru konkretu batek defendatutakoa. Egungo nabarrismo honen aurrekariak hasiera-hasieratik anitzak izan direla ikusi dugu, nahiz eta egun UPNren jarduera eta pentsamendu politikoarekin identifikatu. Hala ere, lehenagoko eta oraingo nabarrismoaren ardatz nagusia 1841eko Legea izan da – egun, 1841koa eta LORAFNA, aurreko “paktu” horren eguneratze bezala –, eta honekin batera euskaltasunarekiko jarrera. Bi aldagai hauek ezarri dute nabarrismo mota batzuen eta besteen arteko ezberdintasuna. Bi aldagai hauekiko jarrera aldatzean joan den heinean aldatu da, eta nabarrismoaren bilakaera hau hiru zatitan bana dezakegu: XIX. mendean sortzen den unetik mende bukaera eta XX. mende hasierara bitartean, XX. mende hasieratik Frankismo garaira arte, eta azkenik, 1970. hamarkadatik egunera arte.

1841eko Legea oinarri hartuta, XIX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera nabarrismo mota ezberdin bi identifika daitezkeela ikusi dugu: nabarrismo kontserbadorea eta liberala. Lehenengoa kulturalki euskaltzalea da, eta ez dago euskal-nafar batasunaren kontra zuzen- zuzenean, askotan Euskal Herria “oasi” bat bezala ikusten baitu indar liberal eta iraultzaileen aurrean. Horrez gain, 1841eko Legea onartzen du berrezarkuntza forala ahalbidetuko duen egoera egokiago bat iritsi arte, teoriarik behintzat. Nabarrismo hau izango da gerora “euskaroen” lanetik gertu kokatuko dena.

Beste aldean, aitzitik, liberalen nabarrismoa daukagu. Hau foruzalea izango

<sup>175</sup> LANA BERASAIN Jose Miguel (koord.), *En torno a la Navarra del siglo XX. Veintiún reflexiones acerca de Sociedad, Economía e Historia*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea, 2002; 376-377.

orr.

<sup>176</sup> SANCHEZ PRIETO Juan Maria, *Navarra: memoria, política...*, 321. orr.

da hein batean 1841eko Legea defendatzen duelako. Euskal-nafar batasunaren aurka azaldu zen hasieratik, horrek karlismoa indartuko zuen beldur baitzen. Orokorrean, euskal kulturaren eta euskaltasunaren goraiamenekin mesfidati agertuko da, baina ez du kontrako jarrera irmo eta argirik azalduko. Iritzi aniztasuna – zenbaitetan iritzi kontrajarriak – izango da nagusi, ez dugu ahaztu behar liberal askok Nafarroako Euskara Elkartean parte hartu zutela, eta “*vasco-navarro*” esapidea normaltasunez zerabilzela euren prentsan, esaterako. Laburbilduz, 1841eko errejimenaren eta espainiartasunaren defentsa izango dira honen ikur, euskaltasunean anbiguotasuna eta aniztasuna nagusi izanik. Beraz, azken hau izango da hasieratik euskal-nafar batasun proiektu ororen aurka egongo dena, nabarrismo kontserbadoreak gai honen inguruan jarrera aldakorra izango duen bitartean.

Kontrajarriak ziren nabarrismo mota bi hauek horrela iritsi ziren XIX. mendearen bukaerara arte. Garai honetan jada, joera aldaketa suma daiteke nabarrismo kontserbadore horretan. Lanean aipatu bezala, Gamazada eta Nafarroako Euskara Elkartearen urteak izan ziren horiek, nafar izaeraren defentsa aldarrikatu ziren urteak. Gamazada bezalako gertaerek garrantzia ikaragarria izan zuten arren, horrek ez zuen ekidin nabarrismo kontserbadorearen barnean gerora erabat urrunduko ziren bide edo jarrera bi ezberdintzen hasia: alde batetik, naparzialeak – laster nazionalista izango direnak – eta bestetik nabarristak<sup>177</sup>. Biek ala biek kontsideratu zituzten “euskaroak” euren aurrekari moduan, baina ez zuten indar bera jarri haiek defendatutako lelo guztietan eta irakurketa oso ezberdina egin zuten gai desberdinen inguruan. Horrela, naparzialeak – nabarristak, “b” letraz idatzita –, “euskaroen” ondorengo zuzenak kontsideratzen dira eta irredentismo forala defendatuko dute, 1839 eta 1841eko legeak ezabatzeko asmoa mantenduz. *Navarrista* deituko zaie erretorika fuerista mantendu zuten horiei, baina Espainia eta Nafarroaren arteko desberdintasunak gehiegi azalratzea arriskutsu zela ikusi zutenei. Izan ere, kontuan hartu behar da mende bukaera horretan eman zela 98ko hondamendia bezala ezagutzen dena, eta azkenean Espainiak Amerikan eta Asian zituen azken koloniak galdu zituela. Honek eragin izugarria izan zuen espainiar gizarte eta agintariengan. Hori dela eta, nabarrismo kontserbadorearen zati batek bere diskurtsoa aldatu zuen, Espainiaren batasuna aldarrikatuz eta ordura arteko nabarrismoa espainolismoarekin uztartuz; horrela, 1841eko Legea ezabatzeko helburuarekiko gero eta anbiguotasun handiagoa erakusten hasi zen. Apurka apurka, liberalen nabarrismora hurbiltzen hasiko da. Hau izango da, autore batzuen ustez, nabarrismo garaikidearen hasiera. Honek, Gamazadako gertaerari esanahi berezia eman zion, neurri zentralisten aurrean 1841eko Legea aldarrikatuz, eta hau berezko identitatea definitzeko erreferentzia bihurtuz.

Joera honek aurrera jarraitu zuen XX. mendearen lehenengo hamarkadan eta nabarrismo kontserbadorea bananduta geratuko da erabat 1917-1918. urteko gertaerekin. Gertatutakoa ulertzeko hiru faktore azpimarratu ohi dituzte adituek: euskal nazionalismoaren hedatzea eta gorpuztea Nafarroan, Errusiako Iraultza eta autonomia eskaerak. Sabino Aranaren nazionalismoak Euskal Estatu bat jarri zuen mahai gainean. Sabino Aranek proposatutako Euskal Estatuaren proposamenak nabarrista asko 1841eko Legea babestera bultzatu zituen, ezbairik gabe. Arlo kulturalean arazorik egon ez arren, hau da, Nafarroa euskal etniaren parte zela inork zalantzan jarri ez arren, gauzak erabat aldatzen ziren hau arlo politikora eramatean.

<sup>177</sup> Gazteleraz bien arteko ezberdintasuna are argiago geratzen da, lehenengoak izendatzeko nabarrista hitza erabiliz, eta bigarreni erreferentzia egiteko “*navarrista*” idatziz, “v” letrarekin.

Eztabaida maila politikoan jartzeak arriskuak zekartzan, eta 1841eko Legea eta errejimena ere ukitzen zituen proposamen honek, nabarrismoaren barneko sektore batzuen alarman piztuz. Era berean, Errusiako Iraultzak, aurreko hamarkadan azpimarratutako Nafarroaren espainiartasuna eta Estatua indartzeko beharrian hori areagotu egin zituen.

Nabarrismo kontserbadore eta euskaltzalearen norabide aldaketa hori azaltzeko beste arrazoi bat gehituko nuke. XX. mende hasieran, euskal nazionalismoaren indartzearekin batera, euskararen eta euskaltasunaren aldeko aldarrikapenak arlo kulturaletik arlo politikora igaro ziren. Auzia oro har euskaltasuna defendatzeko aldarrikapenetatik haratago maila politikora igarotzean etorri zen aldaketa. Euskal nazionalismoak separatismoa eta euskal estatu independente bat eraikitzeke asmoak 1841etik zetorren errejimene hori arriskuan ikustera eramane zituen nabarristak, eta gainera inongo ziurgabetasunik gabeko eszenatoki berri batera igarotzeko. Kulturalki euskaldun izaten jarraitu zuten baina espainiartasuna bihurtu zuten euren lehentasun, euskal estatu bat eraikitzeke ideia horren aurka joz. Horregatik mantendu zuten kulturalki euren euskaltasuna hain berandura arte – 1936tik haratago –, arazoa ez zegoelako arlo linguistiko edo kulturean, politikoan baizik. Arlo kulturean eztabaidarik ez zegoen bitartean, Nafarroaren euskaltasuna era normal batean ulertzen baitzen, arlo politikoan eztabaida sutsuak piztu ziren, gerora Errepublika garaian areagotuko direnak.

Gauzak horrela, 1917-1918an autonomia eskaerei muzin ezin zieten nabarrista horiek, eta berrezarkuntza forala ere alboratzera iritsi ziren, 1841eko Legea euren diskurtsoaren ardatz bihurtuz. Azkenean, nabarrismo kontserbadoreak nabarrismo liberalaren tesiak bereganatu zituen erabat, nahiz eta euskaltasunarekiko oraindik lehendik defendatzen zituen jarrerak mantendu, hauek poliki apaltzen joan arren:

En lo que atañe a la formación del navarrismo, el discreto abandono de los sectores conservadores y tradicionalistas del bando <<anticuarentaunista>> aparecerá su agrupación en el mismo bando que el navarrismo liberal, al que tradicionalmente se había enfrentado, en favor de 1841. Por primera vez, los diversos navarrismos se van a encontrar unidos en la defensa del mismo proyecto político para Navarra y por primera vez también el navarrismo en su conjunto se encuentra enfrentado al <<nabarrismo>> y al nacionalismo vasco. Esto traerá paulatinamente no sólo el aislamiento de un nacionalismo que no había terminado de cuajar en Navarra, sino también, y lo que es más importante, un progresivo alejamiento del navarrismo de las manifestaciones vasquistas<sup>178</sup>.

Horrela iristen gara Errepublika garaira. Honetan ere, liberal edo ezkerrekoen nabarrismoa anbiguotasunean mugituko da Euskal-Nafar Estatutuaren aurrean izandako jarrerak erakutsi bezala. Hala ere, 1936an bat egin zuten Nafarroako ezkerreko alderdi guztiek Estatutu bateratuaren alde azkenean. Nabarrismo kontserbadoreak, ordea, Errepublikatik babesteko nahi zuen Lizarrako Estatutua alde batean geratu ostean, Errepublika behera botatzeko konspirazioan hartu zuen parte aktiboki, lortu zuen arte. Aldi berean, Euskal-Nafar Estatutuaren aurrean kontrako iritzi argia azaldu zuen, hau Errepublika sustraitu eta legitimatzeko elementu izan zitekeelako. Horren aurrean, Nafar Estatutu baten proposamena jarri zuen mahai gainean, baina ez zuen inoiz hau garatzeko asmorik izan. Errepublika eta Estatutu bateratua oztopatzeko beste elementu bat baino ez zen izan ikusi dugunez. Hala eta guztiz ere, bere euskaltasuna mantendu egin zen Frankismoaren lehenengo urteetara

<sup>178</sup> GARCÍA-SANZ MARCOTEGUI Angel, *Historia del navarrismo...*, 257. orr.

arte.

Gerra zibilean Francoren tropen garaipena nabarrismo kontserbadorearen garaipena ere izan zen. Nabarrismo bakarria inposatu zen, eta Nafarroaren identitate bakar eta konkretu bat ere inposatzen joan zen, euskaltasuna galtzaileen eta erbesteratutako indar nazionalista eta ezkerrekoen ezaugarri gisa mantenduz:

es interesante constatar el itinerante inverso experimentado en Navarra por la derecha y la izquierda en torno a las relaciones con las Vascongadas. En líneas generales el vasquismo ha sido patrimonio de la derecha, pero, en contra de su tradición histórica, se alejó de él durante la dictadura franquista. Mientras tanto, tras las Guerra Civil, el vasquismo ha pasado en buena medida a ser un referente propio de la izquierda. Las relaciones de esta última con el Gobierno vasco durante la guerra y el franquismo le llevaron a un progresivo acercamiento a la estrategia de aquél que suponía una novedad respecto a sus planteamientos anteriores. El vasquismo se convirtió así en Navarra en un atributo izquierdista y contestatario por antifranquista<sup>179</sup>.

Nabarrismo irabazleak, euskaltasuna hauekin identifikatu zuen, Nafarroa eta euskal kultura eta euskara lotu zitzakeen edozein aztarna pixkanaka baztertuz zein ezabatuz.

Hau horrela, Frankismoaren bukaeran nabarrismo bakarraz hitz egiten da, eta ez gerra aurretik existitu ziren horietaz. Baina Nafarroarentzat egitura politiko zehatz baten defentsa nabarrismoaren ezaugarri den aldetik, nabarrista izan da, era berean, Nafarroako alderdi sozialista (PSN) ere, nahiz eta hasiera batean Nafarroako sozialistak – oraindik PSEn zeudenean – lau euskal probintzien arteko egitura politiko bakarren alde azaldu ziren. Nabarrismoa izango litzateke, era berean, IUk Nafarroan duen jarrera politikoa, nahiz eta euskaltasunarekiko ezberdintasunak dituen sozialistekin alderatuz.

Hortaz, nabarrismoaz hitz egitean ez dugu bakarrik UPNren joera politikoarekin lotu behar, historikoki ikusi dugun bilakaerak nabarrismoak izan dituen aurpegi ezberdinak erakutsi baitizkigu. Dena den, UPN bihurtu da – behin UCDren desagertzea emanda – Nafarroa bakarrik kontuan hartzen duen proiektu politikoa era sutsuenean defenditu duena, eta bera izan da indar hegemonikoa Nafarroan gure egunetara iritsi arte, nabarrismoa esapidea eta honetatik eratorritako guztia berarekin lotuz.

XIX. mendean bezala, gaur egun ere nabarrismo ezberdin bi aurki ditzakegu: nabarrismo kontserbadorea alde batetik – UPNk ordezkatzen duena –, eta ezkertiarra edo liberala – PSN eta IUk osatzen dutena –. Orain bi mende gertatu bezala, liberalen nabarrismoaren barruan nabardurak aurki ditzakegu egun ere: hasieran Nafarroako sozialistek defenditutako euskaltasuna, eta ohiz kanpoko keinu edo adierazpen gutxi batzuekin nolabait gogorarazten dizkigunak, edota *Izquierda-Ezkerra* alderdiak euskaltasunaren aurrean duen iritzia, edota EAE eta NFE batzearen aurrean hartuko lukeen erabakia, esaterako. Hori alde batetik. Baina dudarik gabe, nabarrismo kontserbadoreak jasan ditu aldaketa nagusiak bere jarreraren, garrantzitsuenak edo begi bistakoenak 1841eko “paktuaren” eguneratzeak suposatzen duen berrezarkuntza forala guztiz alboratzea eta euskaltasunaren zokoratzea izanik. 1839 eta 1841eko Legeen derogazioa eskatuz, egungo nafar errejimen politikoa hauetatik abiatuta

<sup>179</sup> Ibidem, 14. orr.

eraikitzaera igaro da, legitimitate osoa eskainiz eta Nafarroaren subiranotasuna Espainiaren batasun konstituzionalaren azpian lurperatuz.

Euskaltasunari dagokionez, ikusi dugunez aldaketa ere ez da apala izan. Oraindik gerra zibilean euskara eta euskaltasuna aldarrikatzen zituen nabarrismoa, “*vasquismo españolista*” hori guztiz desagertuta zegoen trantsizio garairako eta horrela heldu zaigu XXI. mendera. Victor Pradera edota Eladio Esparza dira nabarrismo garaikide honen erreferentziak, eta hauek euskaltzaleak ziren oso. Egun ordea, ez dugu horren arrastorik aurkitzen. Nabarrismoak euskara eta euskal kulturaren adierazpen oro arbuiatzen ditu – ez ofizialki noski, nahiz eta ez duen sekula euskara erabiltzen bere adierazpenetan – euskal nazionalismoaren arma bezala ikusten baitu: «si en el siglo XIX las corrientes tradicionalistas y conservadoras predicaban a favor de la conservación de las lenguas autóctonas como parte de una sociedad tradicional e inmóvil (...) a fines del siglo XX el navarrismo (...) desconfía del fomento del euskera y de las ikastolas como factores de extensión de las ideas nacionalistas»; bai agertu izan da, zenbaitetan, euskalkien alde, euskara batua gogor gaitzetsiz. Baina honek bestelako helburu bat ere gordetzen du: «pretender mantener la existencia de una lengua sólo a través de sus dialectos supone dejarla reducida a una lengua rural condenada a la desaparición»<sup>180</sup>.

Hala ere, egon dira nabarrismo ez baztertzaille bat sortzeko proposamenak. UPNtik banandu zen CDN asmo horrekin jaio zen, kontzeptua bera ere aldatuz: “*navarrismo*” horren aurrean, “*navarridad*” esapidea proposatzen zuen, eta UPNk praktikatzen zuen politika baino irekiagoa, tranbersalagoa bat planteatu. Emaitza oso onak lortu zituen parte hartu zuen lehenengo hauteskundeetan 1995eko maiatzean, kontuan izanda bi hilabete lehenago sortu zela. Botoen %18,5 lortu zuen, batez ere UPN eta PSOEn kontura. Hala ere, ez zuen inoiz muga hau gainditzea lortu eta hurrengo deialdietan botoak galtzen joan zen, desagertzera heldu arte, nabarrismoaren planteamendu irekiago baten proposamenarekin batera, oraingoz behintzat. Dena den, nabarrismoaren beste planteamendu ezberdinen azterketa gure lanaren muga eta helburuetatik at geratzen da.

<sup>180</sup> IZU BELLOSO Miguel Jose, *Navarra como problema...*, 302-303. orr.



## Bibliografía

- ALIENDE URTASUN Ana, *Elementos fundantes de la identidad colectiva navarra. De la diversidad social a la unidad política (1841-1936)*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea, 1999.
- ALLI ARANGUREN Juan Cruz eta GORTARI UNANUA Joaquin, *La transición política en Navarra 1979-1982*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2011.
- ANDRES-GALLEGO Jose, *Historia de Navarra V. El siglo XX*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1993. AOIZ Floren, *El jarrón roto: la transición en Navarra, una cuestión de estado*, Txalaparta, Tafalla, 2005.
- AOIZ Floren, *La vieja herida. De la conquista española al Amejoramiento Foral*, Txalaparta, Tafalla, 2002.
- AZCONA PASTOR Jose Manuel eta GORTARI UNANUA Joaquin; *Navarra y el nacionalismo vasco. Ensayo histórico-político sobre las señas de identidad originaria del Viejo Reino*, Biblioteca Nueva, Madril, 2001.
- BARAIBAR ETXEBARRIA Alvaro, *Extraño federalismo. La vía navarra a la democracia (1973-1982)*, Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, Madril, 2004.
- BARBERÀ Oscar, Los orígenes de la Unión del Pueblo Navarro (1979-1991), *Papers 92, Revista de Sociología*, 2009.
- CHUECA INTXUSTA, Josu, *El nacionalismo vasco en Navarra (1931-1936)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1999.
- DE LA GRANJA SAINZ, Jose Luis: *El oasis vasco*, Madril, Anaya, 2007.
- DE LA GRANJA Jose Luis, DE PABLO Santiago (koord.), *Laurak bat. Euskadi eta Nafarroa XX. mendean*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Leioa, 2010.
- DE PABLO Santiago, MEES Ludger, *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco (1895-2005)*, Crítica, Bartzelona, 2005.
- DEL BURGO Jaime Ignacio, *Introducción al estudio del Amejoramiento del Fuero (Los Derechos Históricos de Navarra)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1980.
- DEL BURGO Jaime Ignacio, *Navarra. Pasado, presente, futuro*, Laocoonte, Iruñea, 2008.
- DEL BURGO Jaime Ignacio, *Origen y fundamento del origen foral de Navarra*, Aranzadi, Iruñea, 1968.
- ENERIZ OLAECHEA Francisco Javier, *La transición política en Navarra (1975-1979): La democratización de las instituciones forales y Navarra en la Constitución de 1978*.
- ESCUADERO Manuel, VILLANUEVA Javier: *La autonomía del País Vasco desde el pasado al futuro*, Txertoa, Donostia, 1976.
- ESPARZA ZABALEGI Jose Mari, *Mapas para una nación*, Txalaparta, Tafalla, 2012.
- ESTORNES ZUBIZARRETA Idoia, *La construcción de una nacionalidad vasca. El autonomismo de Eusko Ikaskuntza (1918-1931)*, Eusko Jaurlaritz, Gasteiz, 1990.
- FERRER MUÑOZ Manuel, *La cuestión estatutaria en Navarra durante la segunda república. Príncipe de Viana 193, 197-221*
- GARCIA DE CORTAZAR Fernando, LORENZO ESPINOSA Jose Maria, *Historia del País Vasco*, Txertoa, Donostia, 1994.
- GARCIA-SANZ MARCOTEGUI Angel, *La identidad de Navarra. Las razones del navarrismo (1866-1936)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2012.
- GARCÍA-SANZ MARCOTEGUI Angel, IRIARTE LOPEZ Iñaki, MIKELARENA PEÑA Fernando, *Historia del navarrismo (1841-1936). Sus relaciones con el vasquismo*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea, 2002.
- GARCIA-SANZ MARCOTEGUI Angel, MIKELARENA PEÑA Fernando, *Españolismo, vasquismo y navarrismo foral: cambios y persistencias en la interpretación de la identidad de navarra hasta 1936, La construction de letat-nation. France, Espagne, Pays Mordiques (XIXe.-première moitié du XXe. siècle)*, université de Toulouse-II Le Mirail,

Toulouse.

GORTARI UNANUA Joaquin, *La transición política en Navarra, 1976-1979*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1995.

IRIARTE LOPEZ Iñaki, *Tramas de identidad. Literatura y regionalismo en Navarra (1870-1960)*, Biblioteca Nueva, Madril, 2000.

IZU BELLOSO Miguel Jose, *Navarra como problema. Nación y nacionalismo en Navarra*, Biblioteca Nueva, Madril, 2001.

JIMENO JURIO, Jose Maria, *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*, Txalaparta, Tafalla, 1997.

LANA BERASAIN Jose Miguel (koord.), *En torno a la Navarra del siglo XX. Veintiún reflexiones acerca de Sociedad, Economía e Historia*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea, 2002.

LANDA EL BUSTO Luis, *Historia de Navarra: una identidad forjada a través de los siglos*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1999.

LARRAZA Maria del Mar, *La Gamazada en el contexto de la política navarra de fin de siglo*. LOPERENA ROTA Demetrio, *Aproximación al régimen foral de Navarra*, Instituto Vasco de Administración Pública = Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Oñati, 1984.

MIKELARENA Fernando, *Identidad e ideología en Navarra. Los navarrismos en el siglo XX*, Hermes 9. zenbakia, 2003.

MONTERO Manuel, *Historia General del País Vasco*, Txertoa, Donostia, 2008.

PAYNE Stanley George, *Navarrismo y españolismo en la política navarra bajo la Segunda República*, *Príncipe de Viana* Aldizkaria, 166-167 zenbakia, Iruñea, 1982.

RAMIREZ SADABA Jose Luis (zuz.), *Democratización y Amejoramiento Foral. Una historia de la Transición en Navarra (1975-1983)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1999.

SANCHEZ PRIETO Juan Maria, NIEVA ZARDOYA Jose Luis, *Navarra: memoria, política e identidad*, Pamiela, Iruñea, 2004; 320-321. orr.

SORAUREN Mikel, *Historia de Navarra, el Estado Vasco*, Pamiela, Iruñea, 1998.

TAMAYO SALABERRIA, Virginia, *La autonomía vasca contemporánea. Foralidad y estatutismo (1975-1979)*, Instituto Vasco de Administración Pública=Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Oñati, 1994.

#### **Web orrialdeak:**

[http://www.lamoncloa.gob.es/Espana/LeyFundamental/disposiciones\\_adicionales.htm](http://www.lamoncloa.gob.es/Espana/LeyFundamental/disposiciones_adicionales.htm)

[http://www.lamoncloa.gob.es/Espana/LeyFundamental/disposiciones\\_transitorias.htm](http://www.lamoncloa.gob.es/Espana/LeyFundamental/disposiciones_transitorias.htm)

<http://www.congreso.es/consti/constitucion/indice/titulos/articulos.jsp?ini=1&tipo=5>